

# Goienkaria


ASTELEHENEKO

2010eko uztailaren 5a > Astelehena > VI. urtea > 284. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 URTE  
www.goiena.net TOKIKOM

"Azalak memoria daukanez, txikitako erredurek gaixotasunak sor ditzakete"

Conchi Tamayo  
Dermatologoa > 09



**G2a** Katherine Davisen blues irakaspena > 29

**BERGARA** UNEDek babesa Jose Luis Elkorori, emandako laguntzagatik > 04

**ARETXABALETA** Gaur zabalduko dituzte bide zaharreko bi noranzkoak > 04

**TXIRRINDULARITZA** Dorletako Amaren lehen mendi bizikleta irteeran, 98 lagun > 21

INGURUMENA > EPELEKO ARAZTEGIA

## Urte hasierarako amaituko dute Oñatiko kolektorea

**LAU KILOMETRO** Horixe da Arrandiburu mendia inguratuz Zubillaga eta Epele lotzeko beharko duten hodian luzera

**ATZERAPENA** Epeleko araztegia eraikitzeko lanak atzeratuta daude, eta 2011ko irailean amaitu nahi dituzte

**26 MILIOI** Proiektuak 32 milioiko aurrekontua bazuen ere, merketu du Oñati eta Epele artean tunela ez egiteak > 02-03

PILOTA > LAU T'ERDI

## Elezkano II eta Yoldi, txapeldun

Kadete eta 23 urtez azpiko kategoriatan erraz irabazi zuten Elgetan jokaturako finaletan. > 25

### Tiraka-tiraka, iritsi dira amaierara

Elgetako jaiak atzo gauean bukatu ziren eta ordura arte ez da bake unerik izan herrian: paella erraldoia dela, herri bazkariak, asto lasterketa, idi probak, baserritarren azoka, herri kirolak harri jasotzea, Gozategi...

Herri giro polita izan da; are gehiago, idi probetara kanpotik gero eta jende gehiago joaten da.

Aramaion ere ume zein nagusiak gustura ibili dira. Rocka dela, txapelketak, umeen jokoak, herri kirolak, Txirritolinpiadak eta beste izan dituzte. Gaur, gainera, koadriren pikea eta herri afaria izango dira izarrak; baina, hori bai, mozorrotuta. > 10, 12



LASTERKETA XELEBREA Aurten ere Elgetako asto karrerak ikusmin handia piztu du jaietan.

JOSETXO ARANTZABAL

### AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-05
- Elkarrizketa > 06
- Iritzia > 08
- Herriak > 11-20
- Kirola > 21-27
- Kultura > 29-33
- Sailkatuak > 34-35
- Telebista-Irratia > 37
- Berri-zakua > 38
- Asteburuko albuma > 39

Guztioi gustatzen zaigu diseinua eta edertasuna.

Mugarri Autoak  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

Feel the difference

Ford

Ford Kuga,  
2009an gehien saldu zen 4x4 autoa\*.

\*Informazio iturria: Anfac.

Goiena kluba

REAL SOCIEDAD  
WALSLEY

Iritsi dira ekaineko opariak!  
Badago zuretzako?

Zoaz 23. orrialdera

INGURUMENA &gt; EPELEKO ARAZTEGIA

# Urte hasierarako amaituko dute Oñatiko kolektorea

**LAU KILOMETRO** Horixe da Arrandiburu mendia inguratuz Zubillaga eta Epele lotzeko beharko duten hodian luzera

**ATZERAPENA** Epeleko araztegia eraikitze lanak atzeratuta daude eta 2011ko irailean amaitu nahi dituzte

**26 MILIOI** Hasierako proiektuak 32 milioiko aurrekontua bazuen ere, Oñatiko eta Epele artean tunela ez egiteak merkatu du

MIRIAN BITERI &gt; ARRASATE

Hasierako aurreikuspenak atzeratu egin dira eta Epeleko araztegia ez da aurtengo abendurako amaituta egongo. Lanetako arduradun Cristina de la Fuentek baieztatu digu obrak atzeratuta daudela eta, hortaz, amaitzeko epe berria baimendu dietela: 2011. urteko iraila, hain justu ere.

Araztegi berriak Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiko urak batuko ditu. Lehenengo hiru herrietako kolektorea

araztegia egiten hasi aurretik egin zegoen, eta, hori Epele berriaren irteten denez, lanean diharduen UTE EDAR Epele enpresako langileek kolektore hori araztegiara konektatzea baino ez dute egin behar.

Baina Oñatitiko ur zikinak ekarri behar dira. Hasierako proiektuak jasotzen zuen Zubillagatik Epele bitartean, Arrandiburu mendia zeharkatuz, 2.007 metroko tunela egitea. De la Fuentek gogorarazi du horren ordeza

bultzatuko duten bi hodi egingo dituztela, mendia inguratzen. Haren esanetan, "batetik, tunela eraikitzeko segurtasun arazoak zeuden; eta bestetik, tunela irten behar zen ingurunean gaur egun AP-1 autobidearen biaduktua dago, eta, hori dela-eta, tunela hori egitea ez zen posible".

Joan den hilabetean hasi ziren kolektore hori egiten, Zubillagan. Lau kilometroko luzera duten bi hodi jarriko dituzte, 35 zentimetroko diametrokoak. Ezustekorik

egoten ez bada, zortzi edo bederatzir hilabetean amaituta egon beharko luke kolektoreak.

#### EGURALDIA

Horren harira, De la Fuentek azaldu du eguraldiak proiektua baldintza dezakeela: "Euriak asko atzeratzen du obra bat; lanak oztopatzen ditu, lurra biguntzen da eta makinak ezin dira erabili; gainera, hainbat zati errekatik egin behar dira, eta ur askorekin datorrenean ezinezkoa da



Zubillagan hasi ziren joan den hilabetean Oñatiko kolektorea

horra sartzea". Lanetako arduradunak gogorarazi du 2006ko abenduan hasi zirela Epeleko araztegia eraikitzen eta hasieran, lau urteko epea zutela proiektua

# BEHERAPEN hauetan

*aurkitu zuretzako modukoa*

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra



BEHERAPENETAKO bat-bateko maitemintzeen %98k amaiera zoriontsua dute. ❤️

*Maitemindu El Boulevard-en*

Aurtengo udan zure estiloa berritu nahi baduzu eta beherapenei ahalik eta etekin handiena atera, jo ezazu Irudi-Aholkularitza eta Personal Shopper zerbitzu berrira.

Aukerez beteta, ZUTAZ beteta.



www.el-boulevard.com  
Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440



olektorea egiten; Epeleko araztegrainoko ur hodie Arrandiburu mendia inguratuko dute.

ARANTZAZU EZKIBEL

amaitzeko; hau da, aurtengo abendua. Baina, esan bezala, 2011ko irailera arte luzatuko dira. Horren harira, gaineratu du araztegia hilabete batzuk lehenago

hasiko dela lan egiten, probetan, eta dena behar bezala baldin badao, esandako data horretan funtzionamenduan egon beharko lukeela.

Bestalde, araztegiako obren egoeraren gainean ere hitz egin digu De la Fuente. Obra zibila moduan ezagutzen dena (instalazioak) amaitzear daudela azaldu

ESANAK

**"Kolektorearen hainbat zati errekatik egin behar dira, eta ur askorekin datorrenean ezinezkoa da horra sartzea"**

**"Bere garaian, Epeleko ingurunean, GI-627 errepedearen trazatua aldatu zen, eta orain bihurgune hori aldatzea falta da"**

C. de la Fuente > Lanen arduraduna

du, elektrizitatea eta horrelako gauzak sartzea falta da. Horrez gain, urbanizazioari azken ukituak eman behar zaizkiola ere gogorarazi du. Bestalde, esan bezala, Oñatiko kolektorea erai ki beharko dute aurrerantzean.

**ERREPIDEKO BIHURGUNEA KENDU**

Horiek araztegiari dagokionez. Baina, horretaz aparte, beste hainbat lan ere badituzte esku artean. Jakina denez, instalazioak eremu horretan sartu ahal izateko GI-627 errepedearen trazatua eta Deba errekekaren bidea aldatu behar izan dira. Hori dela-

eta, orain erreka bideratzeko horma berria eraikitzen hasi dira araztegiako iparrean. Horrekin batera, toki berean, esandako errepedeak gaur egun duen bihurgune itxia konponduko dute. De la Fuente esanetan, "bere garaian, Epeleko ingurunean, GI-627 errepedearen trazatua aldatu zen eta orain bihurgune hori aldatzea falta da".

**BIDEGORRIA GERTATZEN**

Baina errepede eta erreka gain, Elorregi eta Arrasate arteko bidegorri zati batekin ere bat egiten du araztegiak. Azken horren hoditegien gainetik pasatuko da bidegorria eta langileak kilometro erdiko tarte hori egokitzen dabilta.

**26 MILIOI EURO**

Bestalde, proiektu osoaren aurrekontua 26 milioi euro da. Horren harira, komeni da gogoratzea hasierako egitasmoak 32 milioi zituela aurreikusita; baina Oñatiko kolektorearendako tunelik egin behar izateak hori merketu egin du.

Espainiako Ingurumen Ministerioak du lan horien ardurara, interes orokorreko azpiegitura izendapena eman ziolako. Lanak egiteaz, berriz, UTE EDAR Epele arduratzen ari da, Espainiako Ingurumen Ministerioaren mende dagoen Kantauriko Ur Konfederazioaren erakundearen ardurapean. Bukatuta dagoenean, Gipuzkoako Urek izango dute horren ardura.

**Helburua: ura ahalik eta garbien itzultzea Deba ibaira**

Epeleko araztegiak, esandako moduan, Eskoriatzak, Aretxabaletak, Arrasatek eta Oñatik Deba ibaira botatuko ur zikinak garbituko ditu. Instalazioek 25.000 metro karratu inguruko hedadura dute eta segundoko 848 litro prozesatzeko ahalmena izango dute, datorren urtean funtzionamenduan jartzen dituztenean.

Araztegi ondoan egongo diren kolektoreetatik iristen diren urak Kataide industrialde-tik gertuen dagoen eraikinera sartuko dira eta makina baten bidez hondakin solido handienak bereiztuko dira, azken horiek zabortegira eraman ditzaten.

**LOKATZA, ENERGIA ATERATZEKO**


Jarraian, ura ondoko eraikinera pasatuko da eta han lokatza kenduko zaio, eta azken hori tratatu egingo da. Lokatza tratatzeak energia emango du, eta hori araztegia elikatzeko aprobetxatuko da. Hortik lortuko du energia, neurri handi batean.

Lokatza barik dagoenean, hodian bitartez Epeleko biribilgunearen beste aldean dauden depositu handietara pasatuko da ura. Prozesuaren azken fasean sartuko da orduan, Deba ibaira ahalik eta garbien bueltatu aurretik.



Hondakin solidoak banatzeko makina.

MIRIAN BITERI



Lokatza tratatzeko instalazioak.

M.B.



Goiko irudian dauden deposituetan egingo da ura garbitzeko azken fasea.

M.B.

ELKARTASUNA &gt; MUGITUKO DA! JOSE LUIS ELKORO LIBRE! PLATAFORMA

# UNEDen babesa jaso du Jose Luis Elkorok hastapenetatik emandako laguntzagatik

UNEDeko arduradunek atxikimendua erakutsi diote plataformari eta gogoratu nahi izan dute Elkorok UNEDen sorreran eta bilakaeran izandako ezinbesteko papera

IKER BARANDIARAN &gt; BERGARA

Mugituko da! Jose Luis Elkorok libre plataformak lanean jarraitzen du eta ez hori bakarrik, gero eta atxikimendu gehiago lortu ditu. Azkena, Bergarako UNEDeko patronatuarena.

UNEDeko arduradunek *Goienkaria*-ri jakinarazi diote Jose Luis Elkorok "ezinbestekoa" izan zela unibertsitate hori Bergaran ezartzerakoan, "EHU ere

oraindik existitzen ez zenean". "Jose Luis Elkorok oso garrantzitsutzat izan du beti Debagoiengan UNED egotea eta lan handia egin zuen hori lortzeko. Udalaz gain, 1976an bi aurrezki kutxa eta Diputazioa konbentzitu zituen gure patronatuan parte hartzeko, baita herriko enpresa batzuk hurbildu ere. Erakundeek babesa lortzeaz gain, laguntza ekonomikoa ere lortu

zuen". Hala, 1976ko otsailean Elkorok Bergarako alkate izendatu zuten eta udaren bueltan, hasi zituzten lehenengo eskolak.

AURREIRITZIEKIN APURTUTA

UNEDeko ordezkarien esanetan, Madrildik ere deigarria egin zitzaion Bergaran jasotako babesa eta oso esker onekoa izan zuten. "Elkorok edozein motako aurreiritziekin apurtu zuen, UNED

sasoian Espainiako unibertsitate bat izanik". Hala, UNEDek 25 urte bete zituenean, Elkorori errekonozimendu berezia egin zioten; eta alkate ohiak hasieratik gaur egunera arte erakundearen ibilbidearen jarraipena egin du.

"Elkorok ere bultzatu zuen UNEDen eta Telesforo Monzon fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena".

## Bizikleta ibilaldi jendetsua egin zuten egubakoitz iluntzean

Egubakoitz iluntzean ehunka bergarar bizikleta gainera igo eta *Mugituko da!* Jose Luis Elkororen aldeko leloa irudikatzen duen elefantea gidari zutela, Bergaran zehar ibilaldia egin zuten alkate ohiaren askatasuna eskatzeko.

Gero eta ekimen eta eragile gehiago batzen dabil Mugituko da! Jose Luis Elkorok Libre plataforma. Honakoan Lokatza txirringulak elkarrekoek bizikleta martxa antolatu zuten eta herritar ugari esku hartu zuten: helduek, umeek, gaztetxoek... Ekimenak oso erantzun ona izan zuten.



Adin guztietako herritarrek bizikleta hartu eta ibilaldia egin zuten Bergaran zehar.

IKER BARANDIARAN

AZPIEGITURAK &gt; BIRIBILGUNEA

## Gaur zabalduko dute Aretxabaleta eta Arrasate arteko bidea bi noranzkotan

Bi herrien arteko biribilgunea uztailean bukatuko dutela aurreikusituz

I.B. &gt; ARETXABALETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Saileko ordezkariak egubakoitzean jakinarazi zioten Aretxabaletako Udalarari gaur, astelehena, Aretxabaletako bide

zaharra bi noranzkotan zabalduko dutela eta saihebidetik ere bertara sartu ahal izango dela. Aldunditik ez dute irekieraren ordu zehatzik zehaztu. Hala azaldu dio Inaxio Garro alkateak

*Asteleheneko Goienkaria*-ri. Hortaz, bost bat hilabete iraun duten lanetako bat bukatuta egongo litzateke. Oraindik falta da, baina, Arrasate eta Aretxabaleta arteko biribilgunea bukatzea. Aurreikuspenen arabera, hilabete honetan bukatu beharko lukete.

BIRIBILGUNEA, UZTAILEAN

Azken hilabeteen aukera eman dute, aurreko hilabeteetan ez bezala, Arrasatetik Aretxabaletako noranzkoan bide zaharretik herrira sartzeko; ez ordea, Aretxabaletako puntu horretatik Arrasaterantz irteteko. Hortaz, ekainera arte Aretxabaletara sartu zein irteteko Azbetik saihebidetara hartu beharra zegoen; eta ekainetik hona sartu ez, baina irteteko ezinbestekoa zen hori.

Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok azaldu du lan horiek "burukomin handia" eragin dietela aretxabaletarrei, eta "behin betiko osorik bukatzea" espero dutela.



Biribilguneke laneak 'baldintzatuta' izan dituzte Aretxabaletako joan-etorriak.

JOSETXO ARANTZABAL

&gt; EKONOMIA

### Langabeziak behera egin du oso apal Debagoiengan

SEPEren (lehengo INEM) ekaineko langabezia datuen arabera, ibarreko tasa %9,87tik %9,56ra pasa da. Antzuolan 96 langabetik 91ra; Aretxabaletan 319tik 297ra; Arrasaten 1.254tik 1.198ra; Bergaran 715etik 710era; eta Oñatin 434tik 418ra. Elgetan (25etik 31ra); Eskoriatzan (205tik 206ra); eta Gatzagan (10etik 12ra) igo da.

&gt; ELKARTEAK

### AGIFESeko ibarreko bazkideendako, batzarra egunean

AGIFES ek (Gipuzkoako gaitxo psikikoen eta senitartekoek elkarrekin) batzar informetiboa deitu du Debagoiengo bazkideendako.

Batzarra egunean izango da, hilaren 8an, Bergarako Santa Ana kultura etxean, 18:15ean. Batzar hori sei hilabetetik behin bakarrik egiten dute; hala, bazkideei parte hartzeko eskatu gura diete.



Enplegu Tailerreko arduradunak, zoru bero-emailea erakusten.

JOSETXO ARANTZABAL

LANAK > ERABERRITZEA

# Zoru bero-emailea ipini diote Zubillagako Olaburu zentroari

Eraikinaren berogailu sistema izango denaren hodiak instalatu dituzte Enplegu Tailerreko ikasle eta langileek

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Zubillagako Olaburu enpresa ekimenean zentroa egokitzeko obrak aurrera doaz, Mankomunitateak daraman Enplegu Tailerrean dabilen lagunekin, eta zati garrantzitsua egiten dabilta egunotan: zoru bero-emailea instalatzen, eraikinaren bero-

gailu sistema izango dena. Oñatiko Udaleko Garapen Ekonomiko eta Enplegu saileko teknikari Jesus Mari Ugartek hauxe azaltzen du: "Hasieran, ohiko berogailu sistema jarri behar genuen, baina Enplegu Tailerreko ikasleek praktikak egiteko aukera izango zuten zoru bero-emailea ipiniz gero". Kontuan hartu behar da Enplegu Tailer horretako ikasgaietako bi direla eraikinaren mantenua eta energia berriztagarriak, eta Olaburu obraren biak praktikara eraman dituzte.

Zoru azpiko hodiak ipintzen bukatu zuten joan den astean, eta gaur, astelehena, hasiko dira hori estaltzen.

Eraikin eraberrituak aukera emango du, gerora, eguzki-energia termikoaz elikatze obra egiteko. Oraingoz, ohiko galdera ipini dute.

GEHIENA EGINDA DAGO

Zoruko obrak bukatu eta gero, igeltserotza lan gehiago egin beharko dituzte; gero, sabai faltua ipiniko dute eta instalazio elektriko lanparak ipini; margotu; eta kanpoko elementu elektrikoak ipini. Horrez gain, arotz batek egin beharreko egur-lanak geratuko dira, horiek ez baitituzte landu Enplegu Tailerrean.

Dena bukatutakoan, zazpi tailerrendako eta sei bulegorendako lekua izango du Olaburuk.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > zuzen@goiena.com

## Bi puntu gehiago

Bi puntu gehiago ordaindu beharko dugu erosten duguna hil honen hasiera ezker. Berdin aberats izan edo langabezian egon.

Asko hitz egin da egun hauetan Estatuko presio fiskalaz. Frantziakoa baino 10 puntu txikiagoa omen da eta igo beharra aipatu dute hainbat eragilek.

Nik datu hauek ematen zaizkigunean beti botatzen ditut faltan azalpen sakonagoak. Adibidez, ze tasa ordaintzen duen gure antzeko soldata duen frantsesak. Ez dut uste diru sarre-berdinak izanik 10 puntu gehiago ordainduko dituenik bere errentako deklarazioan.

Pertsona Fisikoen Errentarekiko zerga da europar fiskalitatearen oinarrietako bat. Progresiboa da, eta zenbat eta irabazi handiagoak, tasa handiagoak ordaintzen dira. Suediako eta hemengo batez besteko soldatak ez dira berdinak, noski. Gehitu %20ko langabezia duen estatu batean bizi garela, eta ezkutuko ekonomia BPGren %23 dela. Nola izango dira, bada, berdinak Suedia edo Frantzia eta Espainiako presio fiskala?

Honek bakarrik ez duela esplikatzen 10 puntuko aldea? Agian ez, baina presio fiskala handitzea zergak handituz? Lehenago aztertu beharko litzateke noraino iristen den presioa iruzurra eta ezkutuko ekonomia desagerraraziko balira. Nik, Puturru de Fua-ren kantzak zioen bezala, ezin dut presio fiskal hau jasan. Ez gehiago, mesedez.

**"Europar, zenbat eta irabazi handiagoak, tasa handiagoak ezartzen dituzte"**

> **Ezagutu ditugu Euskobarometroaren emaitzak. Ez dago gauza berririk. Harrigarria da nola egiten dioten entzungor politiko askok herritarren mezuei. Herriarrentzat baina herria gabe lelo zaharra berpiztu nahian bezala.**

> **Futbolaren mundua ez du krisiak jo oraindik. Oraingoz! Lotsagarria da Espainiako futbolariak beren helburua lortzeagatik jasoko duten dirukopurua. Arrazoi garrantzitsu bat gehiago bidean gera daitezen nahi izateko.**

ZERBITZUAK > GARRAIO PUBLIKOA

## Arrikutzen geldituko dira uztailean Oñatitik Arantzazurako hiru autobus

Arantzazutik Oñatira joaten diren bi autobusek ere geldialdia egingo dute Arrikutzen: 12:00etakoak eta 17:00etakoak

L.K. > OÑATI

Oñatiko Udalak antolatuta, aurtengo uztailean ere egongo da Oñatiren eta Arantzazuko Santutegiaren arteko joan-etorriak egiteko autobus zerbitzua; eta, gainera, autobus horietako batzuk Arrikutzen ere geldituko dira: Oñatitik Arantzazura-

ko 10:30eko eta 15:30eko autobusa, eta Arantzazutik Oñatira doazen 12:00etako eta 17:00etako autobusak.

**OHIKO GELTOKIAK**

Oñatiko geltokiak San Lorentzon, Euskadi etorbidean eta postetxean izango dira. Etorrerako

### Ordutegia

**Oñatitik irteerak**

07:30, 08:30, 09:30, 10:30\*, 11:00, 11:30, 12:00\*, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30\*, 16:00, 16:30, 17:00\*, 17:30, 18:30, 19:30.

**Arantzazutik irteerak**

08:00, 09:00, 10:00, 12:00\*, 13:00, 14:00, 15:00, 17:00\*, 18:00, 19:00, 20:00.

OHARRA: (\*) daramaten autobusak Arrikutzen geldituko dira.

geltokiak berberak izango dira, eta irteera Arantzazuko santutegian bertan izango da.

Bada, txartelaren prezioa 0,60 euro izango da ibilbide eta pertsonako.

FORU ALDUNDIA > DIRULAGUNTZA

## Bi kirol instalaziorendako 61.000 euroko laguntza

Oñatiko Larraña futbol zelairako 50.000 euro emango ditu Foru Aldundiak

L.K. > BERGARA

Oñatiko eta Eskoriatzako udalek dirulaguntza jasoko dute Foru Aldundiko Kirol Saitetik; horren fede ematen duen hitzarmena egunean sinatu zuten Iñaki Galdos Kirol diputatuak eta udal horietako ordezkariak. 2008-2011 Kirol Ekipamenduen

Planean daude sartuta dirulaguntza horiek.

Oñatiko Udalarari 50.000 euro emango dizkio Aldundiak, eta Larrañako futbol zelaia egokitzeko erabiliko ditu hark. Eskoriatzako Udalarari 11.000 euro emango dizkio, eta nagusiendako osasun parkea egiteko izango dira. Proiektu horren aurrekontua 22.000 eurokoa da.

**GIPUZKOAKO 13 HERRI**

Denetara, 1,24 milioi euroko dirulaguntzak emango ditu Aldundiak, Gipuzkoako 13 herriko 14 instalaziorendako.

Udarekin batera eguraldi ona eta eguzkia iritsi dira. Bat-batean negutik udara pasa garela esan daiteke. Hala, dagoeneko jendea hasi da eguzkia hartzen. Hori dela-eta, azala zaintzearen garrantzia nabarmendu, eta Conchi Tamayo dermatologoaren aholkuak jaso ditugu. Eguzkia beharrezkoa dugula argi dago, baina, dena bezala, bere tamainan.

Conchi Tamayo > Dermatologoa

# "Azalak memoria daukanez, txikitako erredurek gaixotasunak sor ditzakete"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Oñatiko Atzeko kalean dauka kontsulta Conchi Tamayo dermatologoak. Harekin izan gara eguzkiaren eraginaz berbetan. Azala zaintzea beharrezkoa da; horretarako, eguzkiak gogorren jotzen duen orduak saihesteko gomendatu digu.

**Ze aholku emango zenituzke eguzkia hartzerakoan kontuan hartzekoak?**

Garrantzitsua da eguzkitan ordu asko jarraian egotea saihestea. Hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da eguzki-babeslea erabiltzea, babes-faktore handikoa.

Beti esaten dugun beste kontu bat da eguzkiak gehien jotzen duen orduetan ez hartzea eguzkia -12:00etatik 16:00etara-. Ez erretzea oso garrantzitsua da, batez ere txikitari. Izan ere, txikitako erredura batek eragina izan dezake handitan; eta, adibidez, azaleko minbizia eragin.

**Azalaren araberako eguzki-babesleak erabili beharko dira.**

Kremak batez ere babes-faktorearen arabera bereizten dira. Gaur egun oraindik, batzuek 10 edo 15 babes-faktoreko kremak erabiltzen dituzte. Horiek ez dute babesten. Gutxienez, 30etik gorako babes-faktorea izan behar du krema batek.

Garrantzitsua da krema berri-za; mendian edo uretan gaudean denbora jakin baten, berriro eman behar da krema. Baita bereziki uretarako egokiak diren kremetan ere.

**Krema kantitate egokia zein da?**

Gomendagarria da 2 miligramo zentimetro koadroko ematea. Ikusi egin behar da azalean krema.

**Ohikoa da krema gehiegi emateagatik azalean arazoak sortzea?**

Krema berri-za egin behar da gutxienez bi orduan behin. Ez da gehiegi jarri behar, baina ezta gutxi ere. Gerta daiteke norbait alergikoa izatea fotoprotektoreei. Kasu horietarako, badaude babesle fisikoak. Hau da, kremak dira babesle kimikoak; baina kimiko horiei alergia dietenendako babesle fisikoak daude. Farmazietan saltzen dituzte, eta pantailak dira.

**Bestalde, ume txikiak daude. Urtebete baino gazteagoek ezin dute eguzkirik hartu?**



Conchi Tamayo dermatologoa Oñatiko kontsultan.

A.E.

Ez, ume txikiak ezin dute eguzkirik hartu. Guraso askok galdetzen dute ze babesle den egokiena hain ume txikiendako. Eta, egia esan, ez da egokia ezer gomendatzea; izan ere, ezin dute eguzkirik hartu. Ume-kotxean egon behar dute oihal arinekin babestuta, fisikoki.

Urtebetetik aurrera umeendako bereziak diren kremak eman behar dira. Esan behar da krema asko koloredunak direla gurasoen segurtasunerako; hala, badakite non eman duten eta non ez. Umeendako kremak babes-faktore handikoak izaten dira.

**Esaten ei da erretzen ez denak ez duela zertan kremarik jarri.**

Azal ilunagoa dutenek erretzeko aukera gutxiago dute, baina horrek ez du esan gura ez dutela babestu behar. Erre ez arren, zelula mailan min har dezakete.

Azal kolorearen arabera bost maila daude: bata azal zuriena

KREMA

**"Krema kantitate egokia eman behar da eta gomendagarria da bi orduan behin berritza"**

UME TXIKIAK

**"Urtebete baino gutxiagoko umeek ezin dute eguzkirik hartu, babestu egin behar ditugu"**

MINBIZIA

**"Azaleko minbizi kasu gehiago daude, besteak beste, gehiago zaintzen dugulako geure burua"**

izango litzateke eta bosta ilunena. Azal ilunena ez da erreko, baina ez du esan gura ez denik babes-tu behar. Ez dute babes-faktore altuena erabili behar, baina, hala ere, ez 20a baino txikiagoa.

**Eguzkiaren efektuak metatu egiten dira; hau da, azalak memoria dauka?**

Bai, horrela da. Txikitari jasandako erredurak oso garrantzitsuak dira, azalak memoria daukalako. Denbora pasa ahala, azaleko hainbat gaixotasun ager daitezke; adibidez, minbizia.

**Azala erretzen zaigunean, denbora batera zuritu egiten gara. Zergatik gertatzen da hori?**

Erredura lehenengo mailakoa denean jausten zaigu azala. Epidermisa da erre zaiguna, eta berri-za egiten da. Beste erredura batzuk bigarren mailakoak edo hirugarren mailakoak izaten dira. Horietan, epidermisaz gainera, dermisa ere mintzen da.

**Eguzkia hartzea txarra dela entzuten dugu behin eta berriz, baina hein batean eguzkia beharrezkoa dugu. Ez da hala?**

Bai, hala da, gertatzen dena da eguzkia egunero hartzen dugula. Lanera goazenean, errosketak egitera goazenean... egunero hartzen dugun eguzki hori nahikoa da D bitaminaren sintesia egiteko. Bestalde, eguzkiak alaitasuna ematen du.

Guk esaten dugunean txarra dela eguzkia hartzea esan gura dugu txarra dela denbora luze eguzkitan egotea.

**Azaleko minbizi kasuek gora egin dute azkenaldian. Zergatik da hori?**

Batez ere, orain lehen baino gehiago zaintzen dugulako geure burua, eta medikuarengana gehiago joaten garelako. Bestalde, azal beltzarana izatea modan dago orain, eta horrek ere eragina du.

Azal beltzarana izatea bizimodu hobearrekin lotzen dugu.

www.danbaka.com



**DANBAKA))))))**

IV. MUSIKA LEHIAKETA  
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

# PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debarrena edo Durangaldekua bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:  
[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)

irailak **17** izena  
emateko  
azken  
eguna

## kale inkesta

## Arduratzen zaitu BEZaren igoerak? Egin duzu erosketarik, apropos, aldaketa ezarri aurretik?



**Esteban Kens**  
Langilea  
Aretxabaleta

Bai, arduratzen nau. Egun, zaila da hilabete-ko gastuekin aurre egitea, eta igoera igarri egingo dugu, ziur. Ezinbestekoa da gastuak neurtzea, bestela... Halako igoerekin, batzuen oporrak kolokan egongo dira.



**Monika Frutos**  
Langilea  
Aretxabaleta

Arduratuta nago eta igoera igarri egingo da, zalantza barik, baina ezin dugu ezer egin, inposatu egin dutelako. Nik ez dut igoera ezarri aurretik erosketa berezirik egin, baina etxeak-eta erosi dituzten askok, bai.



**Jose Antonio Galdos**  
Langilea  
Aretxabaleta

Arduratu? Dagoeneko gauza guztiak daude garesti eta badirudi prezioek gorantz jarraituko dutela, baina nik egunerokoan aurrera egiten dut. Gainera, saiatzan naiz diruarengatik osasuna ez galtzen.



**Mercedes Chaverra**  
Langilea  
Aretxabaleta

Bai, asko arduratzen nau, gehiegikeria iruditzen zait. Dirua izan banu, erosketak aurretik egingo nituzkeen. BEZa igotzeak ez du ezer konponduko; behar dena da ministerio eta goi-kargu asko kentzea.

## zorroztailea



**Markos Balentziaga**

## Eskumako orkatillia

“Antonio Basagoiti, Gipuzkoa eta Bizkaiko Arabako presidentek, berna hezurra eta lotailu bat hautsi ditu PPko kideen arteko futbol partidu batean Donostian. (...) Espainiako selekzioaren Munduko Koparen ondoko lehen partidua Euskal Herrian izan dadin eskatzeko egin zuten partidua”.

Berria > 2010-07-02



Euskadiko Gobernuan PSOE eta PP lagun diranetik inoiz baño harruago dabil Oreja frankistiaren alderdixa. Gobernu horren ardura haundixena Euskadi Españan “normaltzia” da. Horretarako Futbol-Mundialaren ostian Españaiko Selekziñuak lehen partidua Euskadin jokatzia eta Españaren Itzulixak etapa-akabera bat behintzat hemen izatia nahi leuzkiela esanda dauka Lehendakarixak. Dinamika horretan PPK vuvuzela-animaziñua egitten dihardu.

Jakiñeko kontua da PPK besteek eztakon ideiak txitian-pitian izaten dittuala. Eta zer ekarri egitten dau, ba, orainguan eusko politika irudimentsura? Ba, alderdiko buruen eta gaztien arteko futbol-partidu bat jokatzia!

Hamaika barre eta kritika egindakuak dira bai PPKuak eta bai PSOEkuak, hemen, Euskal Herrixan, futbol-partidu, mendi-ibillera, herri-txikiteo, triki-poteo edo dana dalakua eratu danielan euskeriaren, ikastolaren baten, amnistiaren edo beste edozein ekimenen alde.

PPko buru argixak, joan dan eguenian, Mundialaren epelian, futbol-partidu bat jokatzian ikusi zebe Euskadi Españan “naturaltzia” erreibindikatzeko aukeria. Eta zer jazo zan zorioneko partidu horretan? Partiduo hasi eta lasterrera Euskadiko PPN oñarri dan Basagoitik eskumako orkatillia txirtxildu zeban!

Bere sasoiari PPK eta PSOEek edarki aspertu gintuzten Euskadik gorabehera identitariuak alboratzea badauzkala eta badauzkala “raca raca” (Ares artista sortzalle zorrotzaren berbak dira) kontzertua emonaz, karrakakarra.

Sormenez beteriko bide horretan aurrera egiñaz, hurrengo ekimena “Vuelta”-ko etapa-akaberaren bat hona ekartzeko aha-legiña izango da, jakiña. Basagoitik baloia laga eta erreibindikaziño-bizikletiare gañera igo bihar badau, ondo egingo dau kas-ko eta guzti egiten, ze bizikletia gogoz kontra laga biharrian balitz, futbol-partidua letxe, orkatillia baino konpongaitzagua dan (alderdi)burua be kaltetzeko arriskuan izango litzake.

**"PPk eta PSOEek edarki aspertu gintuzten Euskadik gorabehera identitariuak alboratzea badauzkala eta badauzkala esaten"**

## irakurlearen txokoa

**943 25 05 05**  
goienkaria@goiena.com

ARETXABALETA

> **Oinezkoen ausarkeria Urkulurako bidean**

Urkulura autoz igo eta bide ertzean aurkitutako oinezkoen jokaerarekin "beldurtuta" idatzi du irakurle batek. "Autoan igo eta errepidean bertan hainbat oinezko" ikusi ditu paseatzen eta ez du ulertz nola oinezko horiek "hainbeste arriska" daitezkeen. Urkulurako bidean ez dago ez bazterbide ez oinezkoentzako lekuri eta horregatik uste du "debekatu" egin beharko litzatekeela hortik oinez ibiltzea. "Bihurguneetan, batez ere, ez dago ikusmenik eta oinezkoak ia gainera etortzen zaizkizu eta ia harrapatu", dio asaldaturik: "Eta ez da abiada kontua, autoan astiro joanda ere arriskutsua da beste erreira joan beharra duzu-eta", zehazten du. "Urkulura igotzeko beste bide asko dago eta Udalak galarazi egin beharko luke errepidetik oinez ibiltzea, ezbeharren bat gertatu baino lehen".

ARRASATE

> **Hildako amuarrainak Deba errekan**

Zapatu goizean etxeko leihotik ikusitakoa salatzejo du txoko honetara irakurle batek.

Gelmako etxeetan bizi da arrasatearra eta handik bertatik, errekan bertan "berriz ere" hildako amuarrainak ikusi zituen zapatu goizean. "Oso haserre" dagoela adierazi du eta errepikatu, behin eta berrit gertatzen den kontua dela. Zuzenean lantegi batetik egindako isurketa batek eragindakoa dela dio eta "sarri geratzen den kontua" dela.

## ustek uste

Jokin Bereziartua

## Greba, protesta egiteko eguna?

Erantzun ezberdina izan zuten Debagoienean joan den martitzeneko -E-29- greba orokorrak. Oro har, denda eta negozio txikiak persianak bota zituzten eta kooperatiba eta enpresa handiek ez zuten bat egin aldarrikan egunarekin.

Aldarrikapenerako eta protesta egiteko eguna zelako, edo? Izan ere, joan den martitzeneko -E-29- lepo bete ziren hondartza, igerileku eta pantanoak, eguraldi bikaina egiten zuten-eta. Ez zegoen horrenbeste jende, esaterako, Arrasaten egin zen manifestazioan. Kalera protestan atera beharrean eguzkia hartzen erosoago sentitzen gara, lasai-lasai, gure azala belztu eta eder-eder jartzeko helburuz. Inposizioak eta lan erreformak eguzkia hartuz geldituko ditugu-eta, bai horixe.

## Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi  
Asteburuko erredakzioaren arduraduna Iker Barandiaran Erredakzioa Jon Bereziartua Jokin Bereziartua  
Oinarriko diseinua Gorka Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna  
Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA  
BERGARA 20570 Ibarra Kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK  
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Duranta 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Post-a: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale



ASTELEHENEN GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak**  
**diruz lagundutako aldizkaria**



# Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19  
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**  
Ingalaterrako Levellers taldeak Euskal Herriko kontzertu bakarra egingo du Hiru aretoan > 15



> **BERGARA**  
Herri autobusaren erabilera bultzatzeko bonu sistemak erantzun bikaina izan du > 16



> **ESKORIATZA**  
210 neska-mutiko hasiko dira gaur udalekuetan; hilaren 23ra bitartean ibiliko dira ekintzetan > 19

BERGARA > AZPIEGITURAK

## Irailean hasiko dira Martokon 27 bat aparkaleku egiteko lanak

### OBRA

Martoko gaineko mendiari hegala janda egingo dituzte aparkalekuak

### ZIRKULAZIOA

Auzoaren irisgarritasuna eta zirkulazio eragozpenak hobetuko dira

JON BEREZIBAR > BERGARA

Udazkenean ekingo diete Martoko auzoko zirkulazioa erostzea bilatzen duten lanei. Martoko gaina zabalduko dute – egun soroak dauden lekua erabilia – eta errepide alboko mendi-magala jan, aparkalekuei espazioa egiteko. Auzoaren arazoetako bat da aparkatzeko leku falta eta baita ere errepidearen beraren estutasunak eragiten dituen eragozpenak, batez ere, autoak bigarren ilaran utzitakoan. Martoko Zubiaurre auzoak, horrela, beste arnasbide bat irabaziko du, mugikortasuna hobetuta. Auzotarren aspaldiko eskaera eta beharretako bat aseko litzateke horrela.

### UDAZKENERAKO GERTU

Epeez berba eginda, lanak, printzipioz, uztailean adjudikatuko ditu Udalak eta irailean dira astekoak. Obrak berak interbentzio gutxi eskatzen duenez, Agurne Barruso alkateak berak bi-hiru hilabeteko epea aurreikusten du. Lurrak mugitzea eta hegala atzeratzea izango dira lanen zatirik garrantzitsuenak eta, horrela, "obra motza" bezala ikusten du alkateak, "hilabete gutxitan" egitekoa. Hain zuzen, proiektu teknikoa Xabier Yeregui arkitektoak diseinatu du eta Udaleko bulego teknikoan ikusgai dago txostena.

### EZAUGARRIAK

Lanek 91.815 euroko aurrekontua izango dute eta errepidearen



Ortuak dauden orubeetan eta atzeko mendi-hegaleko zati baten egingo dira lanak.

JON BEREZIBAR

alde baten aparkaleku banda bat egingo da, baterian, 27 bat plazarekin. Plazetako bat mugikortasun zailtasunak dituzteneko gordeko da. Obra guztiak ia 1.000 metro koadroko zabalera hartuko du, aparkatzeko gunea bera eta mendi magala

DATUA

# 27

LEKU APARKATZEKO

Baterian aparkatzeko banda bat egingo da eta 27 bat ibilgailuentzako lekua izango du aparkaleku berriak. Leku horietatik bat mugikortasun arazoak dituzteneneko gordeko da.

lari jandako eremua eta berau eusteko erabiliko den lubeta kontuan hartuta.

### LURRAK MUGITZEA

Lanak egingo diren lur horiek gaur egun errepidearekiko bi metro eta erditik gorako altueran daude eta aparkalekuak ere maila horretan egingo dira. Horrenbestez, errepidea eta aparkalekua bereizteko areka bat egingo da eta jasotzen diren urak ere handik bideratuko dira.

Amaitzeko, lurren mugitzei dagokienez, harri-lubeta bat eraikiko da mendi-hegala eusteko eta esan moduan, mendi hegalari berari zati bat janda lortuko da aparkalekuak egiteko espazio gehiago. Aparkatzeko plazak errepidearekin muga egingo dira guztiak lerroan.

AUZOKOEN IRITZIA



Benita Pozo  
Bergara

"Batez ere bazkalorduetan sortzen da hemen arazoa; erotu egiten dira gidariak lekua aurkitzeko. Oso beharrezkoa da aparkalekua. Espalioak zabaltzea ere behar da".



Iñaki Arenatza  
Bergara

"Bakoitzak bere autoa erabili nahi dugunez, parkingak beharrezkoak dira hemen zein leku guztietan. Halaber, Zubiaurren zubia egin beharko litzateke sahiesbidera eta zirkulazioa erraztu".

ELGETA &gt; JAIK

# Herriak herriarendako eginak, jende dezente eta giro polita izan da festetan

Asteburuan eguraldia eskasa izan den arren ez du elgetarren jai gogoia zapuztu

Zapatuko herri bazkaria eta atzoko Ferixa izan dira ekitaldi jendetsuenak

JOKIN BEREZIARTUA > ELGETA

Amaitu dira jaiak Elgetan. Egu-bakoitzean haurrak, gazteak eta erretiratuak izan ziren protagonista. Bazkari bana, eta bakoitzean giro ezberdina: baina guztietan festarako gogoia nagusi.

BERETXINAGAREN ASTOA GARAILE

Zapatuan, berriz, asto lasterketa eta paella-jana izan genituen. Zazpi astok hartu zuten parte eta iaz bezala, Mikel Beretxinagaren astoa izan zen azkarrena. Gero, 500 lagun elkartu ziren pilotalekuan paellaz gozatzeko. Bazkalostean, noski, musika eta dantza izan ziren protagonista. Orditik goizeko ordu txikiak arte, parranda egin zuten elgetarrek.

FERIXAN, KALEAK BETETA

Urtero legez egun handiarekin amaitu ziren jaiak; Ferixarekin, hain zuzen. Kanpoko hainbat pertsona izan ziren Elgetan idi probak, ganadua, nekazaritzarako makinaria eta azoka ikusten. Salzaileen artean, gutxi saldu izanaren sentsazioa gehienek. Krisiak ez du barkatzen.

Bestalde, herriko Athletic zaleez osatutako Intxortako Lehoiak lagunartearen zozketa ere egin zen: 760 izan da zerbaki saritua eta 506 erreserbako zerbakia. Saria Bolatoki tabernan dago.



Atzoko Ferixan jende ugari ibili zen Elgetako kaleetan; denetarik ikusi, dastatu eta erosteko aukera egon zen.

JOSETXO ARANTZABAL

DATUA

# 500

LAGUN HERRI BAZKARIAN

Zapatuko herri bazkarian 500 lagun inguru elkartu ziren pilotalekuan, paella jateko. Bazkalostean, nola ez, musika eta dantza izan ziren protagonista.

# 22

ALDIZ IGO ZUEN ALBIZUK HARRIA

Bi minututan 100 kiloko harria 20 aldiz altxatzea zen Imanol Albizuren desafioa. Bada, harriak 22 aldiz jaso zuen harria.



Idi probetan jende ugari izan zen atzo.

J.A.

ALKATEAREN BALORAZIOA

## "Herri giro polita izan dugu aurten"

"Ondo joan dira jaiak", Oxel Erostarbe alkatearen ustez: "Egueneko mozerro jaiak herri giro polita izan zen; egubakoitzean umeez, erretiratuak eta gaztetxe-koek hartu zuten protagonismoa; zapatuan 500 lagun bildu ginen herri bazkarian, eta gaur [atzo] jende ugari ibili da Ferixan". Iazko jaiekin alderatuz, jende kopurua mantendu egin dela dio alkateak. Ferixara, elgetarrez gain, kanpoko jende dezente etorri zen atzo: "Elgetan aspaldi egin genuen zerbaitetan espezializatzeko apustua eta idiak ekartzen ditugu; jendeak dagoeneko Elgetako Ferixa idiekin lotzen du".

NOLA JOAN DIRA JAIK?



Goio Sarasua

"Ondo joan dira, jende dezente ibili da lau egunetan. Iazko jende kopurua mantendu da. Eguraldia trakets samarra izan da, akaso. Nire ustez ferixa da egun politena; euririk ez du egin, behintzat".



Aintzane Zabala

"Oso gustura ibili naiz jaietan. Hori bai, aurreko urteetan baino jende gutxiago egon dela nabaritu dut. Gozategiren kontzertua nabarmenduko nuke, sekulako gogoak nituen kontzertua ikusteko".



Juan Carlos Sagasta

"Oso ondo joan dira jaiak, parrandarik ez da falta izan. Iaz baino jende gutxiago ibili dela esango nuke, baina giro ona egon da. Eguraldia egokiena izan da; nahiko fresko, bero larregi barik".



Maritxu Goikoetxea

"Ferixara bakarrik etorri naiz, ohitura daukat ia urtero etortzeko. Ubera auzoan bizi naiz eta oso gustuko dut. Ez dut berritasunik topatu baina ez dago beharrik, horrela oso ondo dago".



Xabier Belamendia

"Lehen hiru egunetan ez naiz Elgetan egon, oporrak hartu ditut eta kanpoan ibili naiz. Ferixara bakarrik etorri naiz, eta jende asko dabilela iruditu zait. Krisia, antza, ez da igartzen".

LOS TELARES

LAHORE

ASERPLATA

WOMEN'S SECRET

PACO MARTINEZ

CORTEFIEL

CHARO DUARTE

PIMKIE

EOLO 23

ISKIA

REC

GODO'S

PROMOD

FOOT LOCKER

TRIP COMPLEMENTOS

GOCCO

**BEHERAPENAK**

**- %80raino**

SPORTWELL

CARREFOUR

MERKAL CALZADOS

ZAPARRASTRILLO

BIJOU BRIGITTE

SPRINGFIELD

WANAKA

SAMIRA

ATENEA

GORBEIA

ESKORIATZA 10 minutuan.  
ARRASATE 13 minutuan.  
BERGARA 16 minutuan.  
SORALUZE 21 minutuan.  
EIBAR 23 minutuan.



**GORBEIA**  
gehien aurretzen duzun tokia

Etxabari Ibiña  
IRTEERA  
AP - 1 EIBAR -GORBEIA  
(GASTEIZ)



ARAMAIO &gt; SAN MARTIN JAIKAK

# Aramaioarrek, nekatuta baina umorea soberan, mozorroak prest dituzte gaurko



Herriko baseritarrek jaurti zuten txupinazoa, eta globo erraldoiek zoratzear jarri zituzten Aramaioko umeak.

JOSETXO ARANTZABAL

Motorrak bero daude eta gaurko koadrilako pikeez gain, herri afaria izango da izarra

IKER BARANDIARAN &gt; ARAMAIO

Gustura daude aramaioarrek. Nekatuta, baina gustura. Egubakoitz arratsaldean txupinazoa euriarekin bota behar izan zuten arren, baserritarrak (txupinazoren aurtengo omenduak) hunkituta eta umeak jaurtitako globoekin pozarren egon ziren. Horren ostean, hiru kalejira irten ziren plazatik eta bazter guztiak alaitu zituzten gauera arte.

Papargorriko emanaldiak harrera oso ona; eta Anger, Never Surrender eta Goseren kontzertuek arrakasta erdietsi zuten, adin eta jatorri askotako jendetzak bete zuten eta txosnagunea.



Umeek jolastarekin bat, bertako usadioak ikasi zituzten.

IKER BARANDIARAN



Harri-zulataileek ikuskizun ederra egin zuten.

J. ARANTZABAL

ZAPATUA, UMEEKIN HASI

Biharamuna bixamonarekin hasi zuten herritarrek eta umeek hartu zieten aurrea. Tortilla txapelketa Sara eta Jati gazte txoek irabazi zuten. Ordu berean, Kulkik ekarritako jolas tradizionalekin ume mordo batek jolastu zuten, euri tantei ere bizkarra emanez.

Karta jokoei dagokienez, musean Jabier Uribarren eta Benito Abarrategi txapelkun; eta briskan Mari Arriaran eta Matilde Unda. Eguna bukatzeko, Txirritolinpiada jendetsuak eta Bentazarreko mutiko alaien kantutegi parte-hartzailea.

Domeka harri-zulataileen ikuskizunak eta Leintzeko bertsolari eta saltseroen *Gaur Yogur* ikuskizunak itxi zuten.

Gaur, mozorroen eguna da eta herri afariko txartel guztiak salduta daude. "Mozorrotu barik ez etorri", diozkue, "nabarmen geldituko zarete-eta".

## UDALAREN BALORAZIOA

## Oztopoak oztopo, jende asko hurbildu da

Domeka iluntzean Udaleko Kultura zinegotzi Ainara Inunziagarekin izan ginen balorazioa jasotzeko. Inunziagak nabarmendu zuen: "Bidea itxita 155 egun daramagun arren, uste baino jende gehiago etorri da gurera". Horrez gain, azpimarratu zuen eguraldiak tarteka kalte egin badie ere, jendeak asko parte hartu duela jaietan. Ekintza arrakastatsuen artean, barikuko rock kontzertuak, Bentazarreko Mutiko Alaien emanaldia, Txirritolinpiadak eta kalejirak nabarmendu ditu zinegotziak.

## HERRITARRAK PROTAGONISTA

Iker Elexpuru  
Aramaioarra

"Jaiak ederto doaz, oso ondo pasatzen nabil. Nabarmenezkoak izan ziren egubakoitzeko kontzertuak. Hala ere, ekintza guztietan pasatzen dut nik ondo. Garrantzitsuena da herriko jendearekin une politak konpartitzea".

Alaitz Gabilondo  
Aramaioarra

"Ederto pasatzen nabil. Barikuan kontzertuan egon nintzen eta batez ere Never Surrender taldea gustatu zitzaidan. Txupinazoa ere ederra izan zen, globoak eta guzti jaurti zituzten. Nik jaietan batez ere dantza egiten dut".

Maria Gardoki  
Aramaioarra

"Aurtengo jaiak ere martxa oso onean doaz, oso gustura nago. Guk eguneko plana egin dugu, umeengatik, baina oso ondo. Umeen jokoak oso ondo egon dira, eta Bentazarreko mutilekin ere ederto pasatu dugu".

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
www.mondragon.edu/gep  
e-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu  
Tel: 943 71 21 91

Oñati gestio  
heziketa

www.mondragon.edu/enpresagintza  
e-posta: gestioheziketa@gmail.com  
Tel: 943 71 80 09

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK  
2010-2011

Lanerako gertu!

Matrikulazioa  
Uztailaren 7tik 13arte  
ESKAITZA AKADEMIKOA

MGEP

Oñati Gestio Heziketa

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Industri Ekipoaren Mantenimendua

- Administrazioa eta Finantzak
- Idazkaritza
- Merkataritza Kudeaketa eta Marketing-a





Jose Luis Elkororen irudiaren aurrean dantzatu zuen alkateak aurreakua.

JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA > SAN MARTZIALGO ERROMERIA

## Omenaldiak eta dantza jendetsua jairik kuttunenean

Jose Luis Elkorro eta Zaldumendi baserriko Pedro Ibarguren omendu zituzten domekan

JON BEREZIBAR > BERGARA

Bergararren erromeriarik kuttunenak aitzakia gutxi izan ditu aurtan ere. Goizeko igoeratik iluntzeko jeitsierara arte, festak ez zuen behera egin.

Arreta guztia erakarri zuen unea, ohi bezala, eguerdiko dantzaldi eta aurreakua izan zen. Jose Luis Elkororen irudiaren aurrean Agurne Barruso alkateak aurreakua dantzatu zuen eta gaitzatzeko zinegotziek ere berdinean egin zuten, ostean herritar guztiak erromeriarantz batzeko. Hain zuzen ere, Jose Luis Elkororen aldeko plataformak herritarrei

eskaera egin zien alkate ohiaren aldeko elastikoa eramateko eta askok bete zuten esandakoa.

**JOLASAK ETA HERRI KIROLA**

Omenaldi gehiago ere egon zen. Izan ere, Zaldumendi baserriko Pedro Ibarguren orogarrria jaso zuen alkatearen eskutik, urtetan idi bi hartu eta ardo kupe-la igotzeagatik. Bertsolariekin eta trikitilariarekin erromeria egin eta gero, izerdiak botata, bazkalordua iritsi zen. Arratsaldean jolas eta herri kirolak nagusitu ziren San Martzialen irrintzi txapelketarekin batera.



Eguerdiko dantza emanaldiaren une bat; aurtengo zapia lehen planoan.

J.A.



Jendetza atera zen erromeriarantz eguerdian.

J.A.

ARRASATE > ERROZIOA

## Jendetza eta Andaluziako gutuziak, Arruena parkean

Azken urteotako Erroziarik jendetsuena izan da aurtengoa Al Andalus elkartekoen iritzi

J.B. > BERGARA

"Eroskiko aparkalekura begiratu besterik ez dago, nik inoiz ez dut hain bete ikusi!" zioen pozarren atzo Rafa Gómezek 14 autobus eta auto kopuruari begira, aurtengo Errozio berezian. Berezia, batetik, goizeko lehen orduetatik Arruena jendez lepo egon zelako lehenik –emakume ugari kolorez betetako jantzi tradizional alaiekin, dotore–, eta bigarrenik, Al Andalus elkarteak 20. urteurreneko ospakizunetan buru-belarri dabilelako.

Musika, erlijio eta folklorea bai, baina batez ere dantza eta jan-edana nagusi ditu Arrasateko Errozioak eta atzokoan ere iluntzera arte jardun zuten Ama Birjinaren eguna ospatzen Euskal Herritik eta Santandertik (Espai-

nia) etorritako andaluziarren 16 elkarteren laguntzarekin. "Ezin hobea", horrela laburbildu zuen atzo Gómezek egunaz galde egin da; batez ere, eguraldi txukuna eskertuz.

**SALVE ERROZIEROA**

Errozioan, ezin bestela, Ama Birjinak zeresan berezia du. Jaira joanikoez ez zuten hutsik egin eguerdiko mezako salvean baina iluntze aldean ere ohiturek pisua hartu eta aterpez aterpe eroan zuten irudia elkarte bakoitzak bere txokoan kanta ziezaion. Hain zuzen, elkarte bakoitzak bere aterpetxo egin eta, ohi bezala, aitzakia gutxi izan zuten Andaluziako gutuzia gastronomikoak gerturatu ziren guztiekin konpartitzeko.



Andaluziar usaineko festa bete izan zen Arruena.

JOSETXO ARANTZABAL

GIZARTEA &gt; ZERRAJERAKO ELTXOAK

# Beroa etorri da eta beroarekin Zerrajerako eltxoak bueltatu egin dira

Arrasateko Udalak bigarren errekerimendua egin behar dio Eusko Jaurlaritzari, eltxoen arazoari irtenbidea eman diezaion harik eta obrak egin arte

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Aspertuta daude Txaxeta kaleko bizilagun asko; aspertuta eta higuinduta. Bosgarren atariaren kristala ikusi eta erraza da jabetzea zergatik: eltxoz beteta dago.

Eta jakina, etxebizitza barruetan egoera ez da hobea. Maite da Zerrajerako bizilagunetako bat: "Ezin dugu leihorik zabandu, ezin da arropa kanpoan eseki... bueno, eseki bai, baina esekitzen baduzu, gero astindu egin behar duzu guztia, eltxoak kentzen hasi... higuigarria da!".

BIGARRIN ALDIA

Kontua da, gainera, egoera errepikatu egin dela. "Lehen agerraldia maiatz inguruan izan zen; salaketa eta guzti ipini nuen Udalean, BAZen. Badakit gehiagok ere ipini zutela; okindegikoak, adibidez, joatekoak ziren, haiek ere eltxo



Zerrajera guneko igerilekuak erakartzen ditu eltxoak, argazkiaren goiko aldean agertzen diren modukoak.

U.M.

mordoxka zituzten-eta... Esan zuten deituko zutela erantzunen bat ematen, baina ez zuten deitu. Gero, eguraldi txarra hasi zen, ez zuten berorik egin eta pasa egin zen; baina igerilekua berriro bete da, eta beroa hasi denean..."

Izan ere, Maitek argi ikusten du arazoaren jatorria igerilekua

dela: "Arazoa argi dago nondik datorren. Eta eltxoak ugaritzen badira, batek daki zer gehiago etor daitekeen... Pentsa, igerilekua beteago zegoenean ahateak eta guzti etortzen ziren".

Eta kontua da denbora darabala igerilekua esaten dioten gunek horrek. Azysa enpresak

egin zuen orain urtebete, babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzea daukalako planifikatuta Eusko Jaurlaritzak. Baina urtebeteko atzerapena dauka proiektuak, eta denbora horretan etxeon orube izango den zuloa urez bete, eta gainerakoa naturak egin du.

Jaurlaritzan galdetuta, berriz, aditzera eman dute "joan den astean" hustu zutela igerileku handian pilatutako ura; gero, baina, berriro ere euria egin eta berriro ere pilatu dela ura. Hori horrela "ura etengabe ateratzeko sistema" bilatzeko lanean dabiltzala jakinarazi dute.

OBRAK &gt; KONPONKETAK

## Autobus geralekuetako markesina batzuk konpondu egin dituzte dagoeneko

Guztira, 17 kristal dituzte konpontzeko Arrasaten; batzuk ziklogenesiak apurtu zituen, joan den otsailean

U.M. &gt; ARRASATE

Egunotan hasi dira konpontzen Arrasaten apurtuta zeuden markesinak. Eta ez dira gutxi: 17 kristal dituzte konpontzeko. Batzuk otsailaren amaiera aldeko ziklogenesiak apurtu zituen; Eroski hipermerkatuaren parekoa, adibidez.

Horrez gainera eta herrirantz etorrita, Musakola, Otalora, Gari-bai, San Andres eta Erguingo markesinak konpondu behar dituzte. Zenbait kasutan krista-



Otalora kaleko markesina konpondu dute, han zain egoten diren pozerako. U.M.

lak bakarrik, eta beste zenbait kasutan, kristala eta baita autobusen ordutegiaren panel informatiboak ere.

Konponketak hasita daude eta laster bukatuko dituzte. Errasti Kristaldegia dabil egiten, 4.400 euro pasako aurrekontuarekin.

&gt; ZERBITZUAK

### Gaur, astelehena, Bizkaia etorbideko igogailua itxita dago

Bizkaia etorbideko igogailuan egiten dabiltzan obrak direla-eta, itxi egin dute gaur igogailu publiko hura. Udalaren aurreikuspena da, gainera, egun osorako ixtea. Edozelan ere, egin beharreko lanak lehenago bukatuz gero, igogailua lehenago zabalduko dutela iragarri dute.

Hori bai, baliteke aurrera begira egun gehiagotan ere izatea igogailua ixteko beharra. Obra hasi zutenean aurreikusi zuten hori egin beharra izango zutela, eta dagoeneko planifikatu zuten abuztuko oportunitate ahalik eta gertuen itxiko dutela igogailua, herritarrei ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko.

Bizkaia etorbideko igogailuari solairu bat gehitzen dabiltza, Larragain kalera irits dadin. Horrekin batera oinezkoen pasabidea ere egin behar dute, solairu berri hori kalearekin lotzeko.

&gt; GERTAKARIA

### Lapurreta gehiago igarri dituzte Zerrajerako garajeetan

Lapurrak ibili dira Zerrajerako babes ofizialeko etxebizitzetan garajeetan azken asteotan. "Auto barruetatik lapurtu dituzte gauzak: eguzkitako betaurrekoak, CDak eta, pentsa, baita etxea garbitzeko materiala ere, bertan utzitakoa... Eta badakigu kasu batean, adibidez, auto bat zuzen aparkatuta egonda, beste modu batean agertu zela hurrengo goizean. Egia esan, momentu honetan seguruagoa da automobila garajetik kanpo uztea garaje barruetan baino", adierazi du garaje horien jabeetako batek. Gara-je barrura sartzea errazegia dela ere uste du hark: "Askotan, garajerako atea zabaldua gertatzen da, itxi ezinda".

Izan ere, ez da lehen aldian Zerrajerako garajeetan lapurrak sartzen direna. Eta gainera, bi eraikinetako garajeetan sartu izan dira, bai orain eta baita lehen ere. Beraz, komeni da kontu handiarekin ibiltzea.

AISIALDIA > MUSAKOLAKO IGERILEKUAK

# Eguraldia lagun, jende dezenterekin hasi da denboraldia

Kioskoa Gureak taldekoek hartu dute aurten; goiz eta arratsalde dago zabalik, irailaren 23ra arte

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Aste bukaeran giro ezegonkorra izan dugun arren, joan den astean uda giroa izan zen protagonista. Eta kostaldekoa ez den edozein herrirendako moduan, Arrasaten ez dago uda ulertzetik igerilekuak barik. Ekainaren 14an zabaldu zituzten Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekuak. Bada, uda denboraldia gogor hasi dute Musakolan, kiroldegiko harreraren adierazi dutenez: "Eguraldi ona egin duenez, jende dezente etorri da; iaz ere hala hasi genuen denboraldia".

**BONOAK ESKURATZEKO AUKERA**

Egun baterako sarrera 6'10 euro ordaindu behar dute helduek eta hiru euro 20 urtetik beherakoek.

Baina sarrera merkeago irten dadin bonoak eskura daitezke: uda osorako bonoak, 58'90 euro helduendako eta 35'10 euro gaztetxoendako. Horrez gain, hamar egunetarako bonoak ere badaude: 47'70 euro eta 23,80 euro. Eta azkenik, uda osorako familia bonoa –guraso eta seme alabendako da bakarrik– 92,25 euro ordaindu beharko da.

DATUA

## 6'10

EURO, EGUNEKO SARRERA

Helduendako egun baterako sarrerak 6'10 balio du, eta 20 urtetik beherakoendako, hiru euro. Bestalde, uda osorako bonoa: 58,90 euro helduendako eta 35,10 euro gaztetxoendako.

**KIOSKOA, GUREAK-EN ARDURA**

Aurten Gureak taldeak hartu du kioskoaren ardura. Aukeak kioskoaren zerbitzuari beste buelta bat eman gura izan dio, adibidez, pintxo eta ogitartekoak eskainiz. Gureak-eko Tomas Urzelaik ideia ona dela uste du, baina ez du posible ikusten: "Labe txiki batzuk jartzea pentsatu genuen, baina kioskoa oso txikia da, bertan ezer gutxi egin daiteke. Garaiaio jotzetetik tortilak ekartzeko pentsatu genuen baina ez dugu uste merezi duenik". Hala, urterokoa izango da eskaintza, eta goiz eta arratsalde egongo da zabalik, irailaren 12ra arte.



Eguraldia lagun, jende dezente hurbildu da denboraldi hasieran.

GOIENKARIA

MUSIKA > KONTZERTUA

## Levellers: folkak eta punkak bat egin dute, has dadila festa

Euskal Herrian behin joko dute, 3 aretoan (22:00); aurretik, Bizardunak eta Cool Circus igoko dira

J.B. > ARRASATE

Brighton-etik (Ingalaterra) Arrasatera dator Levellers. Punka eta Ingalaterrako folkak ezin hobeto nahasten duen talde mitikoa izango da gurean. Arrasatekoa Euskal Herrian joko duen kontzertu bakarra izango da, gainera. Egubakoitzean izango da kontzertua, hilak 9, 22:00etatik aurrera. Sarre-rak Etxoste tabernan, Lazkano musika dendan eta [www.kultura-](http://www.kultura-)

[live.com](http://live.com) webgunean eskura daitezke. Aurrez 15 euro balio dute eta 18 euro leihatilan bertan.

**ZERGATIK ARRASATERA BAKARRIK?**

22 urteko ibilbidea atzean utzita, hasieran bezain gogotsu datoz; zuzenekoan ikuskizuna eta festa giroa bermatuta daude. Zergatik datozen Arrasatera bakarrik? Aspalditik datorren kontua da. Izan ere, Jose Uribesalgo musika

zale arrasatearra euren lagun eta jarraitzaile sutua da, eta duela hamar urte inguru hasitako harremana ez dute galdu. Uribesalgotik behin eta berriz eskatu ostean orain datoz. Orain delako une egokiena. Izan ere, zapatuan San Vicente de la Barquerako folk jaialdi baten jo behar dute. Aukera ezin zen alferrik galdu.

**EUSKAL FOLKA ETA ROCK GOGORRA**

Talde protagonistaren aurretik Bizardunak talde nafarraren *Folk radical vasco*-a izango dugu lehen-dabizi. Gau berean Abadiñon jo behar dute eta lehenak izango dira. Bizardunen ostean, Arrasateko Cool Circus-en rock gogorra izango da protagonista, ahots landu batek bustita. Musika zaleak ez du huts egiteko aitzakiarik.



Festa giroa bermatuta dago Levellers-ekin; hilaren 9an izango dira 3 aretoan (22:00), eta azkenak izango dira jotzen.

GOIENKARIA

MERKATARITZA

## Ibai-Arteren kontu jateko aukera uztailean

J.B. > ARRASATE

Ibai Arte elkarteak bazkari eta afariak zozketatuko ditu aurten ere. Iazko arrakasta ikusita, ekimena errepikatzea erabaki dute. Hala, uztailaren 30era arte –hilaren 1ean jarri zen abian ekimena– Ibai-Arte txartelarekin erosketak egiten dituzten bezeroen artean 30 bazkari edo afari zozketatuko dituzte.

**IRABAZLEAK, UNEAN BERTAN**

Irabazleak erosketak egiteko unean bertan jakinaraziko dira eta eurek erreserbatu beharko dute bazkari edo afaria, irailaren 30a baino lehen. Hauek dira jotzetxeak: Hilarion, Santa Ana hotela, Arteaga, Lukas eta Txoko.

UDAIXE

## Asteon, Gamarra, Usako eta Lekeitio

J.B. > ARRASATE

Aurrera doa Udaixe, Txatxilipurdik 12 eta 16 urte artekoek begira uztaileko antolatutako duen ekimena. Joan den astelehenean jarri zen martxan eta oraingoz antolatzaileak pozik daude ekintzek izan duten parte-hartzearekin.

**LEKEITION, PIRAGUAN IBILI**

Asteon hiru ekintza egingo dituzte: gaur Gamarrako igerilekuetara joango dira –bost euro ordaindu behar da–, eguaztenean Usakora egingo dute irteera bizikletan eta azkenik, egubakoitzean Lekeitiora joango dira. Bertan piraguan ibili eta kale antzerkia ikusteko asmoa dute; 15 euro ordaindu behar da.

> TAILERRA

## Postre osasungarriak egiten ikasteko aukera izango da zapatuan

Jesus Romero gozogilearen eskutik gozogintza integrala eta postre osasungarriak egiten ikasteko aukera izango da zapatuan, hilak 10. Egun bateko tailerra izango da: 10:00etatik 11:30era klase teorikoa, 11:30etik 14:30era klase praktikoa eta azkenik, 14:30etik 16:00etara, dastatzea. Prezioa da 50 euro.

> LAPURRETAK

## Zerrajerako garajeetan sartu ziren lapurrak egubakoitzean

Lapurretek ez dute etenik Arrasaten. Azkenaldian asko aregotu dira autoetako aparailu elektrikoak eramateko egiten diren lapurretak. Hala, joan den astean Zerrajerako etxetako garajeetan sartu ziren lapurrak. Bizilagun kaltetuek salaketa jarri zuten eta Udaltzaingoa ikertzen ari da.

GARRAIOA &gt; HERRI BARRUKO URBANOAK

# Urbanoaren erabilera bultzatzeko bonu sistemak erantzun bikaina izan du

Erabiltzaileek aukera daukate 5 euroren truke 10 bidaiako bonua erosteko; Udalak, gehienez, 13.500 euroko kostua hartuko du bere gain urtean

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Urbanoaren erabilera gora egin du azken hilabeteotan, besteak beste, martxan jarritako bonu sistemari esker. Erabiltzaileek aukera daukate 5 euroren truke 10 bidaiako bonua erosteko; bestela, bidaia bakoitzak euro bat balio du. Bonuaren prezioaren erdiaz Udala egiten da kargu, garraio publikoaren erabilera bultzatze aldera, kontuan izanik herrian apartatzeko dauden arazoak. Udalak, gehienez, 27.000 bidaia, hau da, 13.500 euroko kostua hartuko du bere gain urtean zehar. Otsailaren lehen jarri zuten indarrean bonu sistema.

Urbanoaren zerbitzua azpikontratatu dauka Bergarako Udalak eta gaur egun Jose Inazio Sasiain eta Amaia Velez de Mendizabal ari dira zerbitzua



Urbanoa aste barruan 07:00etatik 20:30era eta zapatu goizetan 09:45etik 12:20ak arte ibiltzen da herrian.

IKER BARANDIARAN

eskaintzen. Aste barruan 07:00etan hasten dira lanean, 20:30ak arte, bazkaltzeko ordubeteko atsedendiarekin. Zapatuetan, berriz, goizetan bakarrik ibiltzen da urbanoa, 09:45etik 12:20ak bitartean. Geltokiei dagokienez, ohikoak dira:

Labegarrietan, Zabala jatetxearen parean hasi eta Boni Laskuraineraino, San Martin ikastetxera bitartean, hainbat geraleku ditu. Joanekoan Espolotik eta Zubietatik igarotzen da urbanoa eta itzulerakoan, berriz, Matxiategitik Ibargaraira egiten du. Zen-

bait erabiltzailearen ustez, geltokiak ez daude behar bezain ondo markatuta eta horrek agian ez du errazten urbanoa hartzea.

Herritarrei ez ezik, hainbat enpresari ere zerbitzua ematen dio herri barruko urbanoak. Era berean, San Juango industrialde-

raino ere joaten dira hainbat aldiz, errelebo ezberdinetako langileak eramatera, goizean, eguerdian, arratsaldean eta gauean.

Arduradunak pozik daude bonu sistemak izan duen harrearekin. Urbanoan bertan eskuera daiteke bonua.

KULTURA &gt; MUSIKA

## Jose Agustin Gereñuk emanaldia egingo du egubakoitzean Espoloian

16 urterekin hasi zen baxua jotzen eta hainbat musikari ezagunekin kolaboratu du azken urteotan



Jose Agustin Gereñu.


GOIENKARIA

E.M. &gt; BERGARA

Espoloiko kontzertu zikloaren barruan, Jose Agustin Gereñuren kontzertua izango da egubakoitzean, hilaren 9an, 22:30ean. Espainiako Estatuko baxu jotzaile onenetakoa bilakatu da. 1980ko hamarkadan *La Noche* proiektua partekatu zuen Gere-k Angel Celadarekin, eta hogeitaz gora eman ditu hainbat artistarekin, besteak beste, Ruper Ordorika, Salif Keita, Alejandro Sanz, Luz Casal, Orquesta Mondragon eta bestelako blues eta jazz musikarirekin.

DISKOA ATERA BERRI

*La gran casa* izenburuko diskoa kaleratu du Gere-k Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Adituen arabera, fusio, jazz eta rockaz gain, musika latindarra eta flamenkoa ere antzeman daitezke.



E.M.

## Astaputz ikusgarriak Gorla inguruan

Jose Ignacio (goiko argazkian) eta Koldo Mugurutzua anaiek astaputz handiak batu zituzten martitzenean, San Pedro egunean, Gorla aldean. Handienak sei kilotik gorako pisua eman zuen eta beste biak ere ez dira pieza makalak, ez. Txikiak jateko modukoak direla azaldu zigun Jose Ignaciok. Bi anaiek, edozein modutan, sorpresa galanta hartu zuten horren astaputz handiak topatuta. Kargatuta itzuli ziren etxera, bai...



Carlos Arrondo > San Joxepe elkarteko lehendakaria

# "Bazkideak gehiago inplikatu beharko lirakete elkarteko jardueren antolakuntzan"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Carlos Arrondo ez da geldi egotea gustuko duen horietakoa. San Joxepeko lehendakaria da azkeneko hiru urteetan eta buru-belarri dihardu horretan. Azkeneko bi urteetan aldaketa garrantzitsuak egon dira elkartearen, eta horien gainean egin dugu berba harekin.

## Osasuntsu dago San Joxepe elkarteak?

Ondo gabiltza. 1.680 bazkide inguru gara eta askotariko ekintzak egiten ditugu. Hala ere, esan beharra daukat bazkideak nahiko erosoak direla. Nahi dute ekintzak izatea, baina antolatzen parte-hartzeko prest ez daude. Zuzendaritza berritzeko ere zail izaten dugu.

Osterantzean, badihardugu. Aurten ere hainbat gauza egiten dihardugu: kultura irteerak, mendi bueltak, hitzaldiak, ikastaroak... Bestalde, ile-apaindegi eta podologia zerbitzuak ere baditugu eta yoga, eskulan, margo eta informatika eskolak ere egoten dira.

## Erabilera askotariko gela dagoeneko martxan dago?

Mahaiak eta aulkiak falta ziren, baina hasi dira ailegatzeko. Udala egin da horren kargu. Egubakoitzean 45 aulki ekarri zituzten eta asteon, falta diren aulkiak eta zortzi mahai ekarriko dituzte. Asmoa da gela horretan egitea hitzaldiak, bingoa, yoga, eskulak eta zinema. Dena den, badiara hainbat erabiltzaile, mahaijokoetarako erabili nahi dutenak, eta horretan ez gara ados jartzen. Ni, esaterako, ez nator bat horrekin, taberna badago halakoetarako eta erabilera askotariko gelak beste zerbitzu eman beharko luke.



Carlos Arrondo.

M.B.

## Berrantolaketa horiek guztiak etorri dira, eguneko zentroa handitu egin dutelako.

Bai. Hura handitzeko, zatia kendu digute guri, eta horrek espazio batzuk berrantolatzea ekarri du.

## Duela bi urtetik hona zuek kudeatzen duzue elkarteak. Zer moduz moldatzen zarete?

Ondo moldatzen gara. Duela

## "Erabilera askotariko gela ia antolatuta dago; asteon ekarriko dituzte falta diren altzariak"

## "Urteroko kultura hamabostaldia antolatzeke lanean dihardugu"

bi urte hasi zen San Joxepeko zuzendaritza elkartearen kudeaketaz arduratzen eta hasieran erronka izan zen taberna, podologia eta bestelako zerbitzuak kudeatzea... baina bagabiltza. Hala eta guztiz ere, bazkideen inplikazio handiagoa eskatuko nuke elkarteko jardueren antolakuntzan.

## Garrantzi handia ematen diozu horri.

Bai. Irteerak, hitzaldiak, ikastaroak... antolatzen ditugunean bazkideek bai hartzen dute parte, baina inplikazio handiagoa eskatzean prest daudenak oso gutxi dira. Aurten, esaterako, zuzendaritzako kide bakarra berritu ahal izan dugu. Hiru berritza tokatu arren, bazkide batek baino ez du bere burua aurkeztu eta bakarra aldatu ahal izan dugu. Hala, kargua lagatzea tokatzen zitzaien beste biek jarraitu egin dute.

## Beste gizarte eragile batzuekin ere baduzue harremana.

Bai, Jardunekin badugu harremana eta gazteendako literatura lehiaketa ere antolatzen dugu, kultura hamabostaldiaren barruan. Horrez gain, Mizpirualdera ere joaten gara urtean bi edo hiru aldiz.

## Epe laburrera zeintzuk dira San Joxepe esku artean dituen egitekoak?

Uda sasoiari gaudela-eta, Hondarribira irteera dugu, Donostiako Aste Nagusira suzko erruberrak ikustera eta irailean txangoa Toledo, Avila, Aranjuez... ezagutzera. Bestetik, urteroko kultura hamabostaldia antolatzen dihardugu.

> GAZTEAK

## 11ko futbol txapelketa antolatu dute gaztetxoendako

Gazteria sailak 11ko futbol txapelketa antolatu du 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako. Txapelketa izango da uztailaren 7an, 8an, 9an, 10ean, 12an, 13an eta 14an. Izenematea zabalik dago eta horretarako jo behar da kultura etxera eta han duten izenemate orria bete.

Bestalde, uztailaren 14rako Bidarraira rafting egitera antolatu dute irteerarako izenematea hilaren 7ra arte zabalik dagoela ekarri du gogora Gazteria Sailak. Prezioa da 20 euro eta irteera da DBHko lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailetakoendako. Horrez gain, DBHko lehen eta bigarren mailetakoendako Gorlan kanpaldia antolatu dute hilaren 16rako eta 17rako. Izenematea zabalik dago 8ra arte.

> TEKNOLOGIA

## KZguneko iraileko ikastaroetarako izenematea zabalik

Irailerako 18 ikastaroen berri eman du dagoeneko KZgunek eta izenematea zabalik dago. Hauek dira lehenengo hamabostaldiko ikastaroak: *Internet+e-Administrazioa KZgunea*, irailaren 6tik 17ra, 13tik 24ra eta 20tik urriaren 1era; *Zure iragarkia Interneten*, irailaren 2an; *Gmail*, 2an; *Youtube*, 3an; *Web nabigatzaileak*, 7an; *Picnik*, 8an; *Ubuntu*, 9an; *QuikTime*, 14an; eta *Google itzultzailea eta Eus-kalterm*, 15ean. Informatzeko, 943 76 35 10 edo *tutor.bergara@kzgunea.net*. Bestalde, KZguneko ordutegia da: aste-gunetan, 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

## Altzasun bazkaldu zuten Mizpirualdekoek

Mizpirualde egoitzako nagusiek bazkaria izan zuten aurreko zapatuan Altzasu elkartearen. Altzasuk urtero gonbidatzen ditu. 45 joan ziren eta iritsi bezain pronto salda eta frijituak eman zizkieten; gero paseotxoak egin zuten. Bazkaltzeko legatza, biribilkia saltsan eta postrea jan zuten, eta batzuk, baita purua eta pattarra hartu ere. Bazkaldu eta gero, soinu-jole baten eta mago baten ikuskizuna izan zuten, eta baita Aritzetairen eta San Joxepe abesbatzako bi kideren emanaldia ere. Primeran pasa zuten eta Mizpirualdetik eskerrik beroenak eman nahi dizkiete Altzasukoek.



ZERBITZUAK &gt; UDA KANPAINA

# Egun gehiagotan egongo da soroslea Usakon, irailaren 12ra arte

Uztailaren 15era arte eta irailaren 1etik 12ra arratsaldean emango dute zerbitzua; aldiz, uztailaren 16tik abuztuaren 31ra 12:00etatik 20:00etara

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Ekainaren 25a ezker sorosle zerbitzua dago Usako aisialdigunean, Igeriketa Lantzen enpresaren eskutik. Uda osoan egongo dira

bainu-hartzaileen segurtasuna zaintzen. Aurten, egun gehiagotan egongo dira sorosleak, baina ordutegia murriztu egin dute: egunero ordubete gutxiago.

Oskar Carrascal Kirol teknikariak azaldu dizkigu murrizketaren arrazoiak: "Aurreko urtetan ikusi dugu eguneko ordu zehatz batzuetan jende gutxi ego-

ten zela Usakon. Hori horrela, sorosle zerbitzua ordubete gutxiago ematea erabaki dugu".

KOMUNAK ZABALIK

Igeriketa Lantzen enpresako sorosleek zerbitzua astelehenetik domekara emango dute: hilaren 25era arte eta irailaren 1etik 12ra 15:00etatik 20:00etara; eta hilaren 16tik abuztuaren 31ra 12:00etatik 20:00etara.

Bestalde, Usakoko komunak zabalik daude erabiltzaileendako. Horiek soroslearen zaintzapean egongo dira. Dutzak ere erabilgarri daude.

ENBORRA PRESAN

Usakoko udako kanpaina ekainaren 25ean hasi zuten arren, egun batzuetan bainu hartzea debekatu zuten. Aurreko egunetan egindako euriteen ondorioz, enbor-

handi bat zegoen presa inguruan. Dena den, bainatzeko debekua kendu egin dute. "Ekainaren 27an kendu zuten enborra. Gainera, urpekariak egon ziren erreka garbitzen. Dagoeneko ez dago bainatzeko arazorik", esan digu Carrascal. Usakoko instalazioak erabiltzeko moduan daude.

ALDAGELAK APURTUTA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren agindua betetzeko hainbat egokitzapen lan egin zituen Udalak 2008an. Sorosle zerbitzua jarzteaz gain, iturria, dutzak eta soroslearendako aldagela eta komuna egokitu zituen, bestek beste. Orduko lanak Construcciones Ugarte enpresak egin zituen 66.000 euroren truke. Iaz neguan aldagelak apurtu zituzten, baina aurten ez da aparteko arazorik egon.

## Ikastolan udalekuak ingelesez

Txantxiku ikastolako neska-mutikoei ingelesezko *Enjoy english* udalekuak hasi dituzte. Aurtengoa 13. ekitaldia da, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako 60 ikasleren osatutako lau taldek parte hartuko dute. Programaren helburua ingelesa ikuspegi ludikotik lantzea da. Ingeleseko ikastaro berezi hori eleaniztasun planteamenduen proiektu osagarri gisa aurkezten da, hainbat jardueraz osatuta dagoena eta urte urte berritzen dena.

Hainbat ekintza egingo dituzte, eta udalekuak bukatzeko *Enjoy english show* ikuskizuna egingo dute hilaren 27an, Santa Ana antzokian.



ZIGOR IBARTZABAL

ARRANTZA &gt; DEIALDIA

## Herri mailako arrantza txapelketa hilaren 17an

Torrauzon jokatu dute eta izena hilaren 9a baino lehen eman behar da

M.B. &gt; OÑATI

Herri mailako arrantza txapelketa jokatu dute hilaren 17an, Pago Uso elkarteak eta Alzu ehi-za eta arrantza dendak antolatuta. Dagoeneko zabalik dute izenemate epea, eta doan da.

Parte-hartzaileek federatu txartela eguneratuta izan beharko dute. Federatu txartel-ik ez dutenek egunean bertan

egin ahalko dute: 15 urtetik beherakoek bost euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 15 euro.

SARIAK ETA HAMARRETAOKA

Arrantza txapelketa Arantzazu errekan egingo dute, Torrauzon. 09:00etan hasiko dute eta 12:00etan itxiko dute kontrola. Denbora horretan amuarrain gehien harrapatzen duenak irabaziko du txapelketa. Berdin-ketaren kasuan, amuarrainen pisua hartuko dute kontuan.

Bukaeran, sariak banatu eta hamarretakoa egingo dute Torrauzon bertan.

JAIK &gt; DEIALDIA

## Lehiaketa, San Migeletako egitarauko azala aukeratzeko

Lanak hilaren 11 baino lehen utz daitezke turismo bulegoan edo kultura etxean

M.B. &gt; OÑATI

Udaleko Kultura batzordeak San Migel jaietarako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa deitu du. Proposamenak hilaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira turismo bulegoan edo kultura etxean.

Lehiaketan parte hartu gura dutenek bete beharreko baldintza bakarra da oñatiarra izatea

edo Oñatin bizi izatea. Bestalde, gura duten teknika erabil dezakete lanak egiteko, baina ezinbestean *Oñatiko jaizak 2010* testua jarri beharko dute.

HIRU MAILA

Parte-hartzaileak hiru mailatan banatu dituzte adinaren arabera: haurrak, 10 urtera arte; gaztetxoak, 10etik 14ra; eta nagusiak. Maila bakoitzeko lan onena publikatu egingo du Udalak. Nagusien mailakoa jai egitarauko azala izango da. Gainera, 350 euro jasoko ditu. Haurren eta gaztetxoaren mailak irabazleek oparia jasoko dute.

&gt; ZERBITZUAK

## Udako ordutegia dute bi liburutegietan eta mediatekan

Bi udal liburutegietan udako ordutegia dute azken egunotan. Uztailaren, nagusien liburutegia astelehenetik egubakoitzera zabalduko dute 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Zapatuetan eta abuztuaren itxita egongo da. Bestalde, abuztuaren goizez bakarrik zabalduko dute; hain justu ere, 09:30etik 13:30era.

Haurren liburutegiari dago-kionez, goizez bakarrik zabalduko dute uztailaren: astelehenetik egubakoitzera. 10:00etatik 13:00etara. Uztailaren arratsaldeetan eta abuztuaren itxita egongo da.

Azkenik, mediateka zerbitzua nagusien liburutegian emango dute uztailaren eta abuztuaren.



Patinaje ikastaroko ikasleak neka-neka eginda egunean, Iturrigorri pilotalekuan.

M.A.

## ARETXABALETA > UDAKO KIROL KANPAINA

# Bigarren txandarako multikiroleko taldeak osatu gura dituzte

Hainbat kirol lantzeko aukera izango dute neska-mutikoek -tartean, frontenisa-, eta izenemate epea zabalik dago egubakoitza bitartean

### MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Kirol Zerbitzuek antolatutako udako kirol kanpainaren lehen txanda abian da, eta astebete egin dute. 30 bat neska-mutiko dabilta, hiru taldetan banatuta: patinaje talde bi eta spinningean bakarra. Bigarren txanda hilaren 12an hasiko dute eta izenemate epea zabalik dago egubakoitza bitartean.

### BALIABIDE GUTXI

Asier Muxika Kirol teknikariak onartu du baliabide gutxi izateak eskaintza murriztu duela azken bi urteotan eta kirol etxea gertu izan arte ez daudela aparteko kirol eskaintzarik egiteko moduan: "Pilotalekua, futbol zelaia eta gimnasioa ditugu erabiltzeko moduan, baina horietan ezin dira kirol guztiak egin,

eta, ondorioz, egindako eskaintza ez da aretxabaletarrendako gurako genukeen modukoa".

Datorren astelehenean hasiko duten bigarren txandarako multikirola egingo duen talderen bat osatu guran dabilta. Hainbat kirol egiteko aukera izango dute horiek hamar egunean, tartean frontenisa, bizikleta irteerak, futbola, patinajea, pilota... Horrez gain, kirol bakarreko ikastaroak egiteko aukera ere badago.

Argibide gehiago gura duenak edo izena eman, Zaindutzak gimnasiora jo dezala.

## ESKORIATZA > AISIALDIA

# 210 neska-mutiko hasiko dira gaur udalekuetan

Uztailaren 23a bitartean jolasak, irteerak eta ekintza asko egingo dituzte

### MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Gaur hasi eta hilaren 23a bitartean ondo baino hobeto pasatzeko aukera izango dute 3 eta 12 urte arteko 210 bat eskoriatzarrek. 10:00etan elkartuko dira plazan taldeak osatu eta lanean hasteko eta 23 begirale izango dituzte lagun hiru astetan zehar, zuzendaritzako bi kide-  
ren ardurapean.

### JOLASAK ETA IRTEERAK

Goizez eta arratsaldean elkartuko dira neska-mutikoak (10:00-13:00 eta 15:00-17:00), txikiak izan ezik -goizez bakarrik-, eta ekintza mordoak egingo dituzte. Aurreko urteetako egitarautik aldaketa handirik ez egitea era-

baki dute Gazteria Zerbitzuko kideek eta udalekuen arduradunek, "arrakasta ziurtatuta" dagoela jakinik. Hala, San Fermin eguna izango dute astean, uraren eguna gero, jolasak egingo dituzte eta azken egunean jinkana erraldoia ere bai. Eguraldi onarekin igerilekura joango dira eta txarra eginez gero gaztelekuan edo ludotekan topatuko dute babesak.

Irteerak ere egingo dituzte, oso gustuko dituztelako neska-mutikoek: batetik, elizateetara taldetan banatuta; eta bestetik, Landara joango dira guztiak elkarrekin. Nagusienek, gainera, Alabitarra gaua pasatzera joateko asmoa daukate.

Horrez gain, kultura etxean dagoen sukaldia erabiliko dute. Antolatzaileen esanetan, "bai txikiak, bai gazteak oso gustura jarduten dute" sukalde kontuetan". Hala, ogia eta beste jaki batzuk prestatuko dituzte eta gero bertan jan edo etxera eroan.



Neska-mutikoak udalekuetan iaz.

MIRIAN BITERI

## MERKATARITZA > ARETXARTE

# Ekaineko zenbaki saritua da 21.799, Aitzorrotzen banatua

### M.A. > ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak dagoneko egin du ekaineko zozketa. Saria jaso duen zenbakia da 21.799, Aitzorrotz elektronikoa dendan banatua, eta jasoko duen oparia: Arrikurtz kobak ikusteko bi sarrera eta Zelai Zabal jatetxean bazkaria. Uztailaren 15a bitartean agertu beharko du zenbaki horren jabeak, bestela lehenengo ordezkoko zenbakia duenaren izango da, 23.482, Belar Metan banatua -epea, uztailak 22-. Eta hori ere agertzen ez bada, bigarren ordezkoko zenbakia duenaren izango da, 45.676, Asensio dendan banatua -epea, uztailak 29.

Maiatzeko sariduna oraindik ez da agertu. Dagoeneko bigarren ordezkoko zenbakia duenaren izango da: 17.242, Gertun banatua. Oparia da Kantabriako natura parkeko edo upategi baterako sarrerak.

### ZINEMALDIRAKO SARRERAK

Uztaileko zozketa txartelak banatzen dabilta orain. Saria izango da Donostiako Zinemaldirako bi lagunendako sarrerak eta afaria Donostiako jate-txe batean.

## INTERNET > KZGUNEA

# Goizez dago zabalik uztailean KZgunea eta ikastaro asko eskainiko dituzte

Interneten gaineko ezagutza orokorrak eta administrazioarekin zelan egin lan erakutsiko dute asteen, gaur hasita

### M.A. > ARETXABALETA

Uztail osoan egongo da zabalik Markole auzoan dagoen KZgunea (09:00-13:00). Bertan norberak egin ditzake kontsultak Interneten -16 urtetik gorakoak- eta ikastaroen bitartez ikasi ere bai.

Internet ezagutu gura dutenak edo administrazioarekin zelan egin lan jakiteko bi ikastaro egingo dituzte: gaur hasi eta egubakoitzera eta 19tik 30era (09:00-11:00). Bihar, ostera, Delicious programa zer den erakutsiko dute (11:00-13:00) eta hilaren 20an, sare sozialak zer diren (11:00-13:00).

Gainera, Izenpe txartela eskura daiteke Aretxabaletako bulegoan eta hori erabiltzen erakusten dute aparteko ikastaroa eginda.

Bestalde, IT txartela eskuratzeko azterketak egongo dira uztailean. Argibide gehiagorako KZgunea deitu (943 25 23 51).

## IRIARTE

Umeen denda

Helduen lantzeria



Durana 8

Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA



iazko koadrilen arteko norgehiagokaren irudi bat.

NAIA BAILEZ

ARAMAIO &gt; JAIK

## Koadrilen arteko pikea gaur, astelehena, parkean

Gazte Asanbladak antolatuta, zazpigarren urtez jokatu da koadrilen arteko pikea; goizean umeendako jolasak izango dira parkean, 11:30ean

EDU MENDIBIL &gt; ARAMAIO

San Martin jaietako egunik erakargarrienetakoa izango dute gaur Aramaion. Mozorrotzeko eta herritarren artean primeran pasatzeko eguna izaten da jaietako astelehena.

Gazte Asanbladaren eta gazte lokalekoen eskutik, umeendako jolasak izango dira goizean, 11:30ean hasita. Eguerdian, 13:30ean Hipo eta Tomax pailazoen emanaldia izango da plaza.

Arratsaldean, berriz, Gazte Asanbladak antolatuta, koadrilen arteko pikea izango da. Naia Bailez Gazte Asanbladako kideak esan digunez, aurtengoa pike-

aren 7. ekitaldia izango da. Naia Bailezen hitzetan, "koadrilek arratsaldean bertan jakingo dute zer-nolako probak izango dituzten. Hauxe bakarrik aurrera dezakegu: katxi-toldo proba ez dela faltako gaurko lehian". Joan den urteko pikean herriko zazpi bat koadrila izan ziren lehian, gazte zein nagusienak.

Koadrilen lehiaren ondoren, 19:00etan, Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia izango da kultura etxean eta 21:00etan herri afaria udaletzeko arkupe-tan. Ordurako mozorroak izango dira nagusi. Afalosterako, gauerdirako, DJ emanaldia eta txokolate-jana iragarrita dau-

de. Bestalde, Gazte Asanbladak aurreratu duenez, aurtengo parrandazale onenari Urrezko Gibela saria emango diote. Jaietara hurbildu diren guztiak izan dute botoa emateko aukera, horretarako jarritako hautontzietan.

IKASLEENDAKO LAGUNTZAK

Bestalde, Aramaion erroldatutako Arrasate Musikaleko ikasleek eta langabeek aukera daukate musika ikasketak egiteko dirulaguntzak eskuratzeko. Eskerak uztailaren 16ra arte jasoko dituzte udaletxean. Argibide gehiago bertan, 945 44 50 16 telefono zenbakian.

ANTZUOLA &gt; URTEURRENA

## '50 urte elkarlanean' liburuan Goizper lantegiaren lehena eta oraina jasoko dute

Pedro Iturbe, Oskar Uzkudun eta Pako Legorburu egongo dira aurkezpen hitzaldian eguenean, 18:00etan, Torresoroan

laguntzarekin eguenean aurkeztuko duena. Aurkezpen hitzaldia izango da, Torresoroan, 18:00etan.

Argitalpen berri hori bazkideei, bazkide ohiei eta herritar guztiari aurkeztea da asmoa.

FUNDATZAILEAK

Aurkezpenean parte hartuko dute, besteak beste: Pedro Iturbek, Antzuolako alkateak; Oskar Uzkudunek, Goizperko lehendakariak; eta Pako Legorburuk, Goizperko 11 fundatzaileen izenean.

2009ean Antzuolako Goizper kooperatibak 50. urteurrena ospatu zuen eta horren harira Goizperko lehengo eta oraingo bazkideen elkarlanarekin liburu bat egin dute. *50 urte elkarlanean* da liburuaren izenburua.

OSPAKIZUNAK

Joan den urrian ospatu zuten Goizperkoek 50. urteurrena. Antiguako elizan meza izan ostean Txillida-Lekun izan ziren eta ondoren Donostian bazkaldutan.

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; HERRIA

Lehengo eta oraingo bazkideen laguntzarekin argitaratutako liburua da Goizperrek Udalaren

ELGETA &gt; 2010-2011 IKASTURTEA

## Eskolako umeak oporretan daude irailaren 7ra bitarte

Udako oporrak dira eta itxita dago Elgetako herri eskola, baina hurrengo ikasturteko egutegia erabakita eta jendaurrean dago

LARRAITZ ZEBERIO &gt; ELGETA

Eskolako atean dago ikusgai datorren ikasturteko egutegia. Oporrak hartu berriak dituzte umeek, eta urruti ikusten dute buelta gehienek. Eskolan, baina, gertatu dute egutegia. Eskolak irailaren 7an hasiko dira eta lehenengo aste horretan jardura trinkoa egingo dute; hau da 09:00etatik 13.00etara. Ordu-tegi normalarekin, irailaren 13tik aurrera hasiko dira.

GABONAK ETA ASTE SANTUA

Gabonetako oporrak abenduaren 22an hartuko dituzte eta urtarrilaren 10era arte luzatuko dira. Aste Santukoak, berriz, apirilaren 18tik maiatzaren 2ra bitartean izango dira. Inauteriak martxoko lehenengo aste bukaeran ospatuko ditugu datorren urtean, eta ikasturteko azken eskola eguna ekainaren 23an, eguna, egingo dute eskolako umeek.



Umeak eskolan.

ARTXIBOA

LEINTZ GATZAGA &gt; ENPLEGUA

## Hasi da lanean INEMen bitartez hartutako peoia

Sei hilabete egingo ditu egun erdiz eta mantentze-lanen ardura izango du

hainbat lagunek eman dute izena, eta INEMek eta Udalak elkarrekin egin dute hautaketa; azken hitza Udalak eduki du. INEMek jarritako baldintzen artean zeuden hautagaiak Arrasateko INEMeko bulegoan izena emanda egotea eta langabezian egondako denbora. Udalak, ostera, herrian erroldatuta dagoen begiratu du. Ikasketarik eta aparteko esperientziarik ez diete eskatu hautagaiak, baina bai sasiak garbitzeko makina erabiltzen jakitea eta gidabaimena eta automobila izatea.

MIRARI ALTUBE &gt; LEINTZ GATZAGA

Eguenean, uztailak 1, hasi zen lanean Udalak INEMen laguntzarekin hartu duen peoia. Gatzagarra da eta sei hilabete egingo ditu, urtea bukatu bitartean. Egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, lanpostuak interes handia sortu du; izan ere, maiatzan hamar lagun zeuden lan barik herrian.

HAINBAT IZEN

Uda partean lanak pilatu egingo dira eta, eguraldia lagun, aparteko sasoiak da kanpoan egin beharreko mantentze-lanak egiteko. Hala, peoi lane-tarako lagun bat hartu izan du azken urteotan Gatzagako Udalak INEMen bitartez. Aurten

SASI GARBIKETA LANAK

Atzo jardun erdiz lanean hasitako peoiak ibilbide, parke eta bide bazterren garbiketara eta mantentze-lanak egingo ditu datozen hilabeteotan, Bengoerreketa parkeko eta gatz museo inguruko garbiketara batez ere. Udal ordezkariak beste beharren bat dagoela herrian ikusiz gero, hori ere egingo du.

# Kirola



> **TXIRRINDULARITZA**  
Lizarte etxeko Javier Iriarte nafarra nagusitu da Leintz Gatzagan > 22-23



> **ATLETISMOA**  
Arrasateko atletek ezin partaidetza libreko saioan helburuak bete > 24



> **PILOTA**  
Elezkano II.ak eta Yoldik jantzi dituzte Elgetako lau t'erdiko txapelak > 25



Gizonezkoak izan ziren gehienak, baina emakumezkorik ez zen falta izan.

JOSERTXO ARANTZABAL



Parte hartzaileak 9:00ak aldera irten ziren Aretxabaletako plazatik.

J.A.



Txirrindulariak, ibilaldian parte hartzeko izena ematen.

EKAITZ FILARMENDI

## Lehenengoan 98 parte-hartzaile: Dorletako Ama taldekoak, pozik

### MENDI BIZIKLETA

Debagoienetik zein kanpotik etorri ziren mendi bizikleta zaleak

### ISTRIPU LARRIRIK EZ

Ibilaldian ez zen istripu larririk izan, baina hainbat parte hartzaile galdu egin ziren

**JOKIN BEREZIARTUA > ARETXABALETA**  
Pozik dago Dorletako Ama Txirrindularitza taldea atzoko mendi bizikleta ibilaldiak izan zuen parte hartzearekin. Lehenengoz antolatu dute ibilaldia eta 98 parte hartzaile izan ziren; ez dago batere gaizki. Eguraldia, gainera, ez zen egokiena bizikletan ibiltzeko: euri arriskua eta lehen orduetan behe laino handia.

Txirrindularien artean Debagoienekoak izan ziren gehienak, baina Euskal Herri osoko ordezkariak izan zen Aretxabaletan: besteak beste, Donostia, Gasteiz, Dima, Lasarte eta Etxarri-Arana-

tzeko ziklistek hartu zuten parte. Markel Uriarte ibilaldiaren antolakuntzako kideak jakinarazi duenez, ibilbidea bustita zegoen eta jaitsierak "nahiko arriskuatsuak" izan ziren. Edozelan ere, ez zen istripu larririk izan; parte hartzaile batek min hartu zuen eskuan baina bere kabuz heldu zen helmugara.

Istripu larririk ez baina arazo aipagarri bat bai: txirrindulari asko galdu egin ziren norbait ibilbidea zehazten zuten zintak kendu zituelako. Grazia ederra ziklistendako. Markel Uriarte ibilaldiaren antolakuntzako kideak

honela azaldu du: "Deguria aldean izan dira arazo handienak eta eskerrak ordurako behe lainorik ez zegoela. Gehienak bidegurutzet baten galdu dira".

### IBILALDIA, EZ LASTERKETA

9:00etan hasi zen ibilaldia, Aretxabaletako plazatik. Ez zen lasterketa, martxa baizik. Beraz, ez da irabazlerik eta galtzailerik izan. Helburua mendiko bizikletarekin gozatzea, eta bide batez, Urkulu, Ugastegieta, Alabita, Usakoa-tza, Hiruerreketa, Aitxorrotz eta Lete moduko lekuak ezagutzera zen. Lehenengoak 12:30ak aldera

heldu dira plazara eta azkenak, berriz, ia 15:00etan. Plazan luncha eta oparien banaketa egin zuten, antolatzaileek ibilaldia amaitu aurretik egin zuten-eta zozketa. Bizikletarako tresnak oparitu zituzten, eta zorterik izan ez zutenek martxako kamiseta bat eramane zuten etxera.

### JARRAIPENA EMATEKO ASMOA

Dorletako Ama taldekoek ekimenari jarraipena emateko asmoa dute. Hala, lehenengoan izan diren arazoetatik ikasiz, urteztan mendi bizikleta martxa indartzeko asmoa dute.

ELITE ETA 23 URTEZ AZPIKOAK &gt; XXXII. DORLETAKO AMA LASTERKETA

# Azken maldetan erasoja jota irabazi du Javier Iriarte nafarrak Gatzagan

Aurreko zazpiko taldean Caja Rural eta Naturgas taldeek bina ordezkari izan arren, Lizartekoa izan zen indartsuena amaieran

**JULEN IRIONDO > LEINTZ GATZAGA**  
Atsedetik gabeko 120 kilometro; erasoja erasoaren atzetik; bat harrapatu eta besteak hanka. Amateur mailan ohi den bezala, Dorletako Ama lasterketaren XXXII. edizioa "elektrikoa" izan zen. Ia hiru orduko borroka eta desgastaren ondoren, talde estrategiek buruz-buruko indar neurketek utzi zieten lekua -nahiz eta Caja Ruralek eta Naturgasek abantaila izan-. Galbahea eginda, espero zitekeen legez, Eskoriatzan gora erabaki zen dena.

Irteera hartu eta Leintz Gatzagan behera abiatu orduko hasi ziren aurreneko eraso kolpeak. Arrasatetik aurreneko joan-etorria eginda, Gatzagako lehen igoeran Trasmiera Footon taldeko Javier Sanchezek eta Lizarteko Javier Etxarrik jo zuten aurrera. Gaina harrapatu baino lehen,

Naturgaseko Pello Bilbao gehitu zitzaizen hauei.

Legutiora bidean harrapatu zuten hirukotea, eta 25 laguneko taldetxoa geratu zen lasterketa buruan. Talde garrantzitsu guztiek zuten ordezkari nahikoa zabala; Bidelanek bi txirrindulari zituen, baina talde gipuzkoarrari ez zitzaion ihesaldi hori komeni, eta atzeko tropeltxoan bere gainerako gizon guztiak jarri zituen tiran. Arlaban jaisiterako egin zuten bat bi taldeek.

## BERRIZ ERE SANCHEZ

Arrasateko bigarren joan-etorria eginda, Javier Sanchezek jo zuen berriz aurrera Gatzagan gora. Oraingoan Mojamed Mendez Caja Ruralekoa hartu zuen lagun. Hauei txirrindulari gehiago batu zitzaizkien gainera iristerako, eta beste batzuk beherakoan.

Jaitsieran, ihes-kideei jarraitu ezinda, atzean geratu zen Sanchez, eta zazpikotea geratu zen aurrean: Lizarteko Martin Irai-zoz, Javier Iriarte eta Javier Ruiz; eta Caja Ruraleko Mojamed Mendez, Naturgaseko Mikel Bizkarra, Cueva el Soplako Eloy Carral eta Hirumeteko Egoitz Murgoitio. Lizarteko hiru lagun zirela aprobetxatuz, bata bestearen ostean

jo zituzten erasoak nafarrek, baina emaitzarik lortu gabe. Metro batzuk baino ez zituzten lortzen, eta gehienetan beste txirrindulariren batek jarraituta gainera. Zazpikotea harrapatu egin zuten Arrasateko saihesbidean.

Azken kilometroetan sartuta zegoen lasterketa. Eskoriatzara bitartean eraso ugari egon ziren, baina han sortu zen talde ona, berriz ere zazpi txirrindularik osatutakoa: Caja Ruraleko Igor Romero eta Yelko Gomez; Naturgaseko Pello Bilbao eta Jon Larrinaga; eta Lizarteko Javier Iriarte, Bidelaneko Ugaitz Artola eta Cueva el Soplako Eloy Carral.

Naturgaseko txirrindulariak saiatu ziren euren abantaila aprobetxatzen, baina Javier Iriarte izan zen behin betiko kolpea jo zuena. Leintz Gatzagara bidean, azken maldetan taldetxotik alde eginda, inork ez zion jarraitu eta helmugara bakarrik iritsi zen Zizur Nagusikoa. Bilbao bigarren eta Artola hirugarren, taldetxoko zazpiak sailkatu ziren lehenengo postuetan azkenean.


Hamasei taldetako 121 txirrindularik izena eman, eta 73k amaitu zuten lasterketa. 42,85 kilometro orduko batez bestekoa egin zuen irabazleak.



Talde askori tokatu zitzaizen lasterketako unereren batean lanean jardutea.



Mojamed Mendez, aurrealdean. J.A.



Naturgaseko txirrindulariaren erasoja azken kilometroan.

Javier Iriarte > Irabazlea

## "Besteek aurretik nola igo duten ikusita, banekien aukera nuela"

**J.I. > LEINTZ GATZAGA**  
Zizur Nagusiko 23 urteko mutila gustu-za zegoen irabazita.

Pozik egongo zara garaipenarekin...

Oso pozik nago, bai. Azken lasterketa guztietan hortxe-hortxe ibili naiz, baina irabazi ezinda. Hona ez neukan etortzeko asmorik; eta begira, etorri eta irabazi!

Nola planteatu duzu lasterketa

Gatzagako aurreneko igoera indarrak neurtuz egin dut, burua erabili behar da-eta. Ikusi dut gizon indartsu guztiak ez direla agertu. Amaieran taldetxo onean sartu



J.I.

naiz, eta azken igoeran jendea nola zihoan aztertu dut; ikusi dut indar gehiegi xahutzen ari zirela, nire kontuak atera eta aurrera egin dut.

Bazekien indartsuena zinela?

Horrela uste nuen. Ikusi dut

nirekin zihoazenek aurreko igoerak nola egin dituzten. Gomezek, adibidez, askotan jo du erasoja, eta indar gehiegi xahutu du kontuan izan gabe azken igoera falta zela.

Ze asmo duzu aurrerantzerako?

Orain oporrak ditut; amaiera bikaina izan da beraz.

Javier Sanchez > Mendiko sariaren irabazlea

## "Banekien mendiko sailkapena ez zidatela lehiatuko, eta hala izan da"

**J.I. > LEINTZ GATZAGA**  
Txirrindulari handien sorterreri izan den Salamancako Bejar herrikoa da Javier Sanchez, 19 urteko mutila. 29. izan zen azkenean, irabazlearengandik ia bi minutura.

Zer deritzozu lortutakoari, lasterketa osoan egindako lana kontuan izanda?

Banekien ez zela hau nire lasterketa, ze gainerakoak baino askoz gazteagoa naiz. Banekien mendiko sailkapena ez zidatela lehiatuko, eta horrela izan da. Postu hobe ezin egin, baina ahalegindu egin naiz behintzat.



J.I.

Lehenengo igoeratik ikusi zaitugu aurrean, borroka bizian.

Ondo ikusi dut nire burua. Bigarren igoera apur bat okerrago egin dut, nahiz eta lortu dudana aurreneko izatea tontorrean. Gero, jaitsieran, geratu egin naiz, eta

ezin izan ditut aurrekoak berriro harrapatu.

Gustatu al zaizu ibilbidea?

Bai, polita izan da. Mendatea, azkenerako, nahikoa gogorra egin zait, baina oso polita zen. Amaiera era polita zeukan, harbideko azken tartearrekin.



Herriko kaleetako harbidean majo sufritu behar izan du.



JOSETXO ARANTZABAL

## Dorletako Ama, XXXII. edizioa

### SAILKAPENA

1. J. Iriarte (Liz) 2:48:02
2. Pello Bilbao (Nat) 5era
3. Ugaitz Artola (Bid) 10era
4. Eloy Carral (Sop) 14ra
5. Igor Romero (C.Rur) 17ra
6. Jon Larrinaga (Nat) 19ra
7. Yelko Gomez (C.Rur) 22ra
8. Paul Kneppers (Tel) 37ra
9. Jagoba Arberas (Liz) d.b.
10. A. Riabkin (C.Rur) 41era

### MENDIKO SARIA

1. Javier Sanchez (Tras) 6p
2. Pello Bilbao (Nat) 2p
3. Eloy Carral (Sop) 2p
4. M. Mendez (C.Rur) 1p
5. Javier Etxarri (Liz) 1p

### TALDEKAKO SAILKAPENA

1. Naturgas Energia
2. Caja Rural
3. Lizarte
4. Bidelan-Kiroldgi
5. Trasmiera Footon



roetan.

JULEN IRIONDO



Javier Iriarte, Leintz Gatzagako helmugan bakarrik sartzen.

J.I.



n zuten txirindulariek.

J.I.

Aritz Arberas > Naturgaseko zuzendaria

## "Gehienetan, irabazten duena inteligenteena izaten da"

J.I. > LEINTZ GATZAGA  
Bigarren postua eta taldekako sailkapena lortu zituen amaieran Naturgasek. Zuzendari gus-tura zegoen mutilek egindakoarekin.

Taldekako sailkapena lortu duzue, baina garaipenak ihes egin du...

Baina pozik gaude, lasterketa ona egin dugu-eta. Talde gaztea daukagu, eta saiatu egin gara behintzat. Bagenekien azken maldetara iritsi aurretik jo behar genuela eraso. Bilbao eta Larrinaga sartu ditugu aurreko taldetxoan, eta taldekako sailkapena irabazi dugu behintzat.



J.I.

Aurrez pentsatutako moduan joan al da lasterketa?

Askotan era batera planteatzen duzu, eta beste batera ateratzen da; baina gaur pentsatutako moduan joan da guztia. Baina bai, amateur mailako lasterketak oso eroak izaten dira, eta

gehienetan, irabazten duena inteligenteena izaten da, eta ez indartsuena.

Bilbaorendako moduko lasterketa zen gaurkoa?

Mutil indartsua da, gorantz ondo doana. Sasoi onean dago, eta ondo zetorkion amaiera, bai.

Abantailaz  
betetako kluba!

Goiena  
kluba

## EKAINEKO IRABAZLEAK

Telefonoa: 943 25 05 05  
e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
Kuota: 45 euro



### REALEKO GORRO ETA BUFANDA

Realeko gorro eta bufanda bat.



**Amaia  
Bikuña Mtnez.  
de Zuazo**  
Oñati

IRABAZLEA

### REALEKO MOTXILA

Realeko motxila bat.



**Ines  
Elortza  
Iriarte**  
Bergara

IRABAZLEA

### MUNDUMIRAKO MATERIALA

Mundumirako material sorta.

Mundumira

**Gurutze  
Arizabaleta  
Okina**  
Arrasate

IRABAZLEA

### UMEENTZAKO PUZZLEA

Ikastolen elkarteko umeentzako puzzlea.



**Maria  
Lazkano  
Balanzategi**  
Arrasate

IRABAZLEA

## APIRILA-EKAINA SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATU DA  
GAU BAT TXOPEBENTA  
LANDETXEAN



• Tel.: 94 625 49 23  
629 45 50 79  
• Basetxeta Auzoa,  
Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)  
• [www.nekatur.net/txopebenta](http://www.nekatur.net/txopebenta)  
• [www.toprural.com](http://www.toprural.com)

Maiatzean 20 urte bete genituen;  
Estatuko lehenengoak izan ginen.

**Juan Jose  
Madinabeitia  
Arando**  
Arrasate

IRABAZLEA



Maialen Axpek ondo gainditu zituen 3,71 metrokoa ez beste altuera guztiak.

JOSETXO ARANTZABAL



Jonathan Perez, 4,61 metroko jauziaren bigarren ahaleginean.

JULEN IRIONDO



Jian Chenek 6,16 metrokoa egin zuen jauzirik onena.

JOSETXO ARANTZABAL

PERTIKA ETA LUZERA JAUZIAK &gt; PARTAIDETZA LIBREKO PROBAK

# Arrasateko atletek ezin izan dituzte helburuak bete Mojategiko saioan

Espainiako Txapelketarako gutxiengo markatik urrun geratu dira Perez, Mar eta Chen

Txukun jauzi egin arren ezin izan du bere eta Euskadiko marka ondu Maialen Axpek

JULEN IRIONDO &gt; ARRASATE

Bakoitzak bere helburuarekin jardun zuten atleta arrasatearrek zapatuan etxean jokaturako partaidetza libreko probetan. Pertika jauzian, Espainiako Txapelketa absoluturako gutxiengo

marka egin gura zuten Jonathan Perezek eta Lore Marrek; Maialen Axpek, berriz, bere marka -Euskadikoa ere badena- hobetu nahi zuen. Luzera jauzian, datorren asteburuan Malagan jokatu den jubentil mailako Espainiako Txapelketarako sailkatzeko marka egitea zen Jian Chenen nahia. Batek ere ez zuen helbururik lortu.

Pertikan, 4,91 metroko jauzia egin behar zuen Jonathan Perezek rankinean hamargarren postura jauzi egin -egun hamahirugarrena da- eta bi aste barru Asturiasen jokatu den Espainiako Txapelketarako txartela lortzeko. Marka horretatik urrun geratu zen, ordea, Perez. 4,41ekoa aurreneko ahaleginean gainditu zuen, baina 4,61 metroekin egindako bi saiakeretan eta 4,71rekin egindakoan huts egin zuen.

Marrek ere Asturiasko hitzordurako sailkapena lortzea zuen jokoan zapatuan. Egin beharreko markatik urruti geratu zen, ordea, hau ere: 3,21 metroko jauzia aurrenekoan egin zuen, baina 3,41ekoarekin egindako hiru ahaleginetan ezin izan zuen langa gainditu. Txapelketa absoluturako txartelirik ez zuen lortu, baina asteburuan Malagan jokatu den jubentil mailakoan izango da -lehendik zegoen sailkatuta-.

Mojategiko saioa baino lehen bietarako -jubentil mailakorako eta absoluturako- zuen sailkapena lortua Maialen Axpek. Hone-la, bere eta Euskadiko marka hobetzea zuen zapatutako helburu; eta ez zen urruti ibili. 3,21 metroan hasi eta 3,61eraino ia hutsik egin gabe gainditu zuen langa -soilik 3,41ekoa egin zuen bigarrenean-. 3,70ekoa du marka pertsonala -Euskadiko errekorra-, baina hori hobetzeko 3,71koarekin egindako hiru ahaleginetan ez zuen asmatu.

Dena dela, Espainiako Txapelketan podiumean ikusten du Axpek bere burua, eta are gorago, lehenengo postuan Jonathan Perez entrenatzaileak: "Euskadiko errekorra egin eta Espainiako txapeldun izango da". Lore Mar, berriz, podiumera igotzeko aukerarekin ikusten du. Absolutuan, ostera, Axpe aurreneko zortzietan geratzea izango omen da helburua: "Nik uste lortuko dela", zioen Perezek.


Luzera jauzian 6,40ko markarekin iritsi zen zapatutokora Jian Chen, eta bost zentimetro gehiago behar zituen Espainiakorako sailkatzeko. 6,16ko jauziarekin, helburutik urrun geratu zen. Oihane Urtzelaik ere ez zuen lan onegia egin, 4,85eko jauziarekin.

Jonathan Perez  
Pertika jauzilaria

"Espainiako Txapelketarako sailkatzeko 4,91 metroko jauzia egitea zen nire helburua, baina egun txarra eduki dut. Aurten gaizki ibili naiz; lesio asko eduki ditut belaunetan, baina nahikoa pozik nago, hainbeste min ez dudalako behintzat dagoeneko. Datorren denboraldia ondo hastea da nire asmoa. Berriz ere 5 metro egiteko ilusioa dut; egin dezaket".

Maialen Axpe  
Pertika jauzilaria

"3,70 metroko nire eta Euskadiko marka hobetzeko asmoz etorri naiz. Gustura egin dut salto, eta gutxigatik ez dut lortu helburua. Aire zabalean dena gura moduan atera zait orain arte. Espainiako Txapelketan ikusten dut nire burua podiumean. Ondo ateratzen bazait, ederra izango da. Baina bestela ere, 3,70ekoarekin, bete dut nire aurtengo helburua".

Jian Chen  
Luzera jauzilaria

"Espainiako Txapelketarako gutxiengo marka egitea zen nire nahia, 6,45 metro. Egund txarra eduki dut, eta oso urruti geratu naiz. 6,40ko markarekin etorri naiz; inoiz ez nuen orain arte gutxiengo marka hain gertu izan, eta pena izan da, baina hurrengotan beharko du. Azken bizpahiru txapelketak gaizki atera zaizkit, eta motibazioa falta nuen agian".



PILOTA > ELGETA LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

# Harmailetako ikusmin handiak ez zuen bat egin markagailuko emozio faltarekin

Kadetetan Elezkano II.ak 22-2 menderatu zuen Irribarri; 23 urtez azpikoetan, 22-8 irabaziz Yoldik Larrañagari

an jokatu ziren finalak, Elgetako jaien barruan. Ikusmin handia zegoen; pilotalekua jendez lepo. Baina herritarren interesak ez zuen bat egin partiduen amaieran markagailuak erakusten zuen emozio faltarekin. Kadetetan Elezkano II.a k etsairik ez duela berretsi eta Irribarriren gaineratik pasa zen (22-2).

JOKIN BEREZIARTUA > ELGETA

Elezkano II.a kadetetan eta Yoldi 23 urtez azpikoetan. Horiek dira Elgetako lau t'erdiko txapelketako 34. edizioaren txapelak. Euskal Herri osoko eta Errioxako pilotariek hartu dute parte txapelketan. Egubakoitze-

**BIGARRENA, BORROKATUAGOA**

23 urtez azpiko finala, berriz, markagailuak erakusten duena baino lehiatuagoa izan zen. Yoldik 22-8 menderatu zuen Larrañaga, baina gogoz izerditu behar izan zuen txapela janzteko.



Elgetako pilotalekuko harmailak bete egin ziren Lau t'erdiko txapelketako finalak ikusteko.

JOSETXO ARANTZABAL

GOI MENDIA > NATURGAS BROAD PEAK 2010

## Altuerara egokitze fasea ondo amaitu du espedizioak

Iñurrategi, Vallejo eta Zabalzak hiru aste behar izan dituzte altuerara egokitze; orain oinarritzko kanpalekuan deskantsatu, tontorrei aurre egiteko

J.B. > BERGARA

Ez da erraza izan, baina amaitu da Naturgas Broad Peak 2010 espedizioaren altuerara egokitze fasea. Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo eta Mikel Zabalza oinarritzko kanpalekuan daude orain, deskantsua hartzen.

Hiru aste behar izan dituzte aklimatazio fasea burutzeko eta orain hiru edo lau egunetako

aldeko eguraldi iragarpenaren zain daude Broad Peak mendateko hiru tontorrei aurre egin ahal izateko.

**ELUR SAKONA ETA IZOTZ ASKO**

Esandako moduan, aklimatazio prozesua zaila izan da. Aste bukatuak izan da bereziki konplikatuak; halaxe azaldu du Mikel Zabalzak: "Hasieratik bidea zabaltzea ego-

kitu zaigu eta elur sakona eta izotz asko aurkitu dugu. Gainera, eguraldia ez dugu lagun izan eta hirugarren gunera heldu ginenean -7.200 metrotara- atzera egin behar izan genuen haize bortitza zela-eta, 6.900 metroetaraino".

Hala ere, espero moduan joan da egokitze fasea, Alberto Iñurrategi azaldu duenez: "Hiru aste egin ditugu, hitzartu genuen moduan. Ezinbestekoa zen bi gau mendian pasatzea, horietako bat 7.000 metrora gutxienez. Orain deskantsua hartzea komeni zaigu azken hiru egunak oso biziak izan dira-eta".



Egokitze fasean espedizioak zabaldu behar izan du bidea, zapatuan ateratako argazkiak erakusten duen moduan. BASQUE TEAM

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

## Sailkapenean hirugarren amaitu zuen arren, mailaz igoko da Soralue BKE

Ligako txapelak izan den Egia taldeak uko egin dio igotzeari diru arazoak direla-eta; helburua maila mantentzea izango da mahoneroendako

J.B. > BERGARA

Denboraldi osoan egindako lanak kantzatik kanpo eman du fruitua oraingoan: Soralue BKE Euskadiko txapelketan lehiatuko da datorren denboraldian. Izan ere, ligako txapelak izan zen Egia taldeak uko egin dio igotzeari, diru arazoak direla-eta. Ezin da ahaztu Egia harrobi taldea dela, eta lehen taldeak Lehen Mailara egin duela salto. Hala, bi igoerei aurre egitea garestiegia izan da klubarendako.

Jose txo Muniategi entrenatzaile bergararrak halaxe azaldu du prozesua: "Denboraldia amaitu aurretik zurrumurrua zabaldu zen Egia ezin izango zela igo, eta guk denboraldia amaitu ostean galdetu genien ea zurrumurruek egia ziren.

Baietz esan ziguten eta eurekin jarri ginen harremanetan, akordio batera iritsi arte".

**LEHENTASUNA, MANTENTZEA**

"Ez da amestutako igoera izan, baina jokalaria gogotsu daude eta egindako lanetatik merezi dute mailaz igotzea", dio Muniategik. Hirugarren amaitu zuen taldeak, igoeratik puntu bakarrera. Igoera faseko hamar partiduetan atzean geratu zirenen kontra larregitan berdindu zuten eta hor egon zen gakoa; hala uste du Muniategik.

Orain, lehentasuna maila mantentzea izango da; azken jaitsiera gogoratzeko min egiten du oraindik. Eta, noski, badago igotzeko beste pizgarri bat: bergararren eta arrasatearren arteko derbia izango dugu berriro.

> FRANTZIAKO TOURRA

## Iaz baino kiniela gehiago jaso dituzte Xantini lagunartean eta Lokatza taldearen porretan

Debagoienean Xantini lagunartean eta Lokatza taldeak antolatzen dituzten porrak dira arrakastatsuenak. Xantini lagunartean parte-hartzearen errekorra apurto du beste behin. Oraindik ez dituzte Internet bidez egindako kinielak zenbatu, baina Monte tabernako Juan Carlos Davilak 1.100 kiniela inguru izango direla adierazi du. Iaz 1.062 izan ziren. Lokatza taldearen porran ere gaintu egin da kiniela kopurua: 450 inguru izango dira -iaz 436-, Mikel Gallasategik azaldu duenez. Bestalde, Lizarralde Kirolak-ek antolatzen duen irteerak ez du hutsik egingo: hilaren 20an joango dira bi etapa ikusteko. Iban Velascori, beraz, ez zaio babesik faltako.

# Datuek dena diote.

**GOIENKARIA**

> 30.000 lagunek irakurtzen dute astero Debagoiengan, papereko bigarren irakurriena baino 10.000 irakurle gehiagok.\*  
> Goiengkariak 34.000 irakurle ditu Gipuzkoan.

**GOIENA TELEBISTA**

> 8.000 lagunek ikusten dute egunero Debagoiengan, iaz baino 2.000 lagun gehiagok.\*

**GOIENA.NET**

> 2010eko lehen lau hilabeteetan 218.280 bisita izan ditu; iaz baino 67.077 bisita gehiago denbora-tarte berean. \*\*

## Eta guk gauza bakarra: eskerrik asko.

\*CIEsek 2010eko lehen lau hilekoan egindako neurketa. \*\* Google Analytics-en bidez egindako neurketa.

Mikel Aristi > Lokatza Sumofic

# "Urte ederra da, baina badakit une gogorrak ere etorriko direla"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Mikel Aristi (Bergara, 1993) izan da gazte mailan ezuste handiena eman duen txirrindularia. Kadete mailatik igota, inork gutxik uste zuen aurtentzako lasterketak irabazteko moduan egongo zenik. Orain arte lau irabazi ditu, eta bertan batutako puntuak esker Euskal Herriko torneooko podiumean lehenengo postura igota da.

**Zer sentitzen da podiumeko lehenengo maldara igota?**

Poztasun handia. Urduri ibili nintzen lasterketa aurretik, eta baita lasterketa egunean ere. Lehenengo postuari eusteko aurrean ibili behar nuen lasterketan, eta lortu nuen helburua. Podiumean lasaitasun handia igarri nuen, helburua lortu nuelako, eta Euskal Herriko torneooa irabaztea gauza handia delako. Egia da, baina, lehenengo urtea izanda ez nuela aparteko presiorik.

**Antza, eskertzeko moduko laguntza izan zenuen lasterketa horretan.**

Bai, gipuzkoarren artean ez zegoen trofeoa irabazteko beste hautagairik, eta hainbat ziklista gipuzkoarrek lagundu egin zidaten asko. Gogoan dut, esaterako, Jon Ander Intxaustik (Caja Rural) eta Mikel Iturriak (Andoingo) zelan lagundu zidaten.

Egun hartan, nire taldeko ziklistak izango balira bezala portatu ziren, eta ez zeukaten zertan horrelakorik egin; esker-tzekoa izan zen.

**Euskal Herriko trofeoko lasterketatik haratago, beste proba askotan ere neurria eman duzu; Gipuzkoako Klasiakoan, esaterako.**

Bai, oroitzapen oso ona dut, besteak beste, lasterketa txukuna egin nuelako. Baina gauza berezia izan zen etxean korritzea, eta Espainiako talde indartsuenen aurrean aurrealdean ibili ahal izatea.

**Sumoficen talde polita osatu duzue aurtentzako.**

Bai, talde lehiakorra garelako uste dut, jendea ondo dabil. Baina kategoria hauetan ez da talde moduan horrenbesteko lanik egiten. Hau da, ez gara profesionalen moduan ibiltzen, eta, egia esateko, askoz ere hobeto.

Izan ere, adin hauetan egun osoa taldeko lagun batendako lan egiten ibiltzea ez da gomen-dagarriena, haserre ibiliko ginen denok.

**Taldeko entrenatzaile Iker Sanchezek berba onak baino ez zituen izan taldeari buruz berba egiteko orduan.**

Oso gustura gabilta Ikerrekin, gauza mordoa ikasten.

**Zer ikasi duzu aurtentzako?**

Gauza asko, baina, bat aipatzearen, tropelean behar den moduan joaten. Lehen, tropelean atzetik aurrera joateko indar mordoa gastatzen genuen, alboetatik egiten genuelako aurrera. Indar larregi gastatu barik aurrera egiten ikasi dut, esaterako.

**Zer-nolako txirrindularia zara? Non moldatzen zara ondo?**

Lehen esango nuke errodadorea nintzela, mendateetan gora sufritu egiten nuelako. Baina aurtentzako mendateetan gora ere ondo moldatu naiz, eta aldapa gora amaitzen zen lasterketaren bat ere irabazi dut; hortaz... ez dakit zer erantzun.

**Non nahiko zenuke hobetu?**

Erlojupekoetan, duda barik. Oso diziplina zaila da, denek esaten dute gauza bera. Guk ez ditugu distantzia luzeak egiten, baina ordu erdian topera joatea, erreferentzia barik... ez da bate-re erraza. Gainera, profesional mailan ikusten dugu modalitate oso erabakigarria dela. Esaterako, Tourreko hasierako erlojupekoan maillot horia eskuratzen duenak, seguruenik aste osoa egingo du horiz jantzita.

**Urte bikaina izaten dabil zuretzako. Espero zenuen?**

**"Euskal Herriko trofeoa irabazita lasaitasuna hartu nuen podiumean, poztasun handia"**

**"Kategoria hauetan ez dugu talde moduan horrenbesteko lanik egiten, hobe da horrela"**



Mikel Aristi, egubakoitzean, entrenamendu saio lasaia egitera irten aurretik.

XABIER URTZELAI

Ez, ez. Kadete mailatik salto eginda banekien oso zaila izango zela aurrean ibiltzea. Aldaketa handia da, ziklista nagusiagoak, lasterketa luzeago eta gogorragoak... Alde horretatik, sorpresaz harrapatu nau honek guztiak.

**Urte gogorrak ere izango dira.**

Bai, badakidalako urtero ez naizela horren ondo ibiliko, lesioak, erorikoak... gauza asko dau-

**"Aurtentzako ikasi dut, esaterako, tropelean askorik nekatu barik aurrera egiten"**

**"Armstrong iaz baino indartsuago egongo da, baina ez Contadorri irabazteko beste"**

de. Gainera, ziklista asko gaztetan oso ondo ibiltzen dira, baina gero progresio hori eten egiten da, eta horren beldur ere banaiz. Beno, orduan ere aurrera egin beharko dugu.

**Zer-nolako Tourra aurreikus-ten duzu?**

Armstrong iaz baino indartsuago egongo da, baina ez Contadorri irabazteko beste. Seguru nago horretaz.

IKASKETAK &gt; OPORRAK

# Oporretan, ikasteko ohiturak ez galtzea gomendatzen dute


Udan ikasi beharrean dauden ikasleendako antolakuntza eta planifikazioa ezinbestekoak direla aholkatzen dute adituek

LARRAITZ ZEBERIO &gt; ARRASATE

Iraileko itzulera ez zaie hain gogorra egingo eta ikasturtean landutako gaiak fresko mantentzea ahalbidetuko die. Gainera, irailerako ikasgaiak utzi dituzten ikasleak ere badaude oraindik ere. Rosa Serrate psikologo eta pedagogoa aholkatzen du gazteak lanez gehiegi ez kargatzeko eta laguntzeko egitekoak dituzten ariketekin.

IKASKETAK, GOIZEZ

Eguna ondo antolatzen lagundu behar dute gurasoek. Une ludiakoak, atsedena eta ikasketak... ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako denbora antolaketa



Gaztea ikasten.

MONTI

egin behar da. Adituak azpimarratzen du alderdi horiek guztiek behar dutela euren tartea. Denbora bat igerilekurako edo hondartzarako, beste bat atsedenerako eta hirugarren bat ikasketetarako. Eta beste aholku bat: adituek gomendatzen dute ikasteko denbora goizean hartzeko; kontzentrazioa hobea da. Ego-

kiena da ikasteko tokia bete bera izatea, distrakzioak eta etenaldiak gertatuko ez diren tokia nagusiki. Garrantzitsua da gurasoek interesa agertzea, ez soilik seme-alaben lana kontrolatzeko, baizik eta motibatuzko. Eta asteen zehar bere egitekoak bete badiu, egokia da aste bukaeran ikaslea saritzea.

HEZIKETA &gt; KASKETAK

## Kasketen aurrean kontrola ez galtzea garrantzitsua da

L.Z. &gt; ARRASATE

Kasketak sarritan agertzen dira, batez ere 1 eta 6 urte bitarteko umeengan. Modu egokian tratatu badira, desagertzen joango

dira hurrengo urteetan. Garrantzitsua da helduek kontrola ez galtzea eta haurrari lasaitasunez azaltzea ez dugula men egiteko asmorik.



Ume bat haserre.

EMILDOM 75

EZ MEN EGIN

Ume batek kasketa bat duenean kontrola erabat galtzen du. Ez garrasirik egin; haurra zein helduak urduriago jartzea besterik ez du ekarriko. Haserrea modu argi baina laburrean adierazi behar zaio. Ez dira irainak edo biraoak erabili behar, horrek umea ikarutuko du-eta. Hitz laburrak erabili behar dira; esaterako, "nahikoa da" edo "aski da". Azalpen luzeak baino eraginkorragoak izango dira. Bestetik, garrantzitsua da argi azaltzea ez dugula asmorik eskatutakoari men egiteko. Umeak negar, oihi edo ostikoka egiten badu, argi eta garbi esan behar zaio ez diogula kasurik egingo portaera aldatzen ez duen bitartean. Eta ez barrerik egin kasketa bat edo portaera desegoki bat eteteko, kontrako mezua jasoko du umeak.

Eta ez lotsatu kasketa jendaurrean gertatzen bada. Jakin behar dugu ia ikusle guztiek onartzen dutela egoera eta ez dutela epaitzen. Hori bai, kasketak egoera jakin batzuetan ematen dira, saihesten saiatu umearen arreta distraitzten ahaleginduz.

OSASUNA &gt; HAUR MINBIZIA

## Loturarik ez antenen eta haur minbiziaren artean

L.Z. &gt; ARRASATE

Telefono mugikorren antenen eta haur minbiziaren arteko loturarik ez dagoela diote ikerketa berri baten emaitzek. "Ez dugu aurkitu haurtzaroko minbizia eta haurdunaldian telefono mugikorren antenen esposizioaren arteko asoziaziorik", esan dute ikerlariek.

Sustatu.com atarian irakur daiteke albistea. Imperial College London unibertsitatean egin dute ikerketa hori, eta horre-

tarako, minbizia duten 0-4 urte bitarteko 1.397 umeren kasuak aztertu dituzte, beste 5.588 jaiotakoekin batera.

EZ DUTE LOTURARIK AURKITU

Ikerketa horren arabera, ama haurdunaren etxebizitza antena batetik gertu edo urrun egoteak ez du haur minbizia tasa handitzen edo txikitzen. Gehiago jakin nahi izanez gero, *British Medical Journal* aldizkariak publikatu du ikerketa.

ELIKADURA &gt; SUKALDEAN

## Umeei asko gustatzen zaie sukaldean jardutea

L.Z. &gt; ARRASATE

Elikagaiekin eskulanak egitea, horrela planteatu behar dugu gauza umeekin sukaldean egitea erabakitzen dugunean. Hasieran, pastelak eta galletak egitea izaten da normalena. Asko gustatzen zaizkie, sukaldean egiteko lehenengo nozioak ikasten dituzte, eta, euren egindakoak izanik, normalean atsegin handiz jaten dituzte.

PASTELAK ETA GALLETAK

Errazak dira prestatzeko, eta umeei asko gustatzen zaie formak ematea. Irina, gurina eta azukrea dira osagai nagusiak. Berdin du osagaiak zein ordenatan nahastean ditugun eta kantitateak gutxi gorabeherakoak dira. Apaindu ere egin daitezke eta hori ere asko gustatzen zaie umeei. Errezeta bat baino gehiago aurkituko dituzue gure atarian.



Umeak, sukaldean, galletak prestatzen.

DELAMAZA

&gt; SEGURTASUNA

## Uretan ibiltzeko umeendako aukeratzen ditugun jostailuek segurtasun neurriak bete behar dituzte

Solmar etxeko bi mangito mota salmentatik kendu dituzte; Piolin eta Surf and Sun izeneko modeloak, hain zuzen ere. Ez dituzte bete beharreko segurtasun neurri guztiak betetzen. Agintariak aukera baliatu dute gogora ekartzeko oso garrantzitsua dela uretan ibiltzeko sasoi honetan umeendako aukeratzen ditugun produktuek segurtasun neurri guztiak betetzea. Etiketak produktu horren gaineko xehetasun guztiak jaso behar ditu.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, zatoz gure webgunera




guraso.com



> **KUBAKO DOINUA**  
Arrasate Musikaleko Big Band eta salsa dantza taldearen emanaldia > 30



> **HARDFLIP**  
Bergarako taldeak diskoa aurkeztu zuen Bergarako gaztetxean > 30



> **LEHIAKETA**  
Goienak Udako argazkien lehiaketaren seigarren edizioa antolatu du > 32

## Askapenaren samina abestuz kontatzearen erantzukizuna

### 'ESPOLOIKO OSTIRAL MUSIKALAK'

Katherine Davis blues abeslari estatubatuarrak egin zuen ostiralean lehen emanaldia

### LEZIOA, BIHOTZETIK ETA HISTORIATIK

Blues musikak gordetzen duen saminaren historiaz jardun zuen abeslariak

**JON BEREZIBAR > BERGARA**  
Tristura esan gura du *blues* berbak. Esklabo beltzek askatasuna eskuratu eta euren musikara jo zuten zentzu bila eta blues-ak soilik aurkitu zituzten landaketa itzelen samin-oihartzunean. Hori guztia kontatu zuen Katherine Davis chicagoarrak, bere belaunaldiko blues-jazz aho-tsik nabarmenetakoak Espo- loian udako emanaldiei hasie- ra dotorea emanez.

**ASKAPEN DOINU GOIBELA**  
"Blues musikariak gaizkien ordainduenak eta gutxietsie- nak dira, baina blues musi- kariak asko dakite, bizitza- ren gora-behera guztiak bizi dituztelako, etengabe, bizi- modu petralaren aurrean dira eta esango dizute bizi- tzak pena merezi duela", esal- di borobila hasteko Davisek bota duena. Ma Rainy eta Bessie Smithek abolizio oste- ko hamarkadetan abestuta- ko harrotasun eta kemen horrekin hasten ditu esal- diak Davisek, ahots sendoz eta fedez beterik, Espo- loian, soinu proba aurretik, Madrildik ekarri duen furgoneta zurian, txandalarekin orain- dik eta lainotuta egonda ere, betaurreko ilunak kentzeke. Esklabutza, afroamerika- rren eta gizakiaren arima zigortuaren ondarean jagole denaren jakitun da. Blues-a, doinu goibelak, ahots laz- tuak eta kataien oihartzu- nen zauriak. Historia ukatu zieten esklabo beltzei eta haiek landaketetan abesten zuten. Orain horri ahozko tradizioa deitzen diogu.

Musika debekatu zieten eta behin esklabutza aboli- tu, askatu berriek lan bila hirietako industrietako ipar- rraldera jo zuten, baina hego- aldean geratu zen arima musi-

kal beltza "kendu" zieten horren bila. Hitzek emari tinkoarekin – tonu akademikoan ia – mintza- tzen da bluesaren jatorriaz Davis; azalpen ofizial hotza. Gero, blue- sa bihotzetik esplikatzen zuen; txan- dal gorria soineko ilun distira- tsuarengatik aldatuta eta Espo- loiko kioskora igota.

Blues-aren samin epela ezten- kadaz eztenkada sartu zuen, Espo- loian kopatzarra eskuan parez pare zeuzkan entzuleenda- ko dosi doituarekin. Ze, hasi zen jazzarekin eta bluesik dantzaga- rriekin baina bukaeran pozoi gozoa zabaldu zuen, blues-ik sako- nenekin, entzuleen zainetan hon- darra utzita. Dolu-kantu horiek dira gainera, bihotz-mingarri iza- teaz gain, "bere jendearen" memo- ria historiko bakarra.

### SAMINAREN ERANTZUKIZUNA

*Blues in Schools* programaren sustatzailea ere bada, baina his- toriaz gain, Chicagoko neska- mutikoei lezioa are esanguratsua- goak ematen dizkie: "Musikak boterea ematen dizu" dio sendo; "rapper batek mutiko bat pisto- la eskuan hartzeko konbentzi- tzen badu, guk gazteei esan behar diegu ez dutela musika hori entzun behar". Musikak mundua ulertzeko" balio duela erakutsi gura du guztiok daukagulako "bihotz bat eta burua, guztiok dugulako elkar besarkatzeko beharra". Sententzia amaieran: "Elkar gorroto dugu ze ez dugu elkar ezagutzen". Horixe da Davi- sen mundu-ikuskera "auto berri- rik ala etxe handirik ezin" due- lako erosi, baina mundu guzti- tik bidaiatu dezake eta "mota guztietako jendea ezagutu".

Blues, jazz, sentimendu eta historia saio preziatu baten opa- ria izan zuten egubakoitz gaue- an Espo- loira joandakoek; Chica- goko musikarien artean estima- tuenetakoa den ahots sendo baina sentiberaren bihotz eta burutik zuzen zuzenean.

MUSIKA ETA DANTZA &gt; ARRASATE MUSIKALEKO BIG BAND ETA SALSA DANTZA TALDEA

# Karibea gurera etorri zen gorputz eta arimaz

**NON:** Arrasateko Amaia antzokian.**EGUNA:** Barikua, uztailak 2.**ZENBAT JENDE:** 250 lagun inguru.**IRAUPENA:** Ordu eta laurden.

IKER BARANDIARAN &gt; ARRASATE

Egubakoitz gauean Amaia Udal Antzokia karibeko haizeak hartu zuen zentzu guztietan. Izan ere, bestelako haizeak eta ekaitzak eraginda, Monterronetik Amaia-ra pasa zuten ikuskizuna; eta antzokiak Kubako traza hartu zuen hainbat ordutan.

Arrasateko Musika Eskolako Big Banden kontzertua eta, horrekin batera, Arrasateko salsa dantza taldeko kideen emanaldia iragarrita zeuden; eta hala egin zuten, biek batera.

**MUSIKARI GAZTE ETA PRESTUAK**

Big Bandak 2011n 10 urte beteko ditu eta musikari finak eta talde konpaktua direla erakutsi zuten. Ordu pasatxoko emanaldia Kubako salsan oinarritu zuten. Kantu instrumentalak interpretatu zituzten ia guztiak, son-ak, conga eta beste. Eta luxuzko laguntzaileak izan zituzten; hain zuzen ere, Arrasateko salsa dantza tal-



Musika beroa entzun, dantza saioa ikusi eta dantza egiteko aukera ezinhobea izan zen Amaia Udal Antzokian, egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL

deko kideek bikoteka agertokia hartu eta bertan dantza egin zuten dotorezia handiarekin.

Big Band-a musikari gazte, baina prestuek osatzen dute eta Zigor Martinezek zuzenduta, zur

eta lur uzten ditu entzuleak. Horietatik egubakoitzeko emanaldian norbait nabarmentzekotan, haizezko instrumentuak eta baita hainbat lan egin zituen Bergarako Eber musikaria ere. Kan-

tu baten gitarra elektriko santaneroa jo zuen; beste baten, gitarrak akustiko berezia eta bukaera aldera, son bat abestu zuen.

Dantza taldekoek *Kubako gorpila* dantzatu zuten eurek baka-

rrik eta uneoro igo ziren agertokira dakitena erakustera eta bide batez entzuleak dantza egitera gonbidatzeko. Antzokian ez zuten jendetza dantzan jarri, baina ostean, hall-eko guatekean, bai.

MUSIKA &gt; HARDFLIP, NO HOPE! ETA INTERPRETE DESCONOCIDO

## Aurkezpen jaia, etxean moduan

**NON:** Bergarako gaztetxean.**EGUNA:** Zapatua, uztailak 3.**ZENBAT JENDE:** 50 bat lagun.**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

I.B. &gt; BERGARA

Zapatuko ospakizun eguna izan zen Bergarako Hardflip musika taldekoendako. *Ke kereis?* izeneko diskoa kaleratu berri dute eta hori aurkezteko kontzertua anto-

latu zuten herriko gaztetxean arratsaldean. Eurekin batera jotzeko, gainera, Arrasateko Interprete Desconocido eta Aretxabaleta eta Arrasateko kideak dituen No Hope! gonbidatu zituzten.

Interprete Desconocidok punk-rocka egiten du eta hainbat bertsio eskaini zituzten. Horren ostean, No Hope! taldeak hartu zuen agertokia. Material Rechazadoko Borja tartean dagoela, punkyagoak dira eta kontzertu

gogorragoa egin zuten. Bi talde horiek giroa berotu eta bergararendako lekua prestatu zuten.

**SKATEAREKIKO ZALETASUNA**

Hardflip Bergarako hiru lagunek eta antzuolar batek osatzen dute eta pare bat urte pasa dira taldea sortu zutenetik. Izena skateko jauzi batetik dator; izan ere, taldekideetako bi skatearen zale amorratuak dira.

Gaztetxea da taldearen kokagune naturala eta seguruenik horregatik han bertan grabatu dute diskoa, db uhinak-ekoen laguntzarekin. Taldekideak pozik daude emaitzarekin.

**PUNKA ETA HARDCOREA**

Estilo askotarikoak dira taldekideen gustuak eta hala da euren kantutegia: hardcore melodikoa, hardcore-metal, punk-rocka, ska ukituak, punk azkarragoa eta beste.

Gaztelaraz, euskaraz eta ingelesez abesten dute, "abestiak eskatzen digunaren arabera", eta zaleak alboan izan zituzten, taldearekin batera jaiaren parte izan guran. Are gehiago, kontzertuan egin zituzten No FX eta Wednesday 13 taldeen bertsioek ere oso harrera ona izan zuten; eta akaberan ona eman zioten jaiari.



Gogoz aritu ziren Hardflip taldekoak gaztetxean.

JOSETXO ARANTZABAL



JOKIN BEREZIARTUA

## Sinesgarritasuna eta kantu berriak

Mery May bakarlariak kontzertu oso txukuna egin zuen egubakoitz gauean Gure Leku tabernan. Ordubeteko emanaldian, ohiko kantuez gain, garapen gehiago dituzten kantu berriak eta bertsio ugari (Black Crowes, Neil Young, Lynyrd Skynyrd, Incubus, Su Ta Gar...) interpreta-tu zituen ziurtasun handiarekin Arrasateko musikariak.

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN VI. ARGAZKI LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)



GARIKOITZ ITURBE



ANE JAUREGI



MARTIN URIARTE ASKASIBAR

Har ezazu parte!

## Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren eta irailaren 17a bitartean.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. BERGARA: Ibarra 6 (lehen, Arcelorren bulegoak), 20570. ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta edo Basabe poligonoa E-O-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.

- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn eta *Goiena.net*-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute.
- Epaimahaia argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez balego, GOIENKARIAK aukeraketa egingo luke egokien irizten dituen irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

## Sariak



### 1. saria

**Canon EOS 1000D** argazki kamera digitala eta KB photoestudioak emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa. Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 10 megapixel.
- Canon 18-55 mm f3.5-5.6 EF-S objektiboa.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View sistemarekin
- Flash eta guzti.



**2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaia-en eskutik.

**3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:



Canon

ARRASATE BIDAIAK



GURE AMETSA  
JATETXEA

Goienkaria  
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Goienkaria  
astelehenean, aste bukaera osoa

Goiena.net

Goitb  
Goiena Telebista

ARRASATE  
IRRATIA

GOIENA &gt; LEHIAKETA

# Aurkeztu daitezke dagoeneko udako argazkiak lehiaketara



Kolorez eta naturaz betetako txokoak aurkitu zituzten aretxabaletarrek.

GARIKOITZ ITURBE



Iparraldeko mendi-kostaldean halako paisaia bukolikoak aurki daitezke.

ANE JAUREGI

Erretratuak koloretan edo zuri-beltzean izan daitezke, eta paperean edo digitalean aurkeztu

Reflex argazki kamera digitala, asteburuko egonaldia eta afaria izango dira sariak

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Udako argazkien lehiaketa antolatu du aurten ere Goienak –seigarren edizioa–. Aurrekoetan bezala sari bikainak banatuko dira oraingoan ere: reflex argazki kamera digitala irabazlearendako; Cantabriako hotel batean asteburuko egonaldia bigarrenarendako; eta Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean afaria hirugarrenarendako.

Udako argazkiak izan behar dira, urtekoak edo zaharragoak. Aurkezteko epea zabalik dago, irailaren 17ra arte. Sarituen izenak urriaren 4ko *Asteleheneko Goienkaria*-n argitaratuko dira. Aurkeztutako argazkiak astero agertuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n, uztailaren 12tik irailaren 27ra. Eta paperean ez ezik, [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak) helbidean eta Goiena Telebistan ere ikusi ahal izango dira erretratuak.

Argazkiak inon argitaratu barikoak izan behar dira. Aurkeztu behar dira paperean edo digitalizatuta (paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin), e-postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera bidalita edo Goienaren egoitzaren batera eroanda (Arrasatera, Bergarara edo Aretxabaletara), kartazalean sartuta edo argazki digitalak gordetzeko edozein euskarritan, JPG formatuan. Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.

SARI GEHIGARRIA

Argazkiarekin batera adierazi behar dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren erreferentzia (noiz eta non aterakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren eta harremanetarako telefono zenbakia). Gehienez bost argazki bidali ahal izango dira. Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute. Epaimahaiak argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balore historikoa hartuko ditu kontuan. Jasotzen den argazki kopuruaren arabera, ez dira guztiak argitaratuko; onenak aukeratuko dira.

KB Photoestudiok emango duen aurreneko sariak, sari gehigarri bat ere izango du gainera aurten, ohiko kameraz gain; sari gehigarria izango da KB Photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean parte hartzeko %50eko deskontu bonua.

## Canon kamera digitala, lehenengo saria

Begarako KB Photoestudiok emandakoa izango da udako argazkien lehiaketako lehenengo saria: Canon EOS 1.000 D argazki kamera digitala. Ezagurri hauek ditu kamerak: 10 milioi pixel; 2,5 hazbeteko LSD pantaila; *Live view* sistema; eta Canon 18-55 mm objektiboa.

KB Photoestudioko Bibi Anduezak beste behin erabaki du Goienaren lehiaketa laguntzea: "Argazkilaritza bultzatzeko era bat da, eta baita gure eta herritarren arteko lotura handitzeko ere". Saria eskuratzen duenak jasoko duen kameraz, berriz, hauxe dio Anduezak: "Modu automatikoaz gain, manuala ere badu, eta ikasteko aukera ematen du horrek".

LANDETXEĀ - CASA RURAL  
EGUZKITZĀ



Eibarreko errepidea z/g

Tel. eta faxa: 943 78 90 84 Poltsikokoa: 679 41 66 97  
e-posta: [casaeguzkitza@hotmail.com](mailto:casaeguzkitza@hotmail.com)

ETA ORAIN ZERBITZU BERRIEKIN:  
ZELULAK  
BIRSORTZEKO  
KAPSULA  
ETA MASAJEAK



GURE TALDEAK  
**The Crackers**



Ezkerretik eskuinera, Joxe, Etxabe, Eneko eta Ibai.

Goienkaria

# "Zuzenekoak garrantzitsuak dira gure burua ezagutzera emateko"

The Crackers taldea Aretxabaletako eta Gatzagako lau gaztek osatzen dute; bost kantuko maketa grabatu dute Asier Strummerrekin

Erritmo azkarretan oinarritutako punk-rocka egiten dutela esan digute; eta beste estilo batzuen "ukituak" dituztela ere bai

**MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA**  
The Crackers taldekoek bost kantu (bat instrumentala) dituen maketa grabatu dute Asier Strummerrekin. Grabazioen munduan lehen esperientzia izan da euren dako, baina gustura daude emaitzarekin. Haiekin egin dugu berba.

**Garenari eutsiz izeneko maketa kaleratu duzue. Zer eutsi nahi diozue?**

Taldea sortu genuenetik aldaketa asko izan ditugu. Musika taldea lagunartean kontu bat dela argi utzi nahi izan dugu: lagun barik, ez dago talderik. Orain taldekide garenok hasierako nortasunarekin jarraitu nahi dugu.

**Zer entzungo dute diskoa erosten dutenek?**

Maketa grabatzerakoan ez dugu besteek zer esango ote duten pentsatu. Guregan eragina duten ideia eta pentsamenduak plaza-ratu nahi izan ditugu. Hori kontuan hartuta sortu ditugu bost kantuak.

**Estudioko lehen esperientzia izan da zuendako. Nola gogoratzten duzue?**

Hasiera batean, Asier Strummerrek animatuta sartu ginen grabatzera, eta esperientzia positiboa izan zen. Hori horrela, maketa grabatzea erabaki genuen guk sortutako abestiek. Emaizta ikusita, taldearendako esperientzia ona izan dela esango genuke. Estudiara grabazioa egitera sartu aurretik lan handia egin behar izan dugu.

**Nolako musika egiten duzue?**

Erritmo azkarretan oinarritutako abestiak idatzi ditugu. Punk-rock kutsuko musika da egiten duguna. Dena den, taldekide bakoitzaren influentzia musikalek ere badute eragina.

**Hasieran Never Surrender taldearen bertsioak egiten zenituzten.**

Bai, hala da. Euren kantu bat jotzen genuen erreferente bat zirelako guretzat. Ondoren jakin genuen musika egiten jarraitzen zutela, eta kantu gehiago ez jotzea erabaki genuen.

Never Surrenderrekin batera Iskanbila eta Ramones ditugu gustuko.

**Zergatik sortu zenuten taldea?**

Gure musika sortu nahi genuelako. Hori horrela, garaje baten elkartu eta gure talderik gustukoenen bertsioak egiten hasi ginen. Ondoren, kantu berriak sortu genituen.

**Talde berri batendako zaila da lekua topatzea musika taldeen panoraman?**

Zaila ez. Gure ustez, gogoia beharrezkoa da. Aurrera atera



## Punk-rockaren adarrak probatzen

The Crackers talde berria dugu eta honako hau euren lehenengo lana da. Disko honetan batutako bost kantuetan (bat instrumentala da) euskara, gaztelera eta ingelesa tartekatu dituzte.

Punk-rocka gustuko dutela argi dago, batzuetan azkarra, beste batzuetan melodikoa eta beste batzuetan oi! kutsua daukana. 77ko punka erreferente dutela argi dago, baina baita Piperrak eta 80ko hamarkadako beste talde batzuk ere, melodiak kontuan hartzen baditugu behintzat. Ea ze garapen daukaten!

**Iker Barandiaran.**

gura duzunagatik borrokatzea da gakoa. Guk apustu sendoa egin genuen, eta horretan dihardugu lanean, sendo.

**Nortzuk zarete The Crackers?**

Aretxabaleta eta Gatzagako lau gazte gara. Gure gogoia musika sortu eta jo eta ondo pasatzea da. Guretzako oso inportanteak dira zuzenekoak, gure burua ezagutzera emateko balio digute eta. Zuzeneko bortitzak egiten ditugu, entzule guztiengana heltzeko.

**Non eros daiteke diskoa?**

Aretxabaletan Urbaltz tabernan, Gatzagako Soran Etxea hotelan, Arrasateko Irati tabernan eta Azpeitiko Txarrantxan, eta [www.myspace.com/crackernoise](http://www.myspace.com/crackernoise) webgunean ere eros daiteke. Ondarroan ere eros daiteke.

**Aldaketak izan dituzue taldean?**

Bai, hainbat aldaketa izan ditugu. Hasieran, Julenek taldea utzi zuen, eta Enekok bete zuen haren lekua. Ondoren, taldeko abeslari Joaneseke beste proiektu batzuk onartu zituen, eta Ibai hasi zen baxu-jotzaile eta abeslari moduan.

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Muntzaratzen etxebizitzak salgai. 85 m<sup>2</sup>. 3 logela, harrera, sukaldea-egongela, bainugela bat eta beste komun bat, balkoi handia, garajea eta trasteroa. 94 681 68 91.

**Aramaio.** 92 metro koadroko etxebizitzak salgai erdialdean. 30 metro koadroko ganbararekin. Berritu beharra du. 99.000 euro. Jaione. 615 73 85 77

**Aretxabaleta.** Etxebizitzak salgai erdialdean. 72 metro koadroko erabilgarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trasteleku. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

**Azkoitia.** Kale Nagusian ganbara salgai. Interesatuak deitu 688 60 32 41

**Beasain.** Pisu oso zentriko Beasaingo Andra Mari kalean. La Salle ikastetxea eta dendak metro gutxira. 105 m<sup>2</sup>. 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Berri berri dago, materialak eta eraikuntza kalitate handikoa. Armairu eta altzariek, berogailua, parketa, sukaldeko elektragarri guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. 679 92 90 11

**Durango.** Alde zaharra. 71 m<sup>2</sup>. Kanpoaldea begira. Altzariz hornitua. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskalera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (Elondo), sukaldea (Fagor elektratresnak eta Junkers galdara), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoa, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 229.000 euro. 607 71 53 53

**Durango.** Etxebizitzak salgai Durangon. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzia) trastelekuagaz eta balkoiagaz, eta komuna. Oso eguzkitsua da eta etxe osoak kanpora ematen du. Bi autorentzako garajea aukeran. Prezio onean. 656 76 46 73

**Elgeta.** 85 metro koadroko duplexa salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela beheko

suarekin eta berogailua. Guztiz jantzia. 180.000 euro negoziagarri. Aukera aproposa gazte edo bikotearentzako. Zatozikustera. 685 75 18 91

**Elorrio.** Pisu eguzkitsua, garaje eta trastelekuagaz salgai. Guztiz berriztuta. Bi logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trasteleku. Prezio oso interesgarria. 664 47 58 58 edo 615 73 27 27

**Exbarri Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Exbarri Aranazerdigunean, baina zonalede lasaian. 1. esk. Erabat jantzita. 3 argi, aluminiozko leiho bikoitzak, beheko sua, berokuntza elektriko (gaueko tarifa). Eskalera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trasteleku. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

**Laruns.** Oubisque inguruan. Laruns herrian. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. 5 pertsonendako egokia. 637 41 97 14

**Oñati.** Aukera bikaina. Etxebizitzak salgai olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren pisua. Prezioa: 228.100 euro (38.000.000 pta). Garajea aukeran. 945 22 26 62 edo 615 70 86 04

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitzak salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komun eta bi terraza. 634 43 78 19

**Orio.** Donostiatik 10 minutura A8ko irteera berritik. Etxe eder eta goxoa: 99 metro karratu; sarrera, 2 logela bikoitza eta 32 m<sup>2</sup>ko saloia, dena haritzeko tarima zabalarekin, sukalde handia, bainugela, terratzaxoa eta trasteroa etxean bertan (ikus planoak). Azkeneko solairuan dago eta ganbara handia ere badu (25 m<sup>2</sup>koa) hurrengo pisuan. 330.000 euro. [www.etxeogoxoa.com](http://www.etxeogoxoa.com). 639 20 27 64.

**Tolosa.** Lau logela, bainugela, sukaldea, sala, eta terraza konpartitua. Gela guztiak, bainugela barne leihodunak dira. Etxearen aurrealdean jardina du

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**  
**<http://www.goiena.net/sailkatuak>**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarki bakarririk iragarriko ditugu.  
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**  
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.  
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

eta atzekaldean nahi denarako erabilgarri den terrenoa, gutxira 500m. Oso eguzkitsua. Tolosan bertan kokatua (espunien ondoan). 606 96 64 32.

**Tolosa.** (Voith Gorostidi) Eraikuntza berriko etxebizitzak salgai (75m<sup>2</sup>). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Garajea eskuragarri. Premiario salmenta. 658 72 92 88

**Tolosa.** Tolosako Korreo kalean, egoera onean eta bizitzera sartzeko moduan dagoen pisua salgai. Dena kanpoaldera, PVC II leihoak eta gasa. 179.000 euro. 658 75 21 50.

**Zestoa.** Etxebizitzak salgai Zestoa. 85m<sup>2</sup>, 3 logela, 2 komun, sala handia, sukaldea, trasteroa (13m<sup>2</sup>) eta garaje itxia (18m<sup>2</sup>). Eguzkitsua eta oso egoera onean. Mugikorra: 679 80 91 90 eta 628 06 94 12

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitzak ematen da errentan erdigunean, Biteri plazan. Sukaldea, egongela, komun, hiru logela eta ganbara. 605 43 29 31

**Bergara.** Etxebizitzak ematen da errentan. Hiru logela, sukalde-jangela, egongela eta bainugela. Trastelekuarekin. 699 15 24 00 edo 615 73 87 01

**Bilbo.** Etxebizitzak ematen da errentan Begoña auzoan, ikasleentzako. Metroko sarreratik

200 metrora. Hiru logela, egongela eta jangela. Bi komun. 605 77 55 56

**Cadiz (Conil).** Apartamentua alogagai Conilen uztailan, igerileku eta garajeagaz. Telefonoa: 600 59 65 38

**Cadiz (Conil).** Uztailan Conilen apartamentua alogagai. hondartza parean. 653 73 34 57

**Durango.** Logela alogagai Ibaizabalen. Etxe berria da. Trenea eta autobusa osohurbil dituen. Telefonoa: 652 865 780

**Irurtzun.** 3 logela, bista ederrak eta herri erdian. 600 38 74 00

**Oñati.** Errekalde kalean 3. Solairua errentan ematen da. Etxea hiruro logela, komun, egongela, bi terraza eguzkitsua eta sukalde handi batez dago osaturik, guztiz jantzita. Etxeak igogailua du. 652 76 63 46

**Oñati.** Lope Agirre kalean 110 metro koadroko etxebizitzak ematen da errentan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi komun. 659 53 87 62

**Tolosa.** Etxebizitzak alogagai Tolosan. Sukaldea, egongela, bainugela, 4 logela eta terraza konpartitua. 606 96 64 32

**Torrevieja (Alacant).** Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4 pertsonarendako lekua. Bi logela, terraza, solairu pribatua eta elkarte garajea eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

**Torreviejan** bungalawa alogagai. Hiru logela, sukalde jange-

la eta solairu doka. Urbanizazio pribatua, berdegune eta igerilekuagaz. 615 77 96 22.

**Peñíscola (Valentzia).** Apartamentua alokatzen da Peñíscolan uztaila, abuztuan eta irailean. 686 56 20 18

**Salou (Tarragona).** Apartamentua alogairuan Salou herrian. Igerilekuarekin eta aparkalekuarekin. Ondo hornitua. Telefonoa: 600 38 74 00

### 104. ERRENTAN HARTU

**Altsasu.** Sakanako herri tiki batean etxe bat hartuko genuke alokairuan. Deitu 615 07 20 25 telefono zenbakira eta Raulengatik galdetu edo idatzi mezua bat [eneriz.arriaran@hotmail.com](mailto:eneriz.arriaran@hotmail.com)

**Bergara.** Gela baten bila nabil, errentan hartzeko. 699 66 33 63

**Bergara.** Etxebizitzak hartuko nuke errentan. 609 38 86 47

**Bergara.** Etxebizitzak errentan hartuko nuke Bergaran. 699 09 46 26

**Bergara.** Etxebizitzak hartuko nuke errentan. 450 500 euro ordain dituzket hilean. 699 66 33 63

**Donostia.** Donostian alokatzeko pisu bila gabiltzan bikotea gara. Ahal izanez gero Antigua inguruan. 628 04 15 26

**Donostia.** 26 urteko mutil bat naiz. 2010/2011 ikasturterako pisu edo gela bilari naiz Donostian. Ahal bada informatikako falkultetik hurbil. Pisukide baten bila ibiliz gero, jarri kontaktuan nirekin. Joseba. 668 80 29 66

**Eskoriatza.** Eskoriatzan ikasten dugun 3 neska gara eta hurrengo ikasturterako pisu bat alokatu nahiko genuke. Pisuak 3 logela izan beharko litzuke eta ez litzaziguke inportako etxeak 4 logela izatea eta beste norbaitekin konpartitzea. 635 75 97 10

**Eskoriatza.** HUHEZIKO hiru neska datorren ikasturterako etxebizitzak bila ari gara. 635 20 25 76

**Hernani.** Logela bakarrek pisua edo estudioa errentan hartuko nuke Hernanin, ni bakarrik bizitzeko. 27 urteko neska ardurasua naiz. Harremanetarako: [irati19@hotmail.com](mailto:irati19@hotmail.com) edo deitu 628 33 31 56. Eskerrik asko.

### 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Arrasatearra etxerako kide bila. Erdialdean eta egoera onean. 300 euro, gastuak barne. 606 74 42 37.

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 655 71 77 85 edo 943 79 56 64

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. 619 78 63 41

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 663 72 37 44

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. 630 71 35 83

**Arrasate.** Arrasatearra pisukide bila. Erdialdean eta egoera onean. 300 euro gastuak barne. 606 74 42 37

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** 27 metro koadroko garajea salgai Obenerrekan. Ate automatikoarekin. Bi auto sartzeko aukera. Prezioa aztergai. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Anagatik galdetu. 662 34 77 77.

**Azkoitia.** Azkoitian bi kotxerentzarako garaje itxia salgai. Bizkargi kalean. Interesatuak deitu: 688 60 32 41

**Durango.** Aukera handia. Txibitenan (Jesusitas ikastetxearen ondoan) garaje bat saltzen dugu. Plaza irekia eta oso ona. 660 38 59 95 eta 660 38 60 43

### 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garaje bat alokatzen da Durangon Landako 7 kalean, hilean 40 euro. 94 681 81 51

**Gasteiz.** Garajea alogagai Zaldian Plazan, kotxe txiki baten zatit. 50 euro. 647 26 28 27

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arbizu.** Sakanako autobidearen ondoan roullotak, auto-kerabak gordetzen ditugu erakinetan. Harremanak: 680 54 67 77

**Urretxu.** Pabilioia industriala alokatu edo saltzen da. Urretxuko Mugitegi industrialdean. 200 metro karratuko azalera eta 8 metroko altuera. Prezio onean. Deitu: 657 77 97 52

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Mañaria.** Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko pertsona behar dugu lan egun osorako. Telefonoa: 658 73 21 90.

### 402. ESKAERA

**Abadiño.** Neska euskalduna uztailako goizetan umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat. 645 00 89 13

**Alegia.** Neska euskalduna udan umeak zaintzeko eskaintzen da, Tolosaldean edo Goierri aldean. Esperientziaduna. 618 17 46 36

**Aretxabaleta.** Emakume gaztea atariak eta tabernak garbitzeko gertu. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

**Aretxabaleta.** Emakume gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92

**Arrasate.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 679 04 42 68

**Arrasate.** Etxeak garbitzeko 34 urteko neska brasildarra naiz eta Mari daukat izena. Etxeak garbitzeko prest nago. Ez daukat arazorik ordutegiarekin eta lehenago ere etxeak garbitzen aritu izan naiz. Nagusiak zaintzeko ere prest nago. 688 80 21 29 edo 943 79 51 28

**Arrasate.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 679 04 42 68

**Arrasate.** Gizona pertsona nagusiak zaindu gertu. Orduka edo etxean egoteko prest. 697 54 28 76

**Arrasate.** Umeak zaindu gertu eta txiki klase partikularrak

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaindu gertu. Esperientzia daukat. 618 00 08 28

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plan-txa eta abar. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakume gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketa lanetan jarduteko. 659 37 41 95

**Arrasate.** Tabernako zerbitzari moduan urte askoan ibilitakoa naiz. Herriko jaietan edo aste-bukaeretan lan egiteko nuke Debagioian. Edo. [edortamentid@yahoo.es](mailto:edortamentid@yahoo.es) 617 89 41 03

**Arrasate.** Arrasateko mutil euskalduna gertu basoak garbitzeko: belarra, narrak... Joxe. 653 01 83 43

**Arrasate.** Emakume bat lan desberdinetan aritzeko gertu. 695 75 42 45

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergo bukatu berri, udan umeak zaindu gertu. 634 43 28 87

**Arrasate.** 18 urteko neska, batxilergo bukatu berri, udan umeak zaindu gertu. 678 02 04 36

**Arrasate.** Mutila gertu zerbitzari, garbiketa, iturgin laguntzaile edo peoi lanetan jarduteko. 671 84 71 71

**Arrasate.** Emakume arduratsua, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaindu gertu. 660 13 94 95

**Arrasate.** Emakume arduratsua, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaindu gertu. 646 16 53 87

**Arrasate.** Neska ume zein nagusiak zaindu gertu edo elkartek garbitzeko gertu. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaindu edo etxekolan eta garbiketarako egiteko debagoi-ean. 678 80 11 54

**Arrasate.** Neska gertu elkarte, atari edota tabernak garbitzeko. 699 60 91 90

**Arrasate.** Neska lanerako gertu. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin edota taberna zein jate-ak garbitzeko. 610 12 06 73

**Arrasate.** Sukalde laguntzaile, garbiketa eta abarretan jarduteko gertu. Bi urteko esperientzia sukaldean. Autoa daukat. 666 21 88 95

**Arrasate.** Igeltzari ofizial, leunketa eta bestelako lanetan jardungo nuke. Rolando. 639 41 68 38

**Arrasate** edo Bergara. Ekainean eta uztailan umeak zaindu gertu eta ume txiki eskola partikularrek emateko prest dagoen neska euskalduna naiz. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergo bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeak garbitzeko gertu. 665 72 57 64

**Arrasate.** Bergara edo Arrasate. Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943 53 27 17 edo 616 84 13 07

**Arrasate.** Gizona pertsona nagusiak zaindu gertu. Orduka edo etxean egoteko prest. 697 54 28 76

**Arrasate.** Umeak zaindu gertu eta txiki klase partikularrak



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
[www.inmkorosti.com](http://www.inmkorosti.com)

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### Bergara:

- Martoko 85 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin.
- Bidekurutzeta. 85 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Artekale 60 m<sup>2</sup>. Berritua. 153.258 €.
- Irizar pasealekua 70 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m<sup>2</sup>. Oso ondo
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Osintxu. 70 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 m<sup>2</sup>. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Matxiategi 65 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin.
- Osintxu 64 m<sup>2</sup>. Berritua. 114.192 €.
- Bolu 96 m<sup>2</sup>. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m<sup>2</sup>. 154.761 €.
- Osintxu 62 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubiaurre 52 m<sup>2</sup>. Berritua.

• **Etxebizitzak berrien eraikuntza Martokan, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

• **Artekale.** Logela bat. Berritua.

• **AUKERA.** Etxebizitzak adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.

**PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

#### Antzuola:

- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa eta Ibarre auzoa. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m<sup>2</sup>. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

#### Elgeta:

- San Roke 72 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Roke 80 m<sup>2</sup>. 80 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Berritua.

#### Soraluze:

- Atxuri 49 m<sup>2</sup>. 117.618 €.



DEBA  
GARAI

INMOBILIARIA

Teleforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### BERGARA

- Arrizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Aranerrea, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Matxiategi, 72 m<sup>2</sup>, eguzkitsua.
- Zabalotegi, 54 m<sup>2</sup>, eguzkits

emateko prest nago ekaina eta uztailaren. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

**Arrasate.** Arrasate edo Bergara. Emakumezko batek etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeko garbitze lanak egiteko. Deitu telefonora: 665 72 57 64

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92

**Ataun.** Ataungo emakume eskalduna eskaintzen da sukalde laguntzaile, ume zain edo adineko pertsonak zaintzeko. 943 18 02 53 edo 663 88 85 44

**Azeptia.** Neska bat eskaintzen da partikularrek emateko, umeak zaintzeko edota denda batean lan egiteko. 665 75 68 73

**Azeptia.** 20 urteko neska eskalduna, haurrekin lanean esperientziaduna bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606 42 64 14

**Azeptia.** 18 urteko neska eskaldun bat, haurrak zaintzen espezializatua dagoena, udan goizez haurrak zaintzeko prest dago. 665 71 08 96

**Basain.** Esperientziadun emakumea lan bila nabil etxekoandrea (interna) bezala lan egiteko. Deitu: 680 31 70 95

**Basain.** Adinekoak edo haurrak zaindu nahiz garbiketa lanak egiteko esperientziadun neska lan bila dabil. Erreferentziak onak ditu. Deitu 649 07 31 33

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677 73 79 59

**Bergara.** Emakumea pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu. Geriatria eta elikagaien manipulazioan tituluduna. 650 62 12 94

**Bergara.** Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu goizez eta gauzez. 609 23 39 52

**Bergara.** Lan bila dabilen emakumea naiz: pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 695 75 42 45

**Bergara.** Ohitura oneko gizona naiz, eta lan bila nabil: pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 697 54 22 45

**Bergara.** Ekainean eta uztailaren eskolako partikularrek emango nituzke, lehen hezkuntzatik batxilergora arte. 671 41 22 17

**Bergara.** PAPERAK dituen emakumea pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 606 64 16 09

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 28 12 edo 943 76 29 52

**Bergara.** Neska hainbat lan egiteko emateko gertu: nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanak egin. Esperientzia dut eta erreferentziak onak ditu. 677 73 79 59

**Bergara.** Emakumea gertu haurrak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 610 34 97 88

**Bergara.** Neska eskalduna uztailaren umeak zaintzeko prest. 615 76 29 25

**Berriz.** Andre eskalduna hiru edo lau orduan umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko prest. Telefonoa: 94 622 57 24 edo 680 50 95 32 (Izaskun)

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten. 650 23 34 98

**Debagoiena.** Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko nituzke. 606 72 28 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. 649 71 95 21

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuak zaintzeko edo atariengarriketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko. Deitu telefonora: 666 08 58 49

**Debagoiena.** Gaztea gertu erakuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu telefonora: 696 48 42 50

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu telefonora: 689 93 58 41

**Debagoiena.** Gaztea gertu erakuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu telefonora: 696 48 42 50

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu telefonora: 689 27 94 21

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbiketa lana edo jabetzetan lan egiteko. 600 24 58 27

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaindu edo zerbitzari lanetan jarduteko. Orduak ematen ditu. Deitu telefonora: 646 07 79 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko eta astebukeretan lan egiteko gertu. 699 60 91 90

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko gertu emakumea. 649 72 00 23

**Debagoiena.** Neska eskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetan, 13:00etatik aurrera libre nago. 618 09 47 87 edo 943 78 15 10

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. 650 67 16 47

**Debagoiena.** Esperientziadun neska umeak zaindu, nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izatean. 689 88 97 66

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko. Hilean 250 euro. Deitu 14:00etatik 15:00etara edo 17:00etatik 19:00etara. Deitu telefonora: 943 53 29 18

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Etxeko lanak zein garbiketarako egiteko nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Maria Mercedes. Deitu 680 60 18 24 telefonora.

**Donostia.** 22 urte ditut eta lan bila nabil Donostian, uztailera-ko eta abuzturako. Haurrak zaindu, klase partikularrek eman, edota ostalaritza. [udakolana@gmail.com](mailto:udakolana@gmail.com)

**Donostia.** Neska eskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko, irailetik aurrera, goizez ere bai. Baita etxeko lanak egiteko ere. 665 71 99 93. Ane.

**Durango.** Durangaldeko andrea umeak eta edadetuak zaintzeko prest. Zaintza orduka ere izan daiteke, edo laguntzaile moduan etxe zein ospitalean. Bestalde, taberna edo bulegoetan ere garbitzeko prest. Telefonoa: 649 13 53 81

**Durango.** 51 urteko emakume eskalduna ospitalean dauden gaixoak zaintzeko prest. 661 17 21 05

**Durango.** Pertsona edadetuak bazara, bakarrik sentitzen bazara eta ez baduzu inor zaindu zaitzan, deitu izaizaduz. Deitu 649 13 53 81 telefonora.

**Durango.** Gizon heldu bat adineko pertsonak zaintzeko prest dago, asteburuetan, jaiegunean eta abuztuan hilabete osoan. Telefonoa: 690 28 60 71

**Eibar.** Neska eskalduna eskaintzen da uztailaren umeak zaintzeko. Baita etxeko lanak egiteko ere. Eibar edo inguruetan. 618 81 40 64. Ainhoa.

**Elorio.** Neska eskalduna abuztuan haurrak zaintzeko eta partikularrek emateko prest dago. Nirekin kontaktuan jartzeko, 600 36 13 81 telefonora deitu.

**Gasteiz edo Iruñea.** Tabernako barran esperientzia duen gazte bat naiz, gazteizko festetan kamarero bezala lan egiteko nuke. 688 63 84 18

**Oñati.** Umeak zaintzen ditut uztailaren; esperientzia handia. Neska eskalduna naiz, ikaslea. 651 70 85 13

**Oñati.** Neska eskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635 70 07 92

**Oñati.** Neska gaztea umeak zaintzeko edo denda laguntzaile modura edo tabernan lan egiteko prest, uztailaren 1etik aurrera. 677 37 04 81

**Tolosa.** Tolosako bi neska gara, ikasleak eta arduratsua. Udan haurrak zaintzeko prest gaude, uztailaren edo abuztuan eta goizez edo arratsaldez. 21 urte eta esperientziarekin. 675 71 55 97

**Tolosa.** 29 urteko neska lan bila dabil, ume zaintzen, etxeko garbitzen, tabernan... Denetan esperientzia daukat. Interesatuak deitu 635 70 22 50 telefonora

**Tolosa.** Udan umeak zaintzeko prest egongo nintzateke. Esperientzia dun neska eskaldun bat naiz. 680 34 23 58

**Uztailaren umeak zaintzea gozetan.** Neska eskalduna uztail osoan goizez haurrak zaintzeko prest. Durango bizi badira hobeto. 646 53 83 90

**Zarautz.** Gizon eskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako; jardinerako, mahastieta eta abar. 658 73 08 08

**Zaldibar.** Neska eskalduna uztailaren eta irailaren jarraitze-ko aukerarekin umeak zaintzeko edota partikularrek emateko eskaintzen da, lehenengo hezkuntzatik DBHra arte; 3 urteko esperientzia daukat. 610 00 44 43.

**5/ IRAKASKUNTZA**

**501. JASO**

**Bergara.** DBHko 3. mailako mutikoak eskola partikularrek hartuko nituzke udan. Deitu ondoko telefonora 21:00etatik 22:00etara. 943 76 03 75

**Bergara.** DBHko eskolak jasoko nituzke. (18:00etatik aurrera deitu) 605 26 24 62

**502. EMAN**

**Aretxabaleta.** Bigarren batxilergoainko eskolak ematen dira, udan eta ikasturtean zehar. 653 01 76 67

**Arrasate.** Esperientziadun sukaldaria zure etxean bertan jantzeria prestatzen irakasteko gertu. 650 40 29 69

**Arrasate.** Neska eskaldun esperientziaduna prest ekainaren 3tik uztailaren 31ra arte 2. batxilergora arteko eskola partikularrek emateko. Joana. 669 20 63 21

**Arrasate.** Debagoienan 21 urteko neska eskaldun eta ingeniariartzako ikaslea uztailaren klase partikularrek emateko prest. Deitu: 686 28 76 80

**Arrasate.** Ingeniaritzako ikaslea gertu eskola partikularrek emateko. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haurrei. 943 76 50 97 edo 678 47 43 54

**Arrasate.** 612 urte tarteko umei eskola partikularrek emateko prest. Eskoletan esperientzia daukat. 635 75 05 26

**Arrasate.** Ingenieri teknikoan udan klase partikularrek emateko prest. DBHn eta batxilergoan esperientzia. 685 70 17 09

**Azeptia.** Euskarako klase partikularrek ematen ditut: EGA edo hizkuntza eskakizunak, euskara maila idatzi edo ahokoa hobetu, eskolan euskara ikasgaia gaituzteko, eta abar. Majistri-za daukat eta eskaltingo irakaslea naiz. Gipuzkoa osoan mugitzeko prest. Kontaktua, Mikel. 645 71 85 78

**Bergara.** Ingenieri teknikoan udan klase partikularrek emateko prest. DBHn eta batxilergoan esperientzia. 685 70 17 09

**Bergara.** Marraketa eta pintura eskolak ematen dira uztaila-ko 1. hamabostaldian, 10:00-12:00. Arrizuri 5, 1. A 651 74 21 54

**Bilbo.** Euskarako klaseak ematen ditut errefortzo eta gaia errepikatuzko. Lehen Hezkuntza DBHn eta batxilergoan baita EGArako prestakuntza ere, eta mintzapraktika. Telefonoa: 606 25 05 84. Bilbon uda osoan goizez zein arratsaldez

**Donostia.** Ingles irakasle tituluduna: klase partikularrek edota taldekoak emango nituzke, erreperaketak, mintza praktika, berrikusketa... Ikaslearen beharrik asetzeko plangintza personalizatua (maila, materiala eta ordutegia). Harremantetan jartzeko deitu 943 47 20 29

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle eskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangoan emateko prest. Esperientziadun matematika klaseetan. Telefonoa: 635 74 61 76

**Durango.** Udan errefortzu klaseak emateko prest nago. 3 urteko esperientzia daukat, 22 urte ditut eta magisteritza amaituta daukat. Klaseak euskaraz edo gaztelaz ematen ditut, eta ikasgai guztiakoa. Interesa baduzu deitu 615 73 53 85 telefonora.

**Durango.** Ingeniaritza ikasten ari den neska eskalduna udan klase partikularrek emateko prest durangoan. LH, DBH eta batxilergoko ikasleei zuzendutako ondorengo gaien inguruan: matematikak, fisika kimika, euskaraz, gaztelaz, ingelesez, eta abar. Telefonoa: 635 20 50 12.

**Ondarroa.** Uztailaren ingelesez ikasteko aukera Ondarroan. Uztailaren, goizetan, ingeles pixkat ikasteko edo hobetzeko aukera Ondarroan, Kale Handi 4an. Baita ingeleza arabieraren truke ere. Agertu edo deitu: 677 67 16 37. Txaro.

**Oñati.** Esperientziadun irakaslea naz eta eskola partikularrek ematen ditut. 666 21 73 48

**Oñati.** Esperientziadun irakasleak LH, DBH eta batxilergoko eskola partikularrek ematen ditu udan eta ikasturtean zehar. Irakaslearen edo ikaslearen etxean. 649 27 63 50 edo 943 53 28 15

**Ormaiztegui.** Lehen eta bigarren hezkuntzarako errefortzu klaseak ematen dira ormaiztegin ekainean eta uztailaren. 696 59 78 78

**Usurbil.** Euskal Filologian lizentziatua naiz eta irakaslea. Klase partikularrek ematen ditut. Maila guztiak. 635 75 25 67

**Villabona.** Ingelesko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeko edo bakar. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. 664 16 02 68 eta [continental56@hotmail.com](mailto:continental56@hotmail.com)

**Zarautz.** Euskal Filologian lizentziatua den Urola Kostako neska batek udan lanean aritu nahiko luke: klase partikularrek, umeak zaindu... Hiru urteko esperientzia irakaskuntza arautuan. Interesaturik egonez gero, deitu 664 22 58 49 zenbakira.

**6/ MOTORRA**

**601. SALDU**

**Autoa salgai.** Seat Ibiza autoa salgai. 2000. urtekoa, diesel. 5 ate, aire girotua. Egoera oso onean. 2.000 euro. Deitu: 650 40 28 57

**Elbarrituentzat egokitutako Fiat Ulysse furgoneta salgai.** Fiat Ulysse furgoneta saltzen ditut, elbarrituentzat egokituta. Atzeko kajoia, ispilu elektrikoak, ABSa, kristal elektrikoak, lainoaren aurkako argiak, ITVa eguneratuta 2012ra arte, GPSa, mp3, irrateria, cd a, klimatizagailua. Egoera onean dago. Prezio interesgarria. Telefonoa: 657 79 80 38.

**Furgona salgai.** Wolsvagen Transporter 2.500 TDI 130 zaldi. 122.500 km 16.000 euro. Matrikulazioa: 06/12/29. Leihotintatuak, aluminiozko llantak, parrotta, ohea (1,35m x 2m), sukaldea eta abar. Kontaktua: [beizagirre@yahoo.es](mailto:beizagirre@yahoo.es)

**Furgoneta salgai.** Renault Trafic 150 zaldiko furgoneta salgai. 2008. urtekoa, berri berri dago, 12.000 km ditu eginda. Prezioa: 18.000 euro, baina negoziatu daiteke. 635 20 69 03

**SALBIDE**  
Higiezin zerbitzuak

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz  
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96  
[www.inmosalvide.com](http://www.inmosalvide.com)

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. 10 metro koadroko trastelekuarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** AUKERA ONA. Etxebizitza eraiki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. Logela bateko etxe handia. Altua eta bista ederrak. Trasteleku eta igogailua. 47.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.

**Zarautz.** Kasino kalea. 3 logelako etxebizitza ikusgarria, azkeneko solairuan. Terraza eta garajearekin. Egutera.

**Zestoa.** Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.

**Getaria.** Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Prezio onean: 42.500.000 pezeta.

**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

**Mercedes Viano Fun a salgai.** Motorra: CDI 2.00, 6 plaza, kopi- lotuaren jarlekua bira daiteke, kanping ekipamendua: ohea, mahaia, kajoak, gortinak, kristal tintatuak, berogailua, 12 v tako lau enbuxu. Prezio berria: 21.000. 676 72 04 88 eta 658 72 94 49

**Peugeot Boxer 2.5 TD furgoneta salgai.** Sukaldea, hozkailua, komuna eta 4 pertsonarendako homologatua. Bizikletak eta eskiak eramateko, atzeko bola, goiko parrilla eta alarma. 653 73 08 04

**50 cc Peugeot Eliseo maxi scooter salgai.** 50 cc Peugeot Eliseo maxi scooter salgai. 2000 urtekoa, 3.000 kilometro ditu, berri berria dago. Motor handiagoa erostearren saltzen dit. Prezioa: 1.000 euro (negoziagarri). Telefonoa: 675 00 88 04

**Renault Master autokarabana salgai.** Renault master autokarabana salgai. Oso egoera onean. Informazio gehiago: [edurne.arrieta@euskalnet.net](http://edurne.arrieta@euskalnet.net) edo 655 72 52 52 telefonon.

**7/ ANIMALIAK**

**701. SALDU**

**Artzain txakur alemanak salgai.** (txekiar lineakoa). Hiru hilabetezkoak. Emeak. Oso egokiak zaintzarako. 626 68 68 33

**Artzain txakur alemaniarrek.** Alemaniar artzain txakurkumeak salgai, pedigridunak. Telefonoa: 695 78 63 72

**Bulldog frantsesak salgai.** Prezio onean. 639 75 73 35

**Kanarioak saltzen dira.** Prezio onean. 689 58 60 54

**Pitbulla salgai.** Atigratua. Bi hilabete ditu. Enrique. 685 79 74 63

**Setter ingles txakurkumeak salgai.** Ar bat eta eme bat gertzen dira. Oligarretarako. 200 euro. 699 78 35 25 edo 943 77 04 80

**Txakur hezitzaileak.** Txakur hezitzaile. Eusko Jaurlaritzan erregistratuta. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Noizean behin dobermentu txakurkumeak. 656 79 10 27

**720. EMAN**

**Bi katakume oparitzeko.** Oso sozializatuta daude. Telefonoa: 94 622 51 88

**Bi katakume oparitzen dute Mallabian.** Bat gris eta bestea beltza oparitzen dute. 606 70 91 18

**Katakume oparitzen dira.** Lau katakume oparitzen ditugu. 948 46 04 70.

**8/ DENETARIK**

**801. SALDU**

**BMX bizikleta salgai.** ez delako erabiltzen. Oso egoera onean dago eta ez du erabilpen handirik izan. Manillar, kubieta eta freno berriekin 130 eurotan. 600 71 81 15.

**Baby-cook berdea.** Umeen jantzeria gertatzeko irakigailu eta irabiagailua. Egoera oso onean. 80 euro. Arratsaldez deitu mesedez. 607 06 22 20.

**Bateria elektronikoa salgai.** Roland TD 12 bateria elektronikoa salgai, oso egoera onean. EDIROL eta MIDI kableak opari PCra konektatu ahal izateko. 635 75 20 08

**Bateria salgai.** Oso egoera onean dago eta ia ez du erabilpenik izan, pare bat hilabete gutxi gorabehera; eta prezio ezin hobea, merke merke. Stagg markakoa da eta prezioa negoziagarria da. 600 71 81 15

**Gurpildun aulki elektriko salgai.** 2009ko azararen erositakoa; berria, inoiz erabili gabekoa. Prezio onean. Galdetu Asierren-gatik. 652 76 00 16 edo 943 25 23 64.


**Ile-apaindegiko aulkiak salgai.** Debagoienean. Egoera onean daude. Marian. 943 76 11 56.

**Karabana. Birstner Fun 490TK salgai.** Hiru logelakoa, bainua, sukaldea, berogailua eta abar. Egoera

sudokua

	8	5	4					1
9	6							
4			5		3			
		8	6	4	1			5
3		9	2	5	8	6	7	1
		6		9	7	4		
			8			1	4	
		4			5	7	6	
	7							3

bila-bila 7




hitz gezidunak

	* UDAN	Nazareteko	Kakarraldea
	Kubako hiriburua	Baiezatzeko	Emakume izena
	Toka, nazazu		
	Zintzoa		
Ortuellako auzoa	Amorotoko auzoa		
Labore hautsa	Sona, ospe		
		Marinelen zerrenda	
		Ipar EH-n, izua	
Europako hizkuntza			
Jon den urtean	Zangoaren atal		
	Musika nota		
Lasaia, zabala			500
Gizon izena			Fosforoa

GOIENKARIA

soluzioak




N	E	T	E	H	N	O
I	R	A	B	A	R	K
B	I	P	F	U	P	P
A	R	P	E	A	T	E
T	U	M	A	I	L	U
Z	F	R	E	A	T	A
A	I	E	S	A	G	A
L	G	A	H	E	A	Z
D	A	P	U	N	T	Z

Hieroglifoa: Errekan gora.

hieroglifoa

Nora joan zen arraina?



hizki salda

Arotz lanetarako erabiltzen diren bost tresna.

D	A	P	U	N	T	Z	O	I
S	B	G	A	H	E	A	Z	L
C	I	I	E	S	A	G	A	A
Z	H	F	R	E	A	T	A	Z
A	U	D	M	A	I	L	U	T
B	R	P	E	A	T	E	J	A
O	K	T	F	U	P	P	I	B
B	I	R	A	B	A	R	K	I
O	N	H	I	E	T	E	U	N

6	7	9
8	9	4
5	3	2
8	2	8
1	5	6
3	4	9
7	2	8
4	1	7
6	6	3
2	8	5

O	P	R	A	K	I	L	O	P
D	V	A	V	S	V	N	V	
R	E	Z	I	Z	I	A	V	
A	R	A	L	I	E	R	A	
O	L	R	O	L	A	N	A	
A	G	A	D	I	O	D	T	
K	Z	A	N	A	H	A	B	
K	N	S						

asteko horoskopoa

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Jendeak zuri entzutea gura duzu; horregatik, beti gurako duzu berba egin, eta besteei ez diezu utziko txintik esaten. Saia zaitez orain bizi izaten eta daukazuna estimatzen.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Lanean arazoak izango dituzu, eta gauzak ez dira irtengo zuk espero zenuen moduan. Horrek guztiak urduritasuna eragingo dizu, haserrekor egongo zara.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Gaur egun dituzun lan-baldintzekin ez zaude batere ados, eta aldaketaren bat edo beste egitea pentsatu duzu. Aldaketa gertatuko da, baina ez zaitez zazpikia izan.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Osasuna zain ezazu; bestela, gorputzaldi onenean ez zaudela kontuan hartuta eta estresa dela-eta, gaixotasunen bat har dezakezu eta egun batzuk ohean igaro.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Ez iezaiozu iraganari heldu, lortuko duzun gauza bakarra izango da triste eta etsituta egotea; alkohola edo drogaren bat har dezakezu egoera horiek biguntzeko.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Jaso beharreko ordainsarian atzerapenak izango dira, eta horrek zure poltsikoari eragingo dio; hortaz, ezin izango dituzu etxerako horrenbeste desiotako artikulak erosi.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Lan kontuak direla-eta, alde batetik bestera ibiliko zara eta ez duzu astirik izango zure ingurukoekin egoteko; horregatik, triste eta bakarti sentituko zara.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Etxebizitzaz aldatu edo orain bizi zaren etxea oso-osorik berritu, hain justu. Bestalde, beste sexuarendako duzun erakarpenak lekuz kanpoko egoerak eragingo ditu.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Oso une egokia familiakoekin egoteko eta lehendik datozen gatazka batzuk konpontzeko. Pertsona bat ezagutuko duzu. Hasiera baten, miresgarria irudituko zaizu.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Bikotekidea badaukazu, zuen arteko harremana sendotu egingo da, eta baliteke ezkontzaz eta umeak izateaz berba egiten hastea.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Zure izateko moduak -beti hain zuzena eta bizia- eta gauzak esateko darabilzun modu gogorak eragin dezakete oso lan aukera onak galtzea.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Sentiberatasuna pil-pilean izango duzu eta, horrenbestez, edozein lekutan eta edozein tontokeriagatik negar egiteko gogoia edukiko duzu.

## gazte zerbitzua

### BEKAK

> **Musikagrabazioak.** Arrasateko Udala. 2010 urtean egindako grabazioak diruz laguntzeko deialdia. Taldeki-deen erdiak arrasatearrak izan behar dute. Epea: azaroaren 30a.

> **Begirale edo zuzendari titulua.** Arrasateko Udala. 2009-2010 ikasturtean begirale edo zuzendari titulua atara duten arrasatearrei matrikula gastuetan laguntzeko. Epea: azaroaren 30a.

> **Doktoregoak.** Fundación Iñaki Goenaga. Doktoregoa egiteko laguntza programa. Epea: uztailak 15.

> **Ikerketa.** Eusko Jaurlaritza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Iker-tzaileek egonaldi laburrak egiteko bekak. Epea: urriaren 15a.

### LANA

> **Ikus-entzuzeko komunikazioko teknikaria.** Mondragon Unibertsitatea, Huheziko fakultatea. Baldintzak: lizentziaduna ikus-entzuzeko komunikazioan. Epea: uztailaren 5a.

> **Begiraleak.** Maiatzak 20. Haur sahararren udalekuetarako begiraleak behar dira. 2010eko uztailaren 8tik irailaren 9ra bitartean. Brinkolako aterpetxean (Gipuzkoa).

### LEHIAKETAK

> **Literatura.** EHGAM. "2010 Madelon Sariak". 14-25 urte arteko gazteei zuzenduta. Euskaraz zein gazteleraz, gai librea, baina gay, lesbiana, bisexual edo transexualei buruzko kontakizun laburrak. Epea: urriaren 31.

> **Ei Gazte!** Eusko Ikaskuntza, Gazteria Saila. 18-30 urte arteko gazteei zuzenduta, abenduaren 3an izaten den Euskararen Nazioarteko Eguna internnet bidez ospatzeko ideia sortzaile eta original bat sartzeara eta ospakizunerako gauzatzea. Epea: irailaren 20a.



**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**  
Biteri etorbidea 3 • 943 25 20 65.  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**  
Kultura etxea • 943 77 91 57  
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**  
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57  
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 5



> **Tourraren gainean Iban Velascoekin, 20:45, 22:30**

*Harmailatik* saioan Iban Velascok Tourrerako ze asmo duen azalduko digu; ziklista eta ziklista ohiek iritzia emango dute.

13:15 Marrazki bizidunak.  
13:45 Bertso trama.  
14:15 Eltze beroa.  
14:45 Berriak.  
15:15 Erloklip.  
15:45 Ikusmira.  
16:15 28 Klip.  
16:45 Berriak.  
17:15 Marrazki bizidunak.  
17:45 San Pelaio jaiak.  
18:15 Erreportajea:  
Lesakako San Ferninak.  
18:45 Ilunpean.  
19:15 Marrazki bizidunak.  
19:45 Goiena Magazinea.  
20:45 Harmailatik.  
21:30 Goiena Magazinea.  
22:30 Harmailatik  
23:00 Gipuzkoakultura.  
23:30 Goiena Magazinea.  
00:30 Emisio amaiera.

### Martitzena, 6



> **Aitziber Garmendia 'Ilunpean' saioan 22:30**

*Ilunpean* saioan Jon Berezibar kazetariak elkarriketa egingo dio Aitziber Garmendia aktore zaldibiarriari.

13:15 Marrazki bizidunak.  
13:45 Ur eta Lur  
14:15 Onein.  
14:45 Berriak.  
15:10 Harmailatik.  
15:50 Kirolerokak.  
16:20 Erloklip.  
16:45 Berriak.  
17:10 Marrazki bizidunak.  
17:35 Eskuokin  
17:55 Kurtuzulo.  
18:15 Gipuzkoakultura.  
18:45 Berriak.  
19:15 Marrazki bizidunak.  
19:45 Goiena Magazinea.  
20:45 Harmailatik.  
21:30 Goiena Magazinea.  
22:30 Ilunpean.  
23:00 28 Klip  
23:30 Goiena Magazinea.  
00:30 Emisio amaiera.

### Eguaztena, 7



> **Juan Kruz Mendizabal, 'Sakonduz' saioan 22:15**

Goierri telebistan ekoizten duen *Sakonduz* saioan elkarriketa egingo diote Juan Kruz Mendizabal apai-zari.

13:15 Marrazki bizidunak.  
13:45 Ikusmira.  
14:15 Eltze beroa.  
14:45 Berriak.  
15:10 Ilunpean  
15:50 Onein.  
16:20 28 Klip  
16:45 Berriak  
17:15 Marrazki bizidunak  
17:35 Harmailatik.  
18:15 Ur eta lur.  
18:45 Berriak.  
19:15 Marrazki bizidunak.  
19:45 Goiena Magazinea.  
20:45 Ilunpean  
21:15 Goiena Magazinea.  
22:15 Sakonduz  
22:45 Kanaldude.  
23:15 Jazz jaialdia  
23:45 Goiena Magazinea.  
00:45 Emisio amaiera.

### Eguena, 8



> **Papiroflexia eta serigrafia tailerren erreportajea 13:15, 22:15**

*Gipuzkoakultura*-k hainbat erreportaje emango ditu: tartean, papiroflexia eta serigrafia tailerren gaineko erreportajea.

13:15 Marrazki bizidunak.  
13:45 Sakonduz.  
14:15 Eltze beroa.  
14:45 Berriak.  
15:15 Gipuzkoa kultura.  
15:45 Kanaldude.  
16:15 Ikusmira  
16:45 Berriak.  
17:15 Marrazki bizidunak.  
17:45 Eskuokin.  
18:00 Onein.  
18:45 Berriak.  
19:15 Marrazki bizidunak.  
19:45 Goiena Magazinea.  
20:45 Kanaldude.  
21:15 Goiena Magazinea.  
22:15 Gipuzkoakultura.  
22:45 Kulturzulo.  
23:00 Erloklip.  
23:30 Goiena Magazinea.  
00:45 Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 9



> **Lazkaoko zartzuela ikusgai, GOITBn 22:15**

Goierri telebistak ekoiztutako saioa eskainiko dugu eguenean, Lazkaon egindako zartzuelaren gaineko saioa.

13:15 Marrazki bizidunak.  
13:45 Animalia.  
14:15 Onein  
14:45 Berriak.  
15:15 Ur eta lur  
15:45 Jazz jaialdia.  
16:15 Mendialdean bizi:  
Lesaka.  
16:45 Berriak.  
17:15 Marrazki bizidunak.  
18:00 Ilunpean: Aitziber Garmendia.  
18:45 Berriak.  
19:15 Marrazki bizidunak.  
19:45 Goiena Magazinea.  
20:45 Gipuzkoa kultura.  
21:15 Goiena Magazinea.  
22:15 Zartzuela  
22:45 Kirolerokak.  
23:45 Goiena Magazinea  
00:45 Emisio amaiera.

## arrasate irrata

FM 107.7

> **Aquariumerako eta igerilekurako sarrerak oparitu dituzte Arrasate irratan, eta baita musika hainbat disko ere.**

Eskaintza freskagarria egingo die oraingo astean irratiak entzuleei: Donostiako Aquariumerako sarrerak eta igerilekurako sarrerak zozketatuko dituzte. Horrekin batera, Arrasateko Cool Circus eta Los Galerna taldeetako diskoak ere oparitu dituzte zozketa bidez.

### Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

### Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan

Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kirolak  
Ilunpean (elkarriketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)  
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin  
Udal Gazte Bulegoa  
Sexologia Zerbitzua  
Azkeneko Geltokia: hiletan oharra; zorian agurrak; eguneko oharra...  
Astearren erreposoa (Goienkariarekin)  
Eguneko eta asteo protagonistekin, elkarriketak  
Zozketak (egubakoitzean)  
Zorian agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com))  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Uda Giroan  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

## telealbistek

GOITB > JAIK

## Elgetako eta Aramaioko jaietako irudiekin hasiko dugu astea 'Magazinea'-n

Asteburuan ospatuko dituzte Elgetako jaiak, eta barikuan hasiko dituzte Aramaiokoak; bertan izango da GOITB

diak -tartean asto lasterketa, paella erraldoia, harri jasotzaileak... grabatuko ditu GOITBk. Domekan, berriz, Ferixa nagusia izango da Elgetan, eta bertako irudiak ere grabatuko dituzte, gaurko *Magazinean* eskaintzeko.

### BAITA ARAMAIOKO JAIK ERE

Elgetako jaietako batera, baina, Aramaion ere jaietan murgilduta dabilta egunotan. Gaurko, astelehena, *Magazinea*-n ere lekua izango dute asteburuan izan diren hitzorduek -tortilla txapelketa, herri kirolak, kuadrilen arteko pikea...- Horrekin batera, martitzenean ere Aramaioko jaiak izango ditugu telebistan, gaurko herri afariko irudiak emitituko dituta ibarreko telebistak.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE  
Udarekin batera, jai sasoian sartu da Debagoiena, eta Goiena Telebistak horixe jasotzen dihardu bere programazioan; batez ere, *Magazinea*-n.

Oraingo astean ere izango da zer ikusia GOITBn: asteburuan Elgetako jaiak ospatuko dituzte, eta gaztetxoendako antolatutako ekitaldiak, zapatuko Herri eguneko iru-

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA


MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

### LITO METEORITOAREN ABENTURAK

#### Planetarium Txikiko saio berria

4-8 urte bitarteko haurrei zuzenduta  
Museoko sarrerarekin ikus daiteke

**Simulagailuen ordutegia:** asteburu eta jai-egunetan  
11:30-14:30 eta 15:30-19:00



Informazio gehiago: [www.miramon.org](http://www.miramon.org) edota 943 01 24 78



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramon.org](http://www.miramon.org)

**Ordutegia**  
Astelehenetan itxita.  
Astelehenetik ostiralera 10:00-20:00.  
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-20:00.

## berri zakua



**Frontkick Etxoste tabernan.** Berlingo laukotearen zale arrasatearrentzako sekulako oparia izan zen zapatuan Etxosten edukitakoa. Des-Kontrolakoeekin batera Monterronen jotzekoak ziren Frontkickekoak baina arrasatearrek bertan behera utzi zuten kontzertua. Hala ere, bidaia berdin-berdin egin eta zaleei sekulako gozatua ematea erabaki zuten alemaniarrek. Ez da herrian dauden lehen aldia, aurrez Hiru aretoan eta Monterronen ere jo izan dute, baina bai formazio berriarekin jotzen duten lehenak.

## kuxkuxeroa



Julen Iriondo

## Jatetxeak erdi hutsik: zergatik ote?

**A**steburutako gure lantaldeko arduradunak esaten du, niri lana tokatzen zaidan bakoitzean badudala bazkariren bat edo zerbait; eta ez zaio arrazoirik falta.

Baina tira, bestela ere bazkaldu gabe ez ginen egongo eta zapatuan Olabartako merenderora joatea tokatu zitzaigun, familia hitzordura.

Eta hara non, alboko mahaiari jende ezaguna: Eusko Jaurlaritzako sailburu izandakoa, **Sabin Intxaurrega**. Oraindik ere eskolako lagunekin biltzen omen, eta aitzakia horrekin etorri Oña-

## "Sabin Intxaurrega Jaurlaritzako sailburu ohia Oñatin izan zen bazkaltzen, eskolako lagunekin"

tira, jakin ahal izan nuen ez.

Egia esan, ez zen jende gehiegi eguerdian Olabartako jatetxean, ezta gauean kaleko zenbaitetan ere. Telebistan Espainiaren partidua ematen ari zirelako ote? Ibarreko xxxx herritan, xxxx deritzon batek eta haren lagunek kolpe latza eman omen zioten mahaiari Xabi Alonsok, bigarren aukeran, penaltia huts egin zuenean.

Espainiak Mundiala irabazten badu, hango hedabideen bonbardaketa ez agoantzeagatik urrutira joateko gogoia egingo zaio bati baino gehiagori –beste asko poztuko dira–. Ez horregatik –ez dugu uste–, baina hilabete honetan Euskal Herritik kanpora ei doa biran **Mery Mey**, musikari arrasatearra; Irlandara, hain zuzen ere.



**Oñatiko gazteguna.** VI. Gazte Eguna ospatu zuten zapatuan Oñatin gazte batzarrekoek antolatuta. Egun osorako egitarau gertatu zuten, tartean arratsaldeko olinpiada herrikoiak eta manifestazioa, baina gaueko kontzertuek erakarri zuten jendetzarik handiena. Never Surrender, Emon, Los Zopilotes Txirrius Nos La Suda, Ez! eta Kontaminación Acústica jo zuten. Batez ere, Los Zopilotes Txirrius-ek erotu zen jendea gehien, giro aparta ipini zuten-eta iruindarrek.



**Horma-irudia, Udaixeko gaztetxoek egina.** Eguaztenean hasi eta egubakoitzean amaitu zuten argazkiko horma-irudia. Hain zuzen, Txatxilipurdik antolatzen duen Udaixe egitasmoaren barruan kokaturiko ekintzetako bat da hau. Grupo San Juaneko biltegian, Maalako biribilgunean bertan, margotu dute murala. Txatxilipurdikoek diote "gaztetxo gutxi animatu" bazitzaizkien ere, joandakoei "euren artista sena erakutsi ahal izan" zutela. Ostean, afaldu eta film bat ikusteko aukera izan zuten gaztetxo eta begiraleek.

## HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: [astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)

## zorion agurrak



**ARETXABALETA**  
**Itsasne Barandiaran Amozarrain**  
Ekainaren 30ean, 3 urte. Zorionak, Itsasne. Muxu asko zure familiaren partetik.



**ESKORRIATZA**  
**Aritz Zubia Altuna**  
Ekainaren 30ean, 8 urte. Zorionak, txapel-dun! Ondo pasatu zure egunean. Muxu handi-bat etxekoan partetik.




**ARRASATE**  
**Urko Taracido**  
Uztailaren 1ean, 5 urte. Zorionak, *kanpe-on!* Oso ondo pasatu zure egunean, urtebetetzea asko ospatu eta opari asko euki. Muxu handi-handia denon partetik.



**ARRASATE**  
**Oihan Loiti**  
Uztailaren 2an, 7 urte. Zorionak, Oihan! Tori zazpi muxu potolo familia guztiaren partetik. Segi horrela, *guapo!*



**OÑATI**  
**Saioa Altube**  
Uztailaren 3an, 29 urte. Zorionak, potxoli! Uztailak 3 egun potolua: zeure eguna eta ezkontza eguna baita. Zorionak, bixoiri! Sevillarainoko, pa!



**ARETXABALETA**  
**Javi Martin**  
Uztailaren 3an, 41 urte. Zorionak, aita-txo, *guapo!* Muxu handia lagoren eta Andoniren partetik.



**OÑATI**  
**Mikel eta Aitor Dorado**  
Uztailaren 4an, 27 urte. Lagunak desiaitten gauz zuek preparatuko parrillada erraldoia noiz jango! Zuek baino sukaldari hobiak gutxi munduan! Segi hola. Zorionak eta urte askotarako!



**OÑATI**  
**Odei Palacin Aldea**  
Uztailaren 4an, 3 urte. Zorionak, txapel-dun! Patxo handiak danon partetik.



**BERGARA**  
**Mikel Unamuno Andueza**  
Uztailaren 4an, 3 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat etxekoan partetik.



**ESKORRIATZA**  
**Oihane Belategi Arrese**  
Uztailaren 5ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Jada 5 urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna, merixenda goxo-goxue preparatu Leixarrapen eta patxo potolo bana aitaxo, amatxo eta Ametzen partetik.



**BERGARA**  
**Cristina Marzan Perez**  
Uztailaren 5ean, 36 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, asko maite zaitugulako Naia, Iker eta Diegoren partetik. Muxu handi-handi bat!



**ESKORRIATZA**  
**Sergio Souto**  
Uztailaren 6an, 30 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure egunian. Zure gonbidapenaren zain egongo gara, bale! Muxu asko zure familiaren eta, batez be, Mayaren partetik.



**BERGARA**  
**Jone Arrieta eta Maddi Lazkano**  
Uztailaren 7an, 6 urte. Zorionak gure printzesa polit honei, patxo pila etxekoan partetik eta marrubizko bi patxo erreldoi. Markel eta Paulen partetik, gora San Fermin!



**ESKORRIATZA**  
**Nagore Garnateo Ignacio**  
Uztailaren 7an, 7 urte. Zorionak zure gurasoen, anaiairen eta lagunen partetik. Egun ona pasa dezazula.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitarteok Asteleheneko Goiienari bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

### Internet bidez

Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu. Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

### e-postaz

Mezu bat bidali [zorionagurrak@goiena.com](mailto:zorionagurrak@goiena.com) helbidera. Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz eta zenbat betetzen dituen, eta nahi duzun mezua.

### Edo etor zaitez Goienako ordezkartza batera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



**BERGARA**  
**Haritz Gomez de Balujera Oregi**  
Uztailaren 8an, 7 urte. Gure printze txikiari zorionak etxekoan partetik!



**AZPEITIA**  
**Aitor Kaperotxipi**  
Uztailaren 8an, urtebetetzea. Zorionak zure lankideen partetik. Soseguz ospatu eta ea buelta bat ematen diguzun Focuzin.



**ARRASATE**  
**Maddi Calvo Ugalde**  
Etxebarriako Maddik uztailaren 9an urtebetetze egingo du. Zorionak aiton-amonen eta tio Anderren partetik!



**ARRASATE**  
**Kristina Corral Ezkurra**  
Uztailaren 9an, urtebetetzea. Zorionak etxeko guztion partetik. Egun polita pasatu ezazula. Muaka, muaka.



**BERGARA**  
**Miren eta Nora Gabilondo Aristi**  
Mirenek uztailaren 10ean, 3 urte eta Norak 14an, 5 urte. Ondo pasatu zuen urtebetetze egunian. Patxo bat etxekoan partetik.

## jaiotakoak



**Imanol eta Ane Fernandez Royo**  
Arrasate > Imanol 2,650 kilo eta Ane 2,320 kilo. Uztailaren 1ean. Ama: Mireia (Elorrio). Argazkian, Imanol eta Ane jaioberriak, amarekin.



**Amaieur Arregi Markuleta**  
Oñati > 2,700 kilo. Uztailaren 1ean. Gurasoak: Ainhoa (Oñati) eta Estepan (Oñati). Argazkian, Amaieur jaioberria, sehaskan.



**Aratz de Manueles Miranda**  
Antzuola > 3,200 kilo. Ekainaren 30ean. Gurasoak: Rebeca (Bergara) eta Jorge (Bergara). Argazkian, Aratz jaioberria, aitarekin.



**Telmo Urzelai Ugarte**  
Oñati > 3,750 kilo. Ekainaren 29an. Gurasoak: Edurne (Oñati) eta Juan (Oñati). Argazkian, Telmo jaioberria, sehaskan lo.



**Oihan Benitez Gomez**  
Eskorriatza > 3,400 kilo. Ekainaren 25ean. Gurasoak: Susana (Eskorriatza) eta Iban (Arrasate). Argazkian, Oihan jaioberria, sehaskan lo.



**Unai Arrupe Ituarte**  
Zumaia > 3,000 kilo. Ekainaren 28an. Gurasoak: Ione (Zumaia) eta Xabier (Ereño). Argazkian, Unai jaioberria, gurasoekin.



**Afaf Elghoulbzouri Lamaiz**  
Debagoiena > 3,450 kilo. Ekainaren 25ean. Gurasoak: Abdelmalek eta Lohra. Argazkian, Afaf jaioberria, sehaskan lo.



**Ekain Bergaretxe Herrero**  
Aretxabaleta > 3,130 kilo. Ekainaren 30ean. Gurasoak: Vanessa (Arrasate) eta Aitor (Aretxabaleta). Argazkian, Ekain jaioberria, sehaskan lo.

**BABESLEA**

**IKUSI MAKUSI**

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Haritz Rodriguez > Kazetaria eta abentura zalea

# "Denok ditugu gauza politak kontatzeko"

**JON BEREZIBAR > BERGARA**  
**Monsieur Toutlemonde da bera.** Gaitzen horrekin sinatzen ditu *Tokitan.tv*-ko "abentura txikiak". Arriskuz jositako oihan ilunetatik urrun eta lepoa jokatu barik edonork egin ditzakeen abentura txikiak erakusten ditu sarean ikus daitekeen telebistan. "Abentura txikiak baina bizipen handiak" dio.

**Disneyren Up animaziozko fimak hainbesteko marka utzi dizu?**

Uste dut film horrek ezin hobe biltzen duela *Tokitan*-en filosofia. Bere bizitzako bidaia egin gura duen agurea eta boy scout esploratzaile bat dira protagonistak. "Edonor izan daiteke bidaiari", horixe da mezua. Ekimena sustatzeko muntaia egin nuen neurere zein filmeko irudiekin. Kritikaren bat ere jaso dut hala ere, Disney erabiltzearen...

**Bizia arrikatu barik, ba al dago abentura handirik baina?**

Ohituegiak gaude hedabideetan bidaiari handiak ikusten; elite kirolariak, esploratzaileak... Baina geure abenturek txikiak

izanagatik ez dute zertan zirra-  
 ra gutxiago izan beharrik.

**Zein protagonista. Exhizibionismo hutsa?**

Blogariei beti esan digute nahiko exhizibionistak garela. Nik herri kazetaritzan sinesten dut eta uste du *Tokitan.tv*-k baduela horretatik. Denok daukagu gauza interesgarriak esate-

ko eta denon bizitzetan daude gauza politak kontatzeko. Baita itsusiak ala gogorak ere...

**Zein duzu ametssetako bidaia?**

Datorren urterako ari garena prestatzen. Nire eta batez ere gure aitaren ametssetakoa da: Hornos lurmuturra belauntziz zeharkatzea, Hego Amerikako punturik australena. Hori erronka bat da. Agian nire ametssetakoa *transiberianoa* egitea da, Moskutik Beijingera. Asko gustatzen zaizkit trenak eta gainera *Dersu Uzala* datorkit gogora.

**Planeatu egiguzu abentura txiki bat oporretarako.**

Etxean bertan geratzekotan, Iparla mendigunea; Bidarraitik Izpegira. Inguru hori benetan da ikusgarria. Espainian badago Serengeti espainiarra deitzen dioten leku bat: Cabañeroseko parke nazionala, Gaztela-Mantxan. Frantzia Médoc eskualdea gomendatuko nuke, Gironako estuarioaren hegoaldean. Ardo oso ona egiten dute eta gaztelu ala *château* mordo bat dago ikusteko. Neu aurki itzuliko naiz.



Haritz Rodriguez.

JONE INUNZIAGA

SOSLAIA

## M. Toutlemonde

Lehen euskal blogari profesionala izan zela esan liteke, soldatapean. Gaur8-rekin hasi, Euskaltube bultzatu eta orain *Tokitan.tv*-rekin. "Les voyages du Monsieur Toutlemonde", hau da, Rodriguez beraren abenturatxoak agertzen dira bertan eta Sorian oreinen ugalketarekin hasi, Pirinioetako igoeretatik pasatu ala surf saioak jaso ditu.

Guztion esku dauden proposamenak dira, abentura txiki batekin bizipen handiak gura dituzten horiendako eginak.

## ai, ene!



### Laster, itsaso barik

Adituen esanetan, azken hamarkadatan itsasoak izugarri kontaminatzen gabilta. Kalteak ikusten ez direnez, hondakinak bota eta bota gabilta, eta ezingo da sarraskia berreskuratu. Itsasoa margo egin beharko dugu laster!

<http://www.slideshare.net/msp>

## biharamuna

Marijo Deogracias


### Mundiala, sanferminak!

**P**atxi Lopezek atzo **Zaldieroan** adierazten zuen "bajoia" **Maradonak**, eta ia Argentina osoak, dutenaren parekoa dela esango nuke; jakina, arrazoiak ez dira inondik ere berdinak. Lehendakaria, antza, ez du inork maite. Argentinarrenak, Alemania dauka izena. Bitxia da gero mundialari begira egin daitezkeen irakurketak. Ziur naiz, Espainiako Estatuarekin izan beharreko konfrontazio bidean ere, norbaiti barretxo atera zitzaizola zapatuan **Xabi Alonsok** bigarrenez jaurti behar izan zuen penaltia sartzetik izan ez zuenean. Zaldieroan ikusiko ote ditugu? Igual ez;



honezkero den-denak "pañuelikoa" prest izango dutelako, benetako santuaren omenez, krisia ahaztu, eta parrandan ateratzeko. Etzi izango delako gorritz janzteko eguna; jakina, San Ferminetarako, ez beste "gorriak" ikusteko. Norbaitek, baina, izango du tentazioa Gora **San Fermin** esateaz gainera, beste norbait ere gogora ekartzeko. Behin hemen-txe idatzi nuen bezala, eta **Lendakaris Muertos** taldea omenduz, "mi conciencia me da igual, no puedo dejar de gritar, Gora España". Denetakoa behar delako egon, gora san ferminak eta gora peñak, Barcinari gustatu ez arren!

## eguraldia



MAXIMOA

**+25**

MINIMOA

**+15**

Goizean barnealdeko tokietan sortutako behe-lainoa desegin ostean, eguzkia bere osotasunean ikusteko moduan izango gara.

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)

## Aramaio eta Elgetako jaiak

ARAMAIO ETA ELGETAKO JAIEN JARRAIPENA MAGAZINEA-N  
 Astelehenean, uztailaren 5ean, 19:45, 21:15 eta 23:15ean

BABESLEA:

